

ALKIZAKO HERRI ALDIZKARIA · 10. ALEA

Oilategitik

2010

10 urtez
zuekin!



nonzer

OILATEGITIK 2010
ALKIZAKO HERRI ALDIZKARIA
10. ALEA

- 3 Mendiolatik. Xabier gogoratuz
- 5 Udalaren txokoa
- 6 Herri ikastetxetik
- 9 Denbora-pasak
- 10 Alkizako udalaren lur sailen zerrenda (1846-49)
- 12 Alkizako etxe eta biztanleak
- 14 2010, aurtengo baserrien oinoharrak
- 16 Bitxikeriak
- 18 Sukalde txokoa
- 19 Alkizako jaiak 2010
- 20 Atzo atzokoak
- 24 Antonio Sorarrain Amunarriz, Alkizako idazle goiztiarra
- 26 Ehun urteren peskizan, Alkizan
- 27 Las Vegas Txiki
- 28 Sabina, Usurbilgo señorita, Alkizaleten
- 30 Garo meta izugarria Lete aurrean
- 32 Garai bateko hauteskundeak
- 33 Denbora bankua martxan Alkizan
- 34 Alkizako ilargibetea Maialenen txapel
- 37 Manuren promesa
- 38 Euskal literaturan Hernio-beheko izar batzuk, idazle eta bertsolariak
- 41 ARGIA aldizkaria: 1922-1936 urteetan idatzitako Alkizako kronikak
- 42 Gure piztiak. Basoko txori txikiak
- 44 Juan Karlos Etxebeste, eliteko atleta beteranoa
- 47 Kepa Fernandez de Larrinoa, lurralde indigenei begira
- 48 "Arre Felipe, bate beldurripe". Antton Sorarrain: asto lasterketetan maisu
- 50 Alkizar guztiek kirola egin dezaten da gure helburua. Alkizako kirol batzordea sortu da
- 52 Tomax musikaria
- 54 Santiago bidea behor ganean
- 56 Xabier Artola: "Betidanik gustatu izan zait hizkuntzarekin jolastea"
- 60 Alkizako barraskiloak Etxesagasti baserrian
- 63 Oilategitik aldizkariaren 10. urteurrena

Argitaratzailea eta koordinazioa: Alkizako Oilategitik K.E.

Tirada: 800 ale.

Lege Gordailua: SS 814/01

Oilategitik aldizkaria doan banatzen da eta ez du bere gain hartzen bertan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



■ Manu Urruzola

Mendiolatik Xabier gogoratu



1992ko Santa Ageda bezperan. © Rosarito Urruzola

Dooooooooooooooooooooooooooooo.....

Norbaitek esango dik erotu naizela baina ez, ez, kaskezurrean sartu zitzaian solfeoa erakutsi behar higu-kela eta hala! Eskua gora eta behera eta ezkerrera eta eskuinera. Uste diat norbaitek agujetak ere izan zituela eta solfeoa... apenas.

83a huen eta aurretik Moxok jakinaren gainean jarrita utzi zian Alkizako eskola: "Datorren maixua eskulane-tan behintzat oso trebea dek/n eta aprobetxa ezazue". Hark zerbait bazekian. Geroztik 10 urte hemen pasat-akoak eta ai, zenbat oroitzapen...

Orain eskolan kabitu ezinik zebiltzak, baina hik non-

bait espazioa alperrik galtzen zegoela edo... Tailerra egin behar zela beheko solairua lau zatitan banatuz, eta lehenik proiektua egitea gure esku, eta gero han-txe, "jo ta fuego" ostiral arratsaldero, asteburuaren atari, josten, arotzean, sukaldean eta buztina lantzen zerbait ikasi genian. Moxok arrazoi.

Edo montatutako laborategia: pote batekin argaz-kiak atera eta errebelatzen ere aritu gintuan; diaposi-tibak egiten; liburu bana ere idatzi genian eta baita enkuadernatu ere. Kazetari sen honen oinarri, hilean behin idazten genian "Herri-Hitz" hilabetekaria.

Ta irratia, jo gure Traganarru irratia, oraindik ere martxan zagok hi. Grabatua zegok Euskadi Irratikoek



Xabierri Alkizan omenaldia egin zitzaion egunean. © Rosarito Urruzola

zuzenean, hemendik, Euskal Herri guztirako egin zuten saioa Jaime, Arantxa eta M^a Karmenekin. A zer ume ahotsak gaur helduxeago direnenak. Zer esan pelikulari buruz, extralurtar bati Alkiza guztia erakutsi ondoren dena amets batean geratu zenekoa, bai pelikula eta bai eskolarteko saria. Hire beste pasioa garbi zagok zein zen; musika. Eneee, txistuko klasean egiten genituen parreak. “Pello Joxepe” eta “Uso xuria” behintzat ikasi genizkian, eta ez dek gutxi. Eskerrak soinu ttiki bana ez higuken erosi arazi behintzat. Edo kitarra; ze politta kitarra joaz Txirritaren bertsoak abesten genituenean. Bapatean hasteko puntturaino iritsi gintuan ta etzekiat-etzekiat jarraitu izan bagenu Egañak hainbeste txapel jantziko ote zituen.

Hainbat eta hainbat kontu zeudek gure memoritan. Hargatik bazekiat eta ziur nagok hire urterik kuttunenak Alkizan pasa hituela eta maite gaituala, guk hi bezela, baina jakin nahi genikek noiz etorriko haizen bixitan Alkizara Mendiola aldetik, hamaika korrika saio egindako parajetatik.

Gauza asko zor dizkiagu eta kolpean gauza asko aldatu izan arren, espero diagu halakoren batean kitarrarekin Xabier Leteren kantak abestuz elkar ikustea. Hire umore ironiko hori ezin dek kolpean itzali. Guretzat beti “Xabier maixua” izango haiz eta ... Denagatik milesker, agur eta ohore artixta!

Ea hurrengo bertsoren batek zerbait gogorarazten diken.

*Gazte gazterik etorri hitzan
ta Alkizako partian
zorte ederra izan genian
egon hitzan bitartian.
Ondo gogoan izango haugu
bizi geraden artian
hire aipamenak izango dituk
beste larogei urtian.*

*Esan bezala ezagutua
diagu guk hainbeste poz
Hire esana aspaldikoa
kantatu “denok” ta “gogoz”.
Alaitasuna gure kontura
Xabier kantatu ta bertsoz
hik hor nonbaiten musika jarri
soinua ta kitarra joz.*



■ Jose Mari Aranzabe

Udalaren txokoa

✓ Fosa septikoa: Martxan jarri da aurten Alkizako fosa septiko berria, Bida teknologia berriarekin. Uste baino luzeago joan dira obrak eta horrekin baita ere presupuestoa, 200.000 € ingurukoa izan delarik azkenean. Foru Aldundiak lagundua izan da.

✓ Don Juanena etxea eraberritzea martxan da. Konbenioa firmatu besterik falta ez delako. Kostua 670.000 €-koa da eta Erein eta Diputazioak lagundua egongo da.

✓ Bestalde Plan E edo Zapateroren dirulaguntzak izan dira. Diru hauek herri bideen konponketan erabili dira, kostua 21.311,52 €-koa izan delarik. Udal inguruko muro berria egitearen kostua 15.274,49 €-koa izan da.

✓ Baita ere Udalerriko argizatzea berritu da "aurrezpen energetikoa" delako planean, kontsumo gutxiko bonbillak jarriaz. Guztia 6.000 €-tako gastua izan da.

Udalaren Aurrekontua

2010. urterako Alkizako Udaleko aurrekontu orokorra jendaurrean jartzeko arazko epea amaitu, eta inolako erreklamazio zein oharpenik jaso ez denez, aurrekontuak honela geratzen dira:



Udalaren atzealdeko orma berria Berrondo lur sailan.

© XabierArtola

SARREREN EGOERA

1	Zuzeneko zergak	48.200
2	Zeharkako zergak	8.000
3	Tasak eta bestelako sarrerak	33.274
4	Transferentzia arruntak	270.439
5	Ondarezko sarrerak	4.400
6	Inbertsio errealak besterenganatzea	0
7	Kapital transferentziak	23.240
8	Aktibo finantzieroak	0
9	Pasibo finantzieroak	179.138,61
	GUZTIRA	566.691,61

GASTUEN EGOERA

1	Pertsonal gastuak	137.700,00
2	Ondasun eta Zerbitzu arrunt. gastua	108.500,00
3	Gastu finantzieroa	100,00
4	Transferentzia arruntak	79.426,61
5	Ondarea	0,00
6	Inbertsio errealak	240.965,00
7	Kapital transferentziak	0,00
8	Aktibo finantzieroak	0,00
9	Pasibo finantzieroak	0,00
	GUZTIRA	566.691,61

Ongi etorriak eskolara!!!

Jakingo duzuen bezala Alkiza herria hazten ari da eta eskola berarekin batera. Aurtengo ikasturtean 6 ume berri matrikulatu dira Herriko Eskolan! Beraz, hiru gelako eskola izan beharrean lau geleen osatuta egongo da. Guztira 42 ume izango dira eskolatuak oraingoan. Bejondeigula!!



Olatz



Alvaro



Maddi



Lide



Irina



Oier



Pianoa opari eskolarentzat!!!

Herritar askok jakingo duzueenez, aurren eskolari balio oso handiko pieza bat oparitu zaio: piano eder bat! Eta gainera egoera onean eta afinatuta dago. Dagoeneko hasi gara pianoa erabiltzen. Extraeskolarrak musika saioetan umeak eta hain umeak ez direnak hasi gara pianoa jotzen eta ikasten. Izan ere, instrumentu eder honi etekina ateratzen hasita gaude. Orain lerro hauetan eskertu nahi diegu ermita bidean bizi diren Harry eta Mariajeri gurekiko izan duten begirunea eta borondateagatik. Bikote honen nahia, "pianoa herritarren eskuetan geratzea", bete da eta bihotz bihotzez eskertzen diegu halako oparia egin izana! Atsegina da ikustea oraindik ez dela zoritxarreko dirua bakarrik agintzen duena gizartean, baizik eta elkartasuna eta umildadea ere, bizirik daudela.

*Piano eder hau
gutzat zorionez
mila esker benetan
diogu bihotzez
Soinu politak atea
zuen omenez
entzun dezazute
abesti hau pozez*

Totema, “Etxe animaliak”



Aurten, Alkizako Koldobika Jauregiren eskutik proposamen berri bat iritsi zitzaigun eskolara: “eskulanetako arloari sormen artistikoa ematea”. Gurasoek, jakinaren gainean ipinita, lanari ekin genion, eta herriko txokoren batean ikusgai egoteko “totem” bat egitea pentsatu genuen.

Hasieran, marrazkiak egin genituen, lehenengo pausoa buruari astindu bat ematea izan zelarik, ostean pentsamenduaren irudikapena orri batean marrazki baten bidez azaldu genuen. Ondoren, guk aukeratutako materialarekin irudi horri bolumena eman genion. Erabilitako materialak, besteak beste, kartoia, jogurt poteak, botoiak, alanbrea, galtzerdi zaharrak, zintak etab izan ziren. Eskulan honek material desberdinekin lan egiteko aukera eman zigun. Eskultura oso kuriosoak atera ziren: etxea, sugeak, izurdea, txakurra, zezena,.... **ARTISTA BILAKATU GINEN!!!!**

Hurrengo helburua talde lanean oinarritutakoa izan zen, bakoitzak sortutako lanarekin guztien arteko eskultura erraldoi bat osatzea, hain zuzen ere. Handien eta ertainen gelakoak elkartu ginen totem hori osatzeko. Guk egindako gauzak itsasten hasi ginen kola berezi batekin eta Koldobikaren laguntzarekin. Hasieran itxura kaxkarra zuela iruditu zitzaigun arren, saioa bukatzerako oso forma polita eman genion.

Hurrengo erronka, eskolan sortutako eskultura hura sendoagoa eta iraunkorragoa izan zedin, Koldobikaren eskutik etorri zen. Maketa bere tailerrera eramanezuen poliesterrarekin bukatzeko eta egia esan,

bueltan etorri zen totemaren aurrean erabat harrিতa geratu ginen.

Azkenik, margoak eta brotxak hartuta, margotzeari ekin genion. Kolore desberdin asko erabili genituen, nahasketak egiten ere ikasi genuelarik, esaterako, morea, marroia...

Bukaeran pazientzia handiz burututako lanaren fruitua aurrez aurre genuen. Oso pozik eta ase geratu ginen denok, ikaragarri polita eta bizia zelako gure totema. Totema herriko txoko batean kokatzea pentsatzeaz gain, guztien artean zaintzeko konpromisoa ere hartu genuen. Udaletxeko oniritzia eta baimena lortutakoan, egiteko bakarra, “animalien etxea” inauguratzea zen. Eta halaxe izan zen, Totema Etxaburu etxaldetako bidezidorrean ezarri genuen. Egun horretan gurasoek alaitutako giroa eta hamaiketaketoxoa lagun, azken emaitza alkizar guztien begi bistan gelditu zen!

Alkizako eskola txikiarentzat horrelako ekintzak oso esanguratsuak bihurtzen dira gurasoak eta herritarrak ere parte hartzaile zuzenak bihurtzen direlako. Azken finean funtsezkoena, denon eraginez, Alkizako eskola herrikoia eta irekia dela ohartzea izan da. Ahal den neurrian eta lerro hauetan deskribatutako ekimenaz aparte, beste zenbait alorretan ere, eskola honek herriarekiko duen konpromisoa eta partaidetzarekin jarraitzeko pronto gaude.

Besterik gabe, esker mila guraso, herritar, irakasle eta ikasle guztioi talde lanean sinisteagatik!



Yurre Goya ■

Hizki zopa

Hizki zopa honetan Alkizan erroldatuta dauden 25 pertsonaren abizenak bilatuko dituzu. Zorte on!

A	J	L	A	K	L	U	M	N	D	X	Z	P	Ñ	H	G
M	L	L	K	N	I	N	B	Z	S	O	F	K	T	Y	O
E	S	A	H	K	D	J	P	E	L	L	E	J	E	R	O
Ñ	A	J	B	K	R	B	F	G	H	O	O	I	K	Ñ	L
L	A	O	P	A	A	K	L	S	A	R	A	L	E	G	I
K	S	U	N	K	Z	M	R	J	L	G	H	G	D	O	R
K	D	I	I	H	I	N	O	R	O	T	E	T	A	I	U
J	X	Ñ	A	L	L	O	P	E	Z	A	O	J	K	K	R
H	Y	A	R	X	N	L	E	O	U	P	Ñ	K	Ñ	O	E
H	E	R	R	T	A	L	R	H	R	Z	I	J	L	E	T
U	U	G	A	X	E	A	O	G	R	U	R	A	J	T	A
R	J	A	R	A	N	B	U	R	U	S	U	I	L	X	G
R	B	P	O	P	K	A	S	A	G	I	R	R	E	E	O
E	N	K	S	A	I	Z	A	R	A	A	E	U	A	A	I
T	N	A	A	R	S	I	F	Y	R	U	T	L	R	O	E
A	I	G	E	T	O	D	U	T	T	R	A	E	R	E	N
B	K	A	O	E	Ñ	N	O	I	E	R	G	G	K	G	A
I	A	N	R	G	T	E	D	S	M	E	O	I	L	A	I
Z	J	E	I	I	M	M	T	U	E	L	I	E	L	N	U
K	O	O	I	N	A	L	T	U	N	A	E	S	G	L	O
A	Y	G	O	R	O	S	T	I	D	I	N	A	F	Ñ	O
I	L	F	K	A	R	R	U	T	I	L	A	K	L	L	K
A	M	N	H	B	F	D	A	J	A	U	R	E	G	I	A

Aurkitu beharreko abizenak:

Agirre, Altuna, Aranburu, Arruti, Goenaga, Gorostidi, Iruretagoiena, Irulegi, Jauregi, Lizardi, Lopez, Mendizabal, Otegi, Pellejero, Ropero, Roteta, Saizar, Saralegi, Sorrairi, Txapartegi, Ugartemenda, Urretabizkai, Urruzola, Zabala eta Zubiaurre.



■ Jose Mari Aranzabe

Alkizako udalaren lur sailen zerrenda (1846-49)

Alkizako Udalak 1846ko irailaren 25ean egindako deklarazioan bazituen 114 lur sail bereak, eta Juan Miguel de Lizarrume Villabonakoari agrimensorea bera, agindua eman zion lur sailak inbentariatu, neurtu eta baloratzeko. Honek esaten du "a vara tendida" egin zituela neurketak, eta guztira 26.460 errealetan baloratu zituen lur sailak.

Lur sailen zerrenda hau da:

1.- Mendiolako Munttegi bidea; 2.- Mendiolako Munttegi bidea; 3.- Mendiola buru; 4.- Pelota leku; 5.- Aguiñako porciyo bide erdiya; 6.- Mendiolako arripilletako gaña; 7.- Arripilletako gaña, 8.- Basazavaleko larraña; 9.- Maratulusko bizkarra; 10.- Abaroko Aitzgaña; 11.- Abaroko Aitzgaña; 12.- Saletxe azpiya; 13.- Zumitz txikikoiturri azpiya; 14.- Antxuko mugarri garaiko aldia; 15.- Muña viribilco arkaitza; 16.- Aguireiko garamana; 17.- Aguireiko garamana; 18.- Aguireiko garamana; 19.- Aguireiko arkaitza; 20.- Loidi buruba; 21.- Loidi; 22.- Loidi; 23.- Loidi-ko bide bitartea; 24.- Utxetako aiztiya; 25.- Utxetako aiztiya; 26.- Utxetako aiztiya; 27.- Aguireiko barruti bazterra; 28.- Bolatoquico egiya; 29.- Belaumburu azpi; 30.- Liyauri goyena; 31.- Archincha urdi; 32.- Belaumburu azpiya; 33.- Bustinzuri; 34.- Belaumburu gaña; 35.- Barruti zarraren barrena; 36.- Belaumburu abaleche buruba; 37.- Belaitzeta; 38.- Belaitzeta; 39.- Belaitzetako sakona; 40.- Ugaran gaña; 41.- Ubaran; 42.- Belaitzeko Bidebia; 43.- Belaitzetako arizti barrena; 44.- Belaitzetako chara; 45.- Belaitzetako iturri aldia; 46.- Urdanesiko abeleche aldia; 47.- Urdanesiko abeleche buruba; 48.- Bolatoquico pagadi bazterra; 49.- Aguireguico arcaitzondo; 50.- Loidico zulo goyena; 51.- Agoteco chulua; 52.- Larretxipico muarra; 53.- Muarrako Coba aldia; 54.- Irumugarrietako erreka aldia; 55.- Urdanesi bazterra; 56.- Arrierreagako cascarr; 57.- Arrierreagako cascarr; 58.- Ernioko aitzondo; 59.- Arrierreaga buruba; 60.- Arrierreaga gaña; 61.- Arrierreaga gaña; 62.- Arriaerrega gaña; 63.- Urdanesi gaña; 64.- Urotz ondo; 65.- Urotz ondo; 66.- Itzuregui berriko Celaya; 67.- Itzuregui berriko Celaya; 68.- Itzureguiko otalarrea; 69.- Itzureguiko bazterra; 70.- Itzuregui gaña; 71.- Itzureguiko biden bitartea; 72.- Itzuregui biyen bitartea; 73.- Itzuregui berriko sayetsa; 74.- Itzuregui zarra; 75.- Itzuregui zarra; 76.-

Arizbiribil; 77.- Ollar biribil; 78.- Itzureguiko otalarrea; 79.- Arrate goyenaren azpialdia; 80.- Arrate goyenaren azpialdia; 81.- Argorri sayetsa; 82.- Berandoingo eche buruba; 83.- Oguei aritzeta; 84.- Laurdengo eguiñaren aurria; 85.- Oguei aritzeta; 86.- Oguei aritzeta buruba; 87.- Bideberriko legorpe gaiña; 88.- Bideberriko legorpe gaiña; 89.- Arrese barreneta; 90.- Basalecuba; 91.- Yrteuneko iturri zuloa; 92.- Leteco eguilegor aldia; 93.- Leteco eguilegor aldia; 94.- Aiz zorrot azpiya; 95.- Aritz luze gaña; 96.- Larra belarretaco aitz gaña; 97.- Larra belarretako aitzaren azpiya; 98.- Enaipuru; 99.- Urdanesi barrena; 100.- Irumugarrietaco celay azpiya; 101.- Irumugarrietako chara azpiya; 102.- Irumugarrietako chara azpiya; 103.- Lupats; 104.- Belaumburuco Celaya; 105.- Oguelarco eguiya; 106.- Oguelarco eguiya; 107.- Aitzaco malcarra; 108.- Belaumburu gaña; 109.- Aguireico barruti bazterra; 110.- Belaumburuco Celaya; 111.- Barruti tartea; 112.- Ollar biribilco azpiya; 113.- Elorrieta gaña; 114.- Elorrieta gaña.

1847an beste bi lur sail hauek bereganatu zituen Udalak: 115.- Agoteco eguiya; 116.- Mugarza.

1849an beste lur sail hau bereganatu zuen: 117.- Achuteguia.

Ondorengo urteetan gerrateei eta gainerako gastoei aurre egiteko Udalak saldu egin behar izan zituen aipatu ditugun horietako lur sail asko eta asko.

Udalak gaur egun dituen lur sailen zerrenda

Hirigunekoak

- 1.- Don Juanena (133 metro koadro)
- 2.- Herri eskola (244 metro koadro)
- 3.- Maisu baratza (303 metro koadro)
- 4.- Udala (199 metro koadro)
- 5.- Berrondo (276 metro koadro)
- 6.- Madrigal zaharra zena (83 metro koadro)
- 7.- Perratokia zena (36 metro koadro)
- 8.- Frontoia (800 metro koadro)
- 9.- San Martin Plaza (1259 metro koadro)
- 10.- Bozabera (22 metro koadro)
- 11.- Artza (6430 metro koadro)
- 12.- Santiago Soro (45 metro koadro)
- 13.- Santiago Soro (67, 43 metro koadro)



Alkizako Udalaren garai bateko lur sailak Erniozabal inguruan. © XabierArtola

- 14.- Santiago Soro (39,80 metro koadro)
- 15.- Igarey Iturriberri aldea (491,19 metro koadro)
- 16.- Igarey Iturriberri aldea (1069 metro koadro)
- 17.- Igarey Iturriberri aldea (81 metro koadro)
- 18.- Santiago Soro (130 metro koadro)
- 19.- Kultur Etxea (309, 50 metro koadro)
- 20.- Gure Txokoako baratza (259,85 metroko koadro)
- 21.- Gure Txokoako baratza (155,85 metro koadro)

Oharra: Maixu baratza, Berrondo eta Perratokia zena, gaur egun dena bateratua dago. Herri eskola eta Madrigal zaharra ere gaur egun bat dira.

Landagunekoak

- 1.- Mendiola-Txurro (1023 metro koadro)
- 2.- Arburu (46.368 metro koadro)
- 3.- Beñar Eguillon, Olarreta, Aitzbeltz, Igarzaberrieta (461.528 metro koadro)
- 4.- Garaikozabal azpia (1863 metro koadro)
- 5.- Illaraldegi aldea (42.918 metro koadro)
- 6.- Sortuzar aldea (508 metro koadro)
- 7.- Txapiola (2885 metro koadro)



Alkizako Udalaren bozadera Erretore etxe ondoan.
© XabierArtola

■ Jose Mari Aranzabe eta Xabier Artola

Alkizako etxe eta biztanleak

Ama-Lur

Ama-lur etxeari eraikitze baimena 1996an eman zitzaion eta lehen erabilerakoa 1999an. Bertan bizi direnak: Imanol Ugalde, Marian Ugartemendia, Alaia Ugalde eta Maialen Ugalde. Helbidea: Azaldegi auzoa 16.



Garey

2000. urtean eman zitzaion lehen erabilera baimena. Gaur egun bertan bizi direnak hauek dira: Jose Joakin Eizagirre eta M^a Teresa Larrañaga. Helbidea: Alkiza plaza 22.



Jazkun

1991n eman zitzaion eraikitze baimena eta 1995ean lehen erabilerarena. Bertan bizi direnak: Iñaki Altuna, Elena Sáizar eta Jon Altuna. Helbidea: Alkiza plaza 21.





Katalandegi-berri

1994ean eman zitzaion erabilera baimena.
Bertan bizi direnak: Xabier Gabirondo, Ainhoa Jauregi, Arhane Gabirondo.
Helbidea: Alkiza plaza 16.



Ixpilla

1997an eman zitzaion lehen erabilera baimena.
Bertan bizi direnak: Jesus M^a Sorarrain eta Amaia Martinez.
Helbidea: Hernio auzoa 14.



Arritza-berri

1991n eman zitzaion eraikitze baimena eta 1995ean lehen erabileranena.
Bertan bizi dena: Josean Zubiaurre.
Helbidea: Arana auzoa 25.

■ Pello Joxe Aranburu eta Xabier Artola

Alkizako baserriak

Urrutikoetxea

Urrutia eta Urrutikoetxea biak bat izan zirelakoan, baina, lehena zaharragoa izan zen. Urrutiako Joan maisu hargina, Alkizan jaioa, 1507an, Donostian San Bizente elizaren hormak eraikitzen ari zen. Ambrosio Bengoetxea eskultorearen ama ere baserri berekoa zen. Hamaseigarren mendean Irunean zegoen gure gotzaindegia eta hango, Gipuzkoako Artziprestalde Nagusia oso sonatua izan eta historia luzea izan zuen. Erakunde hartako bi lehen idazkariak Alkizako semeak izan ziren, hain zuzen, Urrutia baserriko semeak eta bertako erretoreak. Urrutikoetxeko biztanleen abizenak, berriz, Urrutia, Ezkamendi, Elola eta Arantzabe behintzat ezagunak dira. Sute batek kiskali zuen eraikuntza hutsik zegoela.



Urruzola-garaikoa

Alkizako lehen dokumentuetan, XIV. mendekoetan bazen Urruzola baserria, eta, 1563an, lehen aldiz azaldu zen Urruzola de suso edo Urruzola-garaikoa. Gipuzkoako Etxe Patrimonio Artistikoen zerrendan dago bere arku gotikoengatik. 1992 urtez gero nekal turismoko zerbitzua eskaintzen da bertan. Urruzolako Martin harginak eraiki zituen Larraulgo zimitoria eta Faltzesen errota bat, XVI. mendean. Baserriaren jabe eta biztanleen abizenak, berriz, Urruzola, Egurrola, Erroteta, Aranburu, Legarra, Ugartemendia, Arruti, Goia, Artzamunoa eta Txapartegi bederen dokumentuak daude.



Urruzolazpikoa

Alkizako lehen dokumentuetan, XIV. mendekoetan bazen Urruzola baserria, eta, 1563an, lehen aldiz azaldu zen Urruzola de iuso edo Urruzola-azpikoa. Baserriaren jabe eta biztanleen artean daude Urruzola, Garro, Lasa, Lizargarate, Aldazabal, Aranburu, Urkola, Saizar, Goenaga, Elizondo eta Kruzeta.





Urrizpe

Urruzola-garaiko aranburutarrek, 1830eko hamarkadan, Urrizpe izeneko baserri berria eraiki eta jaiotetxeko alorrak zatitu ondoren, Juan Jose Urruzolako semea bertan bizitzen jarri zen. 1839an Larrolako Maria Josefa Tejeriarekin ezkondu zen. Gero, hurrengo mendean, Errezilgo Migel Letamendia eta Juana Inazia Usandizagak errentan hartu zuten, orain dela mende erdi bat sute batek kiskali zuen arte. Argazkian biribilaren barruan ikusten dena da.



Zumitza nagusia

Alkizako XIV. mendeko dokumentuetan egonik, Gipuzkoako Etxe Patrimonioaren zerrendan ondare artistikotzat ageri da Zumitza baserria bere harrizko eraikuntzagatik. Gainera baditu beste bi elementu txit bitxiak, arrano baten irudiko armarrria eta aurreko fatxadako giza irudi arraro bat. Irudiaren interpretazio argirik ez dute ematen adituek. Bazen Zumitza baserriko Joan bat 1396an, Alkizako lehen batzarrean eta ondorengo urtetan Zumitza baserriko ldiakaitz abizendunak juratu eta erregidore izan ziren sarritan. Bertako beste jabe eta biztanle batzuk honakook izan ziren: Urruzola, Irazusta, Errazti, Arana, Zunzunegi, Altuna, Tolosa eta Roteta.



Zumitza-berria

Zumitza-berria edo Zumitza-txikia lehen aldiz, 1699an, agertzen da dokumentaturik. Bertako biztanleen abizenak, berriz, Urruzola, Barrenetxea, Ormaetxea, Olarreaga, Jauregi eta Otamendi ziratekeen. Azken urte hauetan inor ez da bizi, Basatxabal baserrikoek borda bezala erabiltzen dute.



Zumitzeta

Zumitzeta baserria lehen aldiz, 1761eko dokumentu batean agertzen da Arritzagako Joan Bautista Ezeizaren jabetza bezala eta, 1772an berriz, Migel Goienetaren eskuetara igaro zen. Lehen urtetan maizterrak bizitu ziren bertan. Bere historian baserri izateaz gainera, zerrategia, taberna, bolaleku eta ostatu baten funtzioak ere bete izan ditu. Aipatu etxearekin maizter eta jabe bezala honako abizenok egon dira: Ezeiza, Goieneta, Aranguren, Errazti, Bengoa, Legarra, Zabala eta Galartza.



■ Jose Mari Aranzabe eta Xabier Artola



Bitxikeriak

Alkizako Udalan 2009ko abenduaren 31n, 353 biztanle zeuden erroldatuta, aurreko urtean baino 4 gutxiago. Altak 8 izan ziren; 6 jaiotakoak, eta 2 beste herri batetik etorritakoak. Bajak, berriz, 12; 3 hildakoak eta 9 beste herri batera Joan direnak.

Jaiotakoak hauek dira:

- Laia Larrauri Mateos
- Amets Mujika Ibarbia
- Enara Iruretagoiena Mujika
- Ikerne Zabala Zuriarrain
- Eneko Vicente Sanchez
- Gorka Vicente Sanchez

Hildakoak hauek dira:

- Ramon Iruretagoiena Saralegi
- Angel Beobide Uria
- Rufino Iraola Urruzola

*Enara Ompetagoiena**Amets Mujika**Laia Larraini**Okerne Zabala**Gorka Vicente**Eneko Vicente***Alkizako 10 emazkumezko zaharrenak:**

- **Aurea Saizar** 88 urte
Katalandegi Txikikoa.
- **Brigida Otaegi** 87 urte
Agina behekoa.
- **Isabel Urruzola** 87 urte
Elizegikoa
- **Ildefonsa Amundarain** 83 urte
Etxabe Txikikoa
- **Mercedes Aranzabe** 83 urte
Arritzakoa
- **Natividad Iraola** 81 urte
Bengoetxekoa
- **Carmen Cruces Perez** 80 urte
Don Juanenakoa
- **Maria Ayerbe Zuriarrain** 79 urte
Otsamendikoa
- **Juana Lasa Landa** 77 urte
Perukoa
- **Justa Arsuaga Eizmendi** 77 urte
Agina Goikoakoa

Alkizako 10 gizonezko zaharrenak:

- **Jose Joaquin Aranzabe** 89 urte
Elizegikoa
- **Antonio Eizmendi Saralegi** 87 urte
Agina Behekoa
- **Pantaleon Saralegi Eizmendi** 87 urte
Basozabalgoa
- **Angel Arsuaga Eizmendi** 86 urte
Bengoetxekoa
- **Jose Antonio Uzkudun Ugalde** 85 urte
Aizmendi Goikoakoa
- **Pedro Urruzola Aranzabe** 85 urte
Intxaurrandikoa
- **Juan Maria Aierbe Zuriarrain** 85 urte
Etxabe Txikikoa
- **Raimundo Gabirondo Tolosa** 84 urte
Katalandegikoa
- **Segundo Saizar Goenaga** 83 urte
Otsamendikoa
- **Antonio Otegi Sarasola** 82 urte
Arpidekoa

■ Agurne Eizagirre eta Ixiar Irulegi



Sukalde txokoa

Ale honetan atal berri bati eman nahi diogu hasiera, gure asmoa herritarren artean edonork egiteko moduko sukaldeko errezetak jasotzea da.

Zuen gustuko dituzuenak bidali, animatu zaitetzte!!! Hurrengo alean argitaratuko ditugu.



ERROSKILAK

Osagaiak

- 2 arrautza.
- 2 koilarakada esne.
- 2 koilarakada anisa edo limoia.
- 4 koilarakada azukre.
- 400-600 gr. Irina.
- "Royal" legami zorro bat.
- Olio.

Prestakuntza

Ontzi batean arrautzak, esnea eta azukrea irabiatu. Ondoren, bakoitzaren gustuaren arabera anisa edo limoia nahastu. Gero legamia eta irina ontzian nahastutakoan, mahai gainean oratu, behar duen trinkotasuna lortu arte. Jarraian, 20 minutu inguru harrotzen utzi toki epelean. Bukatzeko forma eman eta olio berotan frijitu.

Marik, askotan gonbidatu gaitu berak egindako erroskila gozoak jatera, gustu handiz eman digu errezeta.



KAFE FLANA

Osagaiak

- Baso bat (250 zl.) kafe.
- Litro bat nata likidoa.
- Flana egiteko (8 razioko "Royal") zorro bat.

Prestakuntza

Osagai guztiak ondo nahastu eta berotzen jarri. Irakiten hasten denean baztertu. Azpian karamelu likidoa duen molde bat prestatu eta bertara bota. Bukatzeko hozkailuan 8 orduz hozten utzi.

Eleniri berehala bururatu zaio edonork egiteko errezeta erraz-erraz hau. On egin!



TALOA

Osagaiak

- Arto-Irina.
- Gatza.
- Ura.

Prestakuntza

Arto-irina borobil itxuran mahaiian zabaldu eta erdian zuloa egin. Zulo horretara gatza eta ur epele botatzen joan. Dena nahastu ore trinko bat lortu arte. Gero orearekin bolak egin. Ondoren, irin pixka bat mahai gainean zabaldu eta bolatxoak kolpatzen joan. Bukatzeko taloak plantxan erre.

Ikasturte honetan eskolan errezetak landu dituzte. Taloak oso gustura egin eta gusturago jan zituzten!



JOGURTA

Osagaiak

- Litro bat esne.
- Koilarakada bat jogurta.

Prestakuntza

Esnea 37°ra (gorputzaren berotasuna) berotu. Koilarakada jogurta bota eta nahastu. Manta batez bildu, berotasuna ez galtzeko. Zortzi orduan (gutxi gora behera) horrela eduki.

Begira eskolako umeak nolako jogurta gozoa egin eta jan zuten!



Alkizako jaiak 2010

Irailak 3, ostirala

16:00 Haur jolasak.
21:00 Herri afaria Ostatu jatetxean.
23:00 Erromeria, Elustondo anai-arrebekin.

Irailak 4, larunbata

16:30 Pitxoi tiraketa, Erniope ehiza elkarteak antolatuta.
17:00 Futbol partidua: ezkonduak - ezkongabeak.
23:00 Herri kirol saioa, aizkolari eta harrijasotzaileekin.
Ondoren, kontzertuak: 3gabe2, Margot eta Kraussk.

Irailak 5, igandea

10:00 Meza nagusia.
11:30 Bizikleta lasterketa herritar helduentzat.
12:30 Txakolin dastaketa.
17:00 Asto lasterketa.
18:00 Beteranoen arteko XIX. Pilota Txapelketaren finala.

Ondoren, erromeria, Bide Batez taldearekin.

Irailak 8, asteazkena

12:00 Meza nagusia.
12:00 Toka txapelketa haurrentzat.
14:00 Jubilatuen bazkaria Ostatu jatetxean, udalak antolatua.
17:00 Gaztetxoen arteko pilota partidua.
18:00 Toka txapelketa helduentzat.
Ondoren, trikitixa, Jon Ostolaza eta Aitzol Txapartegirekin.

Irailak 10, ostirala

17:00 Patxin eta Potxin pailazoak.
18:00 Triki-poteoa mozorroturik.
21:00 Barrikotea.
23:00 Karaokea.
00:00 Erromeria, Ingo al deu? taldearekin.

Irailak 11, larunbata

10:30 Bizikleta lasterketa haurrentzat.
17:00 Herritarren arteko herri kirol saioa, Ion Zabala eta Izaskun Mendizabalen oroimenez.
18:00 Sagardo dastaketa.
22:00 Bertsolariak: X. Lizaso, A. Egaña, A. Arzalluz, M. Lujanbio, A.M. Peñagarikano eta Iker Zubeldia.
Gaijartzailea: Amaia Agirre.
Ondoren, berbena, Kantuki taldearen eskutik.



Txan Magoa hurrekin. © Unai Sorarrain



Txirindulari probako partaideak. © Unai Sorarrain



Axun, Aitor eta Karnele Toka txapelketan.
© Unai Sorarrain



Atzo atzokoak

Alkizatarron argazki zaharrak

Antonio Sorarrain Arantzazun

- 1.- Joxe Aierbe
- 2.- Pedro Mendizabal
- 3.- Martin Gorostidi
- 4.- Encarnacion Gorostidi
- 5.- Arantzasu Iruretagoiena
- 6.- Milagros Mugica Iraola
- 7.- Gregorio Iruretagoiena
- 8.- Balentina Urruzola
- 9.- Isidro Iguaran
- 10.- Joxe Urruzola
- 11.- ?
- 12.- Juanito (Urrutikoetxekoa)
- 13.- ?
- 14.- Brigida Ugartemendia
- 15.- Krispin Sorarrain
- 16.- Antonio Sorarrain
- 17.- Joxepa (Apaizaren neskamea)
- 18.- Maria (Areta baserrikoa)
- 19.- D. Ignacio Otaegi (Apaiza)



Aranguren baserriko sendia

- 1.- Juan Otaegi
- 2.- Pilar Otaegi
- 3.- Vicente Otaegi
- 4.- Gloria Otaegi
- 5.- M^a Jesus Otaegi
- 6.- Ignacio Otaegi
- 7.- Manuel Otaegi
- 8.- Axun Otaegi
- 9.- Maria Imaz
- 10.- Rosario Otaegi





Basazabal baserriko Romanaren ezkontza egunean

- | | |
|---|-----------------------------------|
| 1.- Benita Saralegi | 13.- Maria Antonia Saralegi |
| 2.- Migel Iruretagoiena | 14.- Lazkano okindegiko "Naparra" |
| 3.- Rufino Iruretagoiena | 15.- Antonio "Txoferra" |
| 4.- Maria Saralegi | 16.- Modesto Saralegi |
| 5.- Ramon Saralegi | 17.- Luciano "Soinujolea" |
| 6.- Juan Maria (Anoetako Mendibel baserrikoa) | 18.- Juana |
| 7.- Benita Otegi Saralegi | 19.- Senargaiaren ama |
| 8.- Lazaro Saralegi | 20.- Lorenzo Leunda |
| 9.- Lupe Dorronsoro | 21.- D. Tomas Otegi (Apaiza) |
| 10.- Maria Dolores Leunda | 22.- Romana Saralegi |
| 11.- ? Urkola | 23.- Jose Joakin Saralegi |
| 12.- Pantaleon Saralegi | 24.- Jose Saralegi |



Urruzola-Berriko sendia

- 1.- Pedro Aranzabe
- 2.- Jose Antonio Aranzabe
- 3.- Francisco M^a Aranzabe
- 4.- Gregorio Aranzabe
- 5.- Juan Bautista Aranzabe
- 6.- Justa Aranzabe
- 7.- Manuela Sarasola





Inaugurazioa

Asteasu - Alkiza
errepidearen inaugurazio
egunean karabana
ofiziala.



Perurena baserriko sendia

- 1.- Juanita Sorarrain Amonarriz
- 2.- Jose Sorarrain Amonarriz
- 3.- Paco Sorarrain Amonarriz
- 4.- Pedro Manuel Sorarrain Amonarriz
- 5.- Juan Sorarrain Amonarriz
- 6.- Bitoriana Sorarrain Amonarriz
- 7.- Antonio Sorarrain Amonarriz
- 8.- Krispin Sorarrain
- 9.- Ramon Sorarrain Amonarriz





Gogo-jardunak

- | | |
|-----------------------------|--|
| 1.- Bitoriano Roteta | 15.- Angel Arsuaga |
| 2.- Pedro Urruzola | 16.- ? |
| 3.- Adrian Gorostidi | 17.- Juan Mari Aierbe |
| 4.- Pablo Amonarriz | 18.- Arregi familikoa |
| 5.- Migel Aranzabe | 19.- Zestuarra |
| 6.- Jose Antonio Eizagirre | 20.- Pantaleon Saralegi |
| 7.- Eugenio Aranzabe | 21.- Juan (Basazabalgo morroia) |
| 8.- Larraulgoa | 22.- Gogo-jardunen Zuzendaria (Apaiza) |
| 9.- Paulino Arsuaga | 23.- D. Ramon Etxeberria (Apaiza) |
| 10.- Larraulgoa | 24.- D. Angel Garmendia (Apaiza) |
| 11.- Jose Migel Otegi | 25.- Migel Gabirondo |
| 12.- Anastasio Ugartemendia | 26.- ? |
| 13.- Jose Roteta | 27.- Juan Jose Elola |
| 14.- Bernardo Aranzabe | 28.- Marcelino Otegi |



Jai-giroan

- 1.- Jose Gaston Suberbiola
- 2.- Ignacio Mujika
- 3.- Joxe Aierbe Zubiarrain
- 4.- Migel Saizar
- 5.- Ramon Sorarrain Amonarriz
- 6.- Jacinto Altuna
- 7.- Mariano Txapartegi (Asteasukoa)
- 8.- Juan Jose Zubiurre Iribarren
- 9.- Juanito "Soinujolea"
- 10.- Antonio Iraola Urruzola
- 11.- Jesus Izagirre (Asteasukoa)



■ Pello Joxe Aranburu

Antonio Sorarrain Amunarriz, Alkizako idazle goiztiarra

Peruko Antonio idazlearen apunte labur batzuk emango dira aurtengo artikulua honetan, ondorengo urteetan jarraitzeko asmoarekin. Oilategitik aldizkarian, lehen aletik hasita ia urtero, Antoniok artikulua eskaini dizkigu. Baina, azken urte hauetan mututu egin zaigu, bat batean. Gu, ordea, bere hutsunea ordezkatzeko saiatuko gara. Antonioren haurtzaro eta batez ere berak, 1950-1955 urteetan, gaztaroan idatzi zuen obra literarioa aztertu, plazaratu eta goraiptuko du aldizkari honek. Laburki azpimarratu nahi da gerra osteko euskal literaturan alkizarrak bete zuen papera, egunsentiko idazle goiztiarrarena.

Antionioren familia, 1922an, Zizurkilgo Iriartetik etorri zen Peru baserrira, Alkizara. Krispin Sorarrain eta Maria Hermerejilda Amunarriz Anoetan ezkondu ziren, aita asteasuarra eta ama Anoetakoa zituen-eta. Senide ugariko familia izanik, batzuk Zizurkilgoen jaiotakoak, baina, gehientsuenak Alkizan sortu ziren, Perun. Hain zuzen, Antonio, 1928an, eta urte gutxira ama hil zitzaion.

Lehen momentutik gure jaioterrian sorarraindarrak bete bete bertakotu ziren. Baserria erosi eta galtza bete lan bereganatu zuten zorrak kitatzen. Krispin, berehala, Argia euskal aldizkari herriko kronikari bilakatu zen eta semeari aitarengandik zetorkion idazteko sena, agian.

Antioniok lehen ikasketak Alkizako eskola berrian egin zituen, San Martin ikastetxean. Gogoratzen da bere maisuaren izenaz eta eskolako ordutegiaz: “sei urtera arte ez giñan eskolara joaten, ezta dotriñara ere. Gure ordutegia goizez 9etatik 12etara izaten zen eta arratsaldean ordubietatik laueta” idatzi zuen “Garai bateko Alkiza” 2001eko bere idazlanean.

Herriko ikasketak amaitutakoan, gerra ondoren, apaiz ikasketak frantziskotarren komentuetan burutu zituen. Hiru etapatan banaturik: humanitateak, filosofia eta teologiako ikasketak. Arantzazun apaiz egin eta meza berria, berriz, jaioterrian eman zuen, 1953ko martxoaren 6an. Bere lehen mende laurdena, hau da, herriko hamabi urte eta kanpoko hamahiru urtean erdi erdian, gertakizun itzela bezain krudela suertatu zen, 1936ko gerra zibila. Euskaldun guztiok eta Euskal Herria bi mundutan banatu gintuen. Euskal giroa goitik behera zapuztu, aldatu eta ukatu nahi izan zuena.

Antionioren euskal obrak aztertzen hasi aurretik, orduko giroa eta frantziskotarren komentuetako, hots, gerra osteko heziketa landuko da labur bederen. Beraz, alderdi honek bi zati izango ditu: alde batetik, Euskal Herrian euskarak eta euskaldunek jasan izan zuten eraso bortitza, eta beste alde batetik, frantziskotarren komentuetan ikasleei eman zitzaizkien heziketa, biak Alkizako seme idazlearen baloreak neurtzeko orduan kontuan hartu beharrekoak.

Aipatu gerraren hamarkadan, Migel Unamuno bilbotarrak euskararen aurkako irainak publikoki defendatu eta mesprezuak egin zituzten gure hizkuntzari: euskara baserriaren hizkuntza soilizat jo zuen, nekazal giroako bakarrik balio zuen; gainera, hil zorian zegoen eta ez zen inoiz hizkuntza kultu bat izango; hura lantzen aritzea denbora galtzea zen eta euskaldunek egin zezaketan gauzarik jatorrena euskarari hileta ondradu batzuk egin eta lehenbailehen hilobiratztea zen; euskara berez, bere izaera zela bide ez zen gai hizkuntza kultu bilakatzeko. Horiek ziren bere axioma batzuk.

Franko eta gerra irabazleek, berriz, beste bide eta jokabide batzuk erabili zituzten euskararen kontra, askoz ere maltzur eta gogorragoak: euskal idazle ospetsu batzuk erail, eta beste asko espetxean sartu edo atzerriratu arazi zituzten; euskal prentsa eta irakaskuntza oro, euskal izenak eta sinbologia guztia debekatu eta eraso zuten, bai bizitza publikoan, bai kaleetan, bai elizetan ere. Neurriak zertaraino iritsi ziren adierazteko bi adibide aipatu dira hemen: Alkizako elizan, igande arratsaldeetan arrosarioa euskaraz esatea debekatu zen. Erretorea gazteleeraz errezatzen iritsi omen zen eta laguntzaileari, euskaraz egiteagatik, 500 pezetako isuna jarri zioten. Berrobin, berriz, 1937ko abuztuaren 28an, San Agustin zaindariaren egunez sermoia euskaraz frantziskotar batek egin zuelako, atxilotu eta isun bat ordaindu zuen.

Antionioren hitzak dira: *Euskeraren aldekoak ere euskeraz itzik ez genduan egiten gure artean. Komunitade ekintzak, otoitzaldiak, errefektorioko irakurketak otordueta... dana-dana erderaz egiten zan. Euskeraz tutik ez. Nik neronek aitortzen det euskeraz egiteko ez giririk eta ez betarik aurkitu ez nuela urte aietan Arantzazun. Euskal solaskide bakará Demetrio Garmendia izan nuen. Aipatu alkizarraren beste hitz*



Ezkerrean, Antonio umetan Peru baserriaren aurrean irakurtzen. Eskuinean, Antonioren meza berria Alkizako San Martin parrokian



"Santa Maria Goretti" liburuaren azala.

batzuk dira: *Euskaldun jatorrak ere baziren. Bateren batzuk aipatzeko Salvatore Mitxelena, Eugenio Agirretxe, Karmelo Iturria, Kandido Zubizarreta, Kandido Izagirre... baiña auei ere sermoi eta idatzietatik aparte ez zitzaien euskeraz itzik entzuten komentuan, giroa ez baizan orretarako apraposa.*

Euskararen katakonba giro hartan, frantziskotarren menpean apaiz ikasketak Antoniok egin eta amaitu zituen Arantzazun, 1950garren hamarkadan. Arantzazuko komunitatea indartsu zebilen fraide kopuruz eta proiektu arkitektonikoz, Aita Lete probintzialak baseliza erreformatu eta erromes gune nagusi bilakatu nahi baitzuen, gero gertatuko zenez.

Gerra ondorengo euskal literatura atzerrian hasi zen urteetan gure Antoniok bere lehen liburuak idatzi eta Arantzazun kaleratu zituenean:

- 1950, **Santa Maria Goretti, bere bizitza**, bi bertsiotan.
- 1954, **Itzaltzu'ko koblaría, elezaharra**.
- 1954, **Irarrazabal'go orma tartean**, ipuina
- 1945, **Lili txuria odoletan**, biografia.

"**Santa Maria Goretti, bere bizitza**" (1950). Gipuzke-
ra xamurrez idatzi eta sei hilabetean agortu zen. Bere-
hala bizkaieraz taxutu zuen bigarren alea eta 15 laur-
lekotan saldu. Orduko bi aldizkarietako laudorioak
aldatu dira hona. "Aita Sorrarainek bizi eta euskera
errez-ederrean agertu du Santa Maria Gorettiren bizi-
tza eta irakurtzen asi ezker eskutik uztea ez da atse-
gin. Idazle gaztea da, baño urte sail batez ondo idaz-
ten aritu dan idazlea dirudi". Ez du firmarik iruzkinak.
Andima Ibinagabeitia idazleak, berriz, 1951ko Euzko-
Gogoia atzerriko aldizkarian aipamen bikainak egin
zituen. "Arantzazu'ko Amaren mantupetik datorkigu
gaurkoa. Txukun eta poliki apaindua. Euskera abera-
tsez ornitua, aberatsez baina erritarrez. Ua bai gure
praille gaztearen ugaritasun eta errextasuna. Baserri-
ko euskera goxo eta xamurra darabilzki Aita Sorra-
rain'ek SANTA MARIA GORETTI deritzan bere liburu-
txuan". Bi komentarioetan abizena aldatu zioten.

Maria Goretti santa egin eta berehala hizkuntza
anitzetan bere biografiak idatzi ziren, baina, Antonio
ez zen mugatu ale haietako bat hautatu eta itzultzer-
a. Erdarazko liburuak irakurri, hausnarketa bat egin eta
lan goragarria atera zitzaion euskal bertsioetan, "irudi-
men bizi, idazkera bizkor, pentsamendu zailu eta gogo
sakonekoa" zioen A. Ibinagabeitia. Eta Antoniok,
beriz, bizkaierazko bertsioan hauxe gehitu zuen: "Nik
ez dakit idazteko beste Bizkaiko euskeraz. Baña badi-
ra gure artean bizkaitar izkuntza samurra bikain
dakienak. Aren bizkar itxi neban lana. Baita laster
asko egin bere. Eta orra orain argitaratu. Giputzare-
nak egin dau, azkenekoak saltzen oraintxe. Sei illabe-
tean juan iaku. Nik uste baño arrera ohea egin deutse
liburuari".

Antonio idazle gazteak lehen obraren arrakasta
ikusirik bere burua animatu eta Arturo Kanpionen ele-
zahar interesgarria hartu eta dotore itzuli egin zuen,
"**Itzaltzu'ko Koblaría**" ipuina, Kanpion jaunak ondua eta
Sorrarain'ek euskeratua". Euzko-Gogoia aldizkarian,
Guatemalan, 1954an argitaratu zioten. Itzulpenetan
ere trebezi aparta erakutsi zuen.

Halere, Antoniorentzat 1955. urtea izan zen oparo-
ena, literaturaren aldetik behintzat. Berrito berak itzu-
litako ipuina argitaratu zioten. Baina, orduan Zarauz-
ko Itzaropena argitaletxearen Kuliska-Sorta
bilduman, baimen legal eta guzti. Bildumako 7-8.
aleak Elezarrak zeraman titulua eta beste ipuin
gehiagorekin batera argitaratu zuten: "**Irarrazabal'go
orma tartean**", Antoniok asmatua; "Ernio garbi"; "Ola
zarrai begira" era "Arraun ta Amets". Azken hiru eleza-
harren idazleak ere frantziskotarrenak ziren, besteak
beste, Salvatore Mitxelena tartean zegoen, idazle
atzerriar eta sonatua euskal literaturan. Urte bere-
an Peruko semeak Ama Maria Teresalinaren bizitza
idatzi zuen, "**Lili txuria odoletan**" izenarekin. Haren
iruzkinak merezi du beste urte bateko jarraipena. Ea
gure Antonio animatzen den bere barreneko iradoki-
zunen bat guri ematera.



■ Alkizako bi Pello apaizak

Ehun urteren peskizan, Alkizan

Bi Pello apaizen artean egin dugu artikulutxo hau. Ni Pello erretoreak Etxabeko Benita amonaren azken urteetan, ia hilero bisitatu, Jauna eman, bere familia-rekin tertuli atsegin bat egin eta ehun urteren atarian berari hileta egin behar izan genion. Oilategitik aldizkarian, berriz, herriko amonaren ehun urte betetzea ospatu ezinik geratu ginen. Hura gu guztion tristura!

Edonor ez da iristen urte horietara. Emakumeak errazago gizonetako baino. Ameriketako Los Angeles-eko zientzia talde batek hori frogatu du, mundu guztiko adineko pertsonen jaiotza eta heriotzako agiriak erabiliz. Azken aldi hauetako pertsonarik adintsuena, 122 urteko emakumezko bat, Jeane Calmet da. Maila apalago batean gabiltza alkizarrok.

Alkizan jaiotako amatxi berri bat agertu zaigu, ordea, ehun eta bat urte dituen, beraz Benita baino zaharragoa. Amona ez-ezagun honen lehen berria Arpideko Felix pelukero auzokideak eman digu. Esker on Villabonan bizi den alkizarrari. Hariari tiraka Irura, Anoeta, Larraul eta Montevideoko amonaren ahaide-engana heldu gara. Denek gustura beren berri eman eta argazkiak oparitu dizkigute, irrika bizian daude Oilategian ikusteko.

Alejandra Zugasti Tejeria, 1909ko otsailaren 26an, Arpide-garai baserrian jaio eta berehala bere familiak alde egin omen zuen hemendik. Bere aita Martin Nikasio Zugasti Amilibia izan zen eta ama, berriz, Larraulgo Larrolako Katalina Tejeria. Aita aldeko aiton-amonak Juan Jose Zugasti Artola eta Katalina Amilibia.

Zortzi senideko familia izan zuten gurasoek: Arpide-garaiko baserrian Lontxo, Rufina, Kristina, Jeronima eta Alejandra eta beste hiru Joxepi, Angel eta Jose Luis Apatxen, Anoetan.

Alexandrak Anoetako etxe dotorea utzi eta gaztaroan lehenik Donostiara lanera joan zen, eta handik 1920ko hamarkadan Ameriketara ahaideengana abiatu zen, nonbait ilusio berrien bila. Aurrenekoz Argentinan eta bigarren txanda batean Uruguai nazioan lur hartu zuen. Han bizi zen osaba batekin ezkondu zen.

Larrolako Jose Antonio, Alejandraren amaren anaia zen, 1885ean jaio eta mairuen gerrara ez joate-agatik ihes egina. Osaba aberatsak iloba xarmanta bereganatu zuen. Hamalau urte Patagonian artzaintzan eta beste hogeitazintzan egin zituen Tacuarrembon. Garaiko Amerikako egunkari batek hauxe



Goian,
Arpidegaraiko baserriko
Alejandra Zugasti Tejeria,
semea eta alabarekin.

Eskuinean,
Jose Antonio Tejeria,
Alejandraren senarra.



dio Jose Antoniori buruz: *Posee un prestigioso plantel merino con más de 50 años de refinamiento*, historia handiko artzaina zela alegia.

Bi seme-alaba, Marta eta Pepe izan zituzten. Senarra berehala hil zitzaion alkizarrari, 1942an. Alargundurik, bi ahur gazterekin geratu zen. Etxea ere hondatu zitzaion. Bere bizitzan asko sufritu omen du ehun eta bat urteko alkizar amonak, baina bizimodua aurrera ateratu du gaurdaino Montevideon bizi den Alejandrak. Gurasoak ez-ezik Alejandra ere ausarta izan zen Murgil pendizetik Anoetara jaitsi, Donostian lanean jardun eta hain gazterik abentura bila Ameriketara abiatzeko.

Orrialde hauetatik eskerrik beroenak Villabonan bizi den Felix alkizarrari, Irura, Anoeta eta Larrolan bizi diren ahaide guztiei eman diguten informazioagatik. Alejandrari, berriz, osasuna eta duintasunezko bizitza luzea opa dio Alkizako Oilategitik aldizkariak. Gure berri edonondik jakin daiteke (www.oilategik.net).



Las Vegas Txiki

Bada musika bat Alkizako plaza ingurura iristen dena. Hori entzuteko ostirala izan behar, hori bai, eta ahal dala gaua. Musika horren notak balio ezberdina dute: bi, hiru, lau, bost gehiago edo ta dena, hordago alegia. Eta doinu horren peskisan doanak ez du elizan amaituko, baña bai elizaren hegian, Elizegin.

Ostiral iluntze-gau partean hara doanak ez du aurrei-kusten ze topatuko duen. Gehienetan irekita egoten den atean barrena sartuta jakiten du batek museko zenbat mahai antolatu diren: gutxienez bi tapete berde. Eta gau borobiletan, lau eta bost ere bai. Sesioa izaten da partida guztietan: gazteak geranak (jajaja) benetan jokatzeko degu, serio, askotan aurreko ostiraleko pikea berrituz. Gu baino gazteagoak ere badira. Eta haiek ez dakit benetan aritzen diren baina dezibelioak neurtuko balizkiete taberna itxi egin behar!!

Estatu Batuetan Nevada da jokoak, apustuak, libre dituen estatu bakarra. Gainerakoetan, harrapatzen bazaitue zigorra. Seguru asko horregatik etzaitue naranjaz jantzi eta ez dizute indizio txarren bat sartuko, baina zigorra seguru. Horregatik, ezkondu aurretik hango gazteak Las Vegasera joaten dira despedidak egitera: juerga latzak bota eta diru pixka bat arriskatzera.

Guk ere badegu Las Vegas txiki bat Alkizan. Tira, akaso ez da despedidak egiteko lekua izango, hango desmadrea kristo guztiak jakingo lukeelako hurrengo egunean baina, bestetik, nahi adina. Garagardoa nahi duenak aukeran ditu Keler eta elizaren ondoan taberna duelako Vatikanoko Jexuxi inposatutako beste bi marka: San Miguel eta Franziskaner. Kubatak ere suelto suelto!! Eta jokoaren bizioan arima galdu nahi duenak aukera aparta du: makina bat argi biziakin deitu eta deitu aritzen dena txanpon gosez, eta batez ere 40 karta zai, tartean lau errege, nahiz neri gutxitan tokatu haiek ikustea.

Bikote batzuk eginak daude. Astea joan, astea etorri, batean ikusten dira haiek lehian, elkarren aurrez aurre eserita, diagonalean. Ligatzen ariko balira ere eliokeke elkarri hainbeste keinu egingo: oraintxe batek begi bat itxi, geroxeago besteak muxu txiki bat irudikatuz ezpainak aurreratu, eta baita bi bekainak gora altxa ere. Bi gizaseme keinuka bata besteari, gaurko egunean asko normaldu dan zerbait. Eta beste diagonalean, aurkariak. Akaso keinulariak tokatuko dira horiek ere. Eta hala bada, tik nerbiosodun



© Ibon Vicente

laukote baten terapiaren itxura hartuko du partidak. Keinurik pasatzen ez duenak berriz galtzeko arriskua du galanta, baina hori patxada, hori lasaitasuna, lane-tik atera berritan ondo pasatzera joan Elizegira ta sujetu bati begirik kendu gabe egon partez, lasai ederrean jokatzera.

Barraren bestaldean berriz, Kasinoko jabea. Jexuxek badu trebezia bat: tragoak ateratzeaz gainera, partida guztien kontrola eramaten du, nork nola jokatzen duen neurtu eta ba omen du ezkutuan halako ranking bat: Rubio, Saletxe, Areta eta Aritz, Champions. Ibon, Joxe Ramon, Igor eta Iker primerakoak. Eta gero sueltoko batzuk: Odriozola, esate baterako, ezinean dabilen kalekumea, hori bai, Alkizara joan ezkerro asko ikasitakoa. Ah, eta neskak ere, Onintza, Naroa, Nagore, Uxue, Uxue ondo sailkatuta ditu, baina ez musean...

Beti pentsatu izan det besteak ebaluatzen ibiltzen denak danak baino hobea izan behar duela eta bai zera, Jexux behin bakarrik ikusi det jokoan eta galdu egin zuen, nabarmen gainera. Ze eskubidekin esan behar diok hurrena iñori, ez dagoela Champions mailan? Heldu edariak atera eta haiek ondo apuntatzeari eta ez kezkatu musularien hanka sartzeekin, hori estresantea dek eta!!!

Eta, Jexux, gomendio bat. Ostiraletan gastatzen diagu, baina dirua egin nahi badek, danak utzi eta Nevadara joan hadi, garai batean euskaldunak artzai joaten hituan bezela. Entzuna zeukat, hango gauetan dolarrak eltxoak bezela ibiltzen dirala. Guk umil umil jarraituko diagu: nik, ostiral hontan bertan Franziskanerra, basoan mesedez.



■ Enrike Larrarte

Sabina, Usurbilgo señorita, Alkizaleten

Noizbait –ez dakit noiz eta ez dakit non – Alkizaleten markesaren bat bizi izan zela entzun edo irakurri izan dut, baina ez daukat ezer garbirik neure buruan. Izan daiteke. Baina familia honen historia, oso ginetik bada ere arakatu dut, eta ez zait horrelako aipamenik inoiz azaldu. Izatekotan, XIX eta XX. mendeen tarte horretan izango da, garai hori ez baitut ezagutzen. Dena dela, ezagutzen dut Alkizaletera ezkondu zen “señorita” bat: Sabina Rezola usurbildarra.

Sabina 1853. urtean ezkondu zen Alkizaletera. Ikusten denez, Alkizaletekoek ez zuten aurkitu, ez Alkizan eta ez inguruetako herrietan, zegokien mailako emakumerik eta Usurbila joan ziren etxeakoandre baten bila. Maria Sabina Manuela Rezola Gaztañaga, 1831ean jaioa, gaur egun Añorgan dagoen Rezola zementu fabrika sortu zuenaren arrea zen. Fabrika hau hasieran txikia izan zen eta "La Esperanza" izenarekin sortu zen baina, denborarekin, gaur egun ezagutzen duguna izatera ailegatu da.

Sabina hau Alkizaleteko nagusia zen Joan Esteban Alkizalete eta Zabala Legarrarekin ezkondu zen. Sabina, 22 urte egitera zihoan neska gaztea zen, eta Joan Esteban, berriz, mutilzarren konpainian sartzeko arriskuan zegoen gizasemea, 31 urte inguru baitzituen. Sabina emakume dotorea izango zen. Dotean Alkizaletera ekarri zituenak 51.000 erreal inguru dira. Dirutan 44.000 erreal, eta zilar, urre eta diamantezko ez dakit zenbat eraztun, eskumuturreko eta bitxi pila ekarri zituen. Hil zenean egin zen inbentarioan, beste gauzen artean, hamaika soineko, hogeita hamabi alkandora, bi abaniko eta beste bi sombrero azaltzen dira.

Ezkondu zenean Joan Estebanek aita hil berria zuen: 1852. urtean hil zen. Testamentuan zortzi seme-alaba bizi zitzaizkiola adierazten digu: Joan Esteban, Joxe Bixente, Joan Hilario; Frantzisko Joxe, Maria Magdalena, Anizeta, Maria Daniela eta Feliziana. Bi ezkontuta omen daude: Maria Magdalena Bidanira eta Anizeta Bergarara; eta beste guztiak ezkongeak. Joan Hilario eta Frantzisko Joxe, berriz, apaiz ikasketak egiten ari omen dira. Aita –Frantzisko Antonio Alkizalete – Peruko iloba batekin ezkondu zen: M^a Jeronima Legarrarekin. Beraz, Joan Estebanen ama Perukoa zen.

Ez dirudi aita hil eta denbora gutxira ama eta semea oso ondo konpontzen zirenik ze... 1855ean amasemeak hitzarmen bat egiten baitute eskribanoaren aurrean handik aurrera beren arteko harremanak nolakoak izango diren zehazteko. Ikusten denez, amak Alkizalete utzi nahi zuen eta beste lekuren batera bizitzera joan baina, errespetu handiko jendearen aholkuari jarraiki –hala dio amak –, azkenean, bertan geratzea erabaki zuen.

Hala ere, ez ziren tirabirak bukatu, ze... 1866ean, azkenik, ama Anoetara jaitsiko da Joan Hilario semearen –ordurako apaiztua – etxera bizitzera. Zergatik? Zein zen arazoa? Ez dakit, baina... Esan dugu ama Perukoa zuela, eta herriko bikarioa ere Perukoa zen: amaren anaia. Beraz, osaba zuen eta honek 1865 ez zion Pazkoarekin konplitzeen utzi Joan Estebani. Osabak arrazoi hau ematen du ilobari komunioa ez emateko: Joan Esteban herrian mozkor nabarmena zela. Esan dugu Joan Esteban eta Sabina 1853an ezkondu zirela. Hiru seme-alaba izan zituzten baina alaba jaio berritan hil zitzaien. Beraz, Sabina 1860ean hil zenean Usurbilen, 29 urte egitera zihoanean –oso gazte– bi ume ttipi bakarrik utzita joan zen: Bernardo Balerio (lau urtekoa) eta Santiago (bi urtekoa). (Beste egun batean emango dugu hauen berri. Hauetako bat negozioetan sartu baitzen amaren familiaren tradizioa jarraituz). Sabina hil eta handik bi urtera (1862) Juan Esteban, ere, ondoezik sentitu eta testamentua egitera behartu zen ondasunak seme zaharrenari utziz. Seme honek sei urte zituen orduan. Izan zuen gaixotasuna ez dakit zein izan zen, baina ez zen nolanahikoa izango ze... testamentua sinatzeko ere ez omen zuen indarrik. Hala ere, ez zituen oraindik San Pedroren bizarrak ikusi. Beste hamaika urte egin zituen eta 1873an, 51 urte zituela, joan zen mundu honetatik.

Joan Estebanen aita hil zenean Alkizaleteko inbentarioa egin zen, baita Sabina hil zenean ere. Biak antzekoak dira. Aita hil zitzaionean egindako testamentutik jasoko ditut datu batzuk. 1852an Alkizaleteko ondasunak hauek ziren. (Ginetik emango ditut):

Altzarrietan, 4.210 erreal; aziendan, 7.660 erreal; erroa: 8.328 erreal; ontziteria: 1.083 erreal; zilar landua, erlojuak, bastoiak eta eskopetak: 4.000 erreal; liburutegia: 2.783 erreal (liburu dezente azaltzen da




eta liburu askoren gaia erlijioso da, familian bai baita beti apaizaren bat gutxienez); eta bestelakoak: 1057 erreal.

Bestalde, etxe edo baserri hauek zituzten. Alkizan: Alkizalete, Mariategi, Lizarzelai, Belzalaga txikia, Leteberri, Mariantonena, Katalandegi, Arpide garaikoa eta Igaran errota; eta Larraulen: Larrola, Guruzeaga eta Etxeberritxo. Baserri hauek urtero ematen dituzten errentak ia 9.908 erreal omen dira.

Horretaz aparte bazituzten kapilautzak ere. Kapilautzak mezak emateko edo beste ekintza erlijiosoak egiteko eraikitako instituzio erlijiosoak dira. Fundatzaileak diru bat jartzen du kapilaua izango den apaiz batek familiako hildakoen alde mezak eman ditzan urtean zehar. Apaiz hauek bizitzeko behar zutena, beste lanik egin gabe, fundatzaileak maileguan emandako ondasunak ematen zituzten errentatik ateratzen zuten, eta kapilauen izendapena fundazioaren nagusiaren esku zegoen.

Hiru kapilautza azaltzen dira:

Alkizalete deituriko kaperautza. Kapilautza hau ondasun hauek osatzen dute: Alkizako Berandegun baserriak, gehi beste baserri hauei maileguan emandako diruek: Alkizako Aranguren-zarra, Aranguren-berri, Arrizaga, Zumitzeta eta Antzieta baserriei emanak; Anoetako Sarobe eta Goikoetxeari emanak; Errezilgo Etxeberri-azpikoa eta Telleriari emanak; Asteasuko Zabala-Rekondorenari emanak; Zizurkilgo Araeta eta Etxetxori emanak; eta Alegiako Benito Irazustari maileguan emandako diruek. Kapilautza honek ia 4.500 erreal jasotzen zituen urtean. Dirua %3an zegoen.



Maria Larrolak sortutako kaperautza. Diru hauek osatzen dute: aipatu berri dugun Benito Irazustari maileguan emandako diruek; Alkizako Etxebitarte, Etxabeguren, Sarobe eta Sarobe-etxeberria baserriei emanak; Berastegiko Maritorea eta izen bereko beste etxe bati emanak; Asteasun Migelerena, Perugarziena, Bergerandi, Iturrieta-bitarte eta Malluretari emanak; Leaburuko Ubillosi emanak; Larraulgo Goieneta-goienari eta Zizurkilgo Fraisorori.

Dn Jose Alkizalete apaizak sortutako kaperautza: Alkizan, Urrutikoetxeari; Tolosan, Karlosenari eta Asteasun, Larrea eta Lizola Ignazioarenari utzitako diruek.

Ondasun hauek Joan Estebani geratuko zaizkio anai-arrebei eman behar zaizkien kargekin, jakina. Arpide garaikoa baserria, bi pagadi eta harizti batekin batera, Joxe Bixenteri semearentzat utziko du aitak. Alkizaleteko kapilautza, Joan Hilariori emango dio, eta Larrolakoa, Frantzisko Joxeri. Esan dugu azkeneko bi hauek apaiz ikasketak egiten ari zirela eta aitak dio: bietako batek apaiz egin eta gero Alkizaleten bizitzen jarraitu nahiko balu Joan Estebanek liburutegia dagoen gela utzi behako dio eta apaizak izango duen neska-mearentzat sukaldearen gainean dagoen gela.



■ Amaia Núñez



Idi parea gurdiarekin. © Luis Mari Núñez



Haurrak traktorearen gainean. © Luis Mari Núñez

Garo meta izugarria Lete aurrean

Orain dela ez hainbeste urte ohikoa zen metak ikustea. Baserri inguruetakoz zelaiak metaz betetzen ziren eta erraza zen bizpahiru batera aurkitzea. Gaur egun, berriz, jada ez dira ikusten, paisaiatik desagertu direla dirudi. Metak nekazal giroko kulturaren parte izan dira eta horregatik Alkizan tradizioa berreskuratzea erabaki zen.

2009ko azaroaren 22an Itxurain elkarteko kideek, hainbat herritarrekin batera, garo meta Alkizara ekarri zuten berriro. Ez zen nolanhiko irteera izan eta elkarteak antolatu ohi dituen ekintzetan bezala, azkenean herriko talde ezberdinak elkartu zituen ekimena izan zen. Txerri hiltzearen tradizioa eta txondorra bezala, herriko parte izan ziren urte askotan metak eta orain ere ikastola, haur, guraso, e.a.ek parte hartu zuten.

Garos meta egitearen tradizioa galtzen ari zela ikusirik, Jose Ignacio Gorostidi 'Lete'k proposatu zuen kultur ekimen berri bat bezala. Aspaldian zuen meta egiteko ideia, bere etxe aurrean jartzeko. Hala ere, hasiera bateko meta txikia egiteko proposamena pixkanaka-pixkanaka hazten joan zen eta azkenean ikastolako haurrak, argazki erakusketa, eta idi gurdia ere batu ziren.

Baserriko lana talde lanean egiten zen normalean eta oraingoan ere horrela izan zen. Adin guztietako herritarrek osatutako talde bat igo zen Itxuraineko sorora. Hala ere, ekimena burutu aurretik ere talde lana beharrezkoa izan zen eta horrela lortu zen garoa garraiatzeko beharrezko materiala. Gurdia Altxorbe baserrikoek utzi zuten eta lera Maitegiok. Idiak berriz Larraulgo Larrunbide baserrikoak ziren.

Itxurain elkartearen helburuetako bat garai batean herri txikietan eguneroko bizitzan egiten ziren lanak berreskuratzea eta gogoraraztea da. Horregatik, garo meta egiteak elementu asko funtzionamenduan jartzea eskatzen zuen. Garai bateko ohiturak jarraitzen saiatu ziren oraingoan ere, eta horretarako lagun koardila joan zen goizean goiz mendira, Itxurain tontorrera hain zuten. Bertan prest zegoen garoa mozteko izan zen zeregina. Era berean, traktorea haur txikiak eramateko bakarrik erabili zen, eta garoa idi pareak gidatutako gurdian bildu zen.

Idi pareak Lete baserrira ateratzen den bide zaharretik iritsi zen Alkizara. Bertan itxaroten ari zen herritar taldea eta elkarrekin igo ziren garoa biltzera. Larraulgo Larrunbide baserriko Martin Aritzetauren idi beltz pareak proba ugartan parte hartutakoa da eta erraz bete zuten gurdia tontorreraino eramateko lana. Bai



Gregorio eta Jose Ignacio garo meta egiten.
© Luis Mari Núñez



Koldo –atzean–, Julen eta Joserra, garamanean lanean.
© Luis Mari Núñez

igoeran, baita jaitzieran ere, garoz betetako bi lera eraman behar izan zituzten. Idi pareak ezik, beste material guztia alkizarra zen. Abantaila laster hartu zuten idiek eta taldearen gehiengoa segituan atzean geratu zen bidea lasai-lasai igoz. Taldea goia iritsi zenerako garoaren gehiengoa jada bilduta zegoen. Aurreko egunean, Gorostidi berak eta Itxurain elkar-teko kide batzuk moztua eta jasotzeko prest utzi zuten. Horrela, taldea iritsi eta jasotzeari ekin zioten. Idi pareak lera mantentzen zuen bitartean, Gorostidi, Guillermo eta Hernandezek garoa bildu eta kargatu zuten, lehenengo gurdian eta gero leran.

Bitartean haur eta helduek indarrak berreskuratzeko aprobetxatu zuten. Lete baserritik goizeko bederatzia inguruan irten ondoren, denbora gutxi zegoen fruitu lehor batzuk jan eta beheranzko bidea hartu aurretik, hamaiketakorako berriro plaza txikian egon nahi baziren. Gurdia segituan bete zen garoz eta taldea herrirantz joan zen. Jaitzierako bidea egiteko beste bidea erabili zen, gurdiak igoerakoan erabili zutena. Leten hamaiketakoa zegoen itxaroten. Gorostidik meta antolatzen zuen bitartean, gainontzekoek taloak, sagardoa eta gaztaina erreak dastatu zituzten. Eguna Beheko plazan bertan egindako barrikotearekin amaitu zen.



Alkizako haurrak garo metaren aurrean.
© Luis Mari Núñez



Garai bateko hauteskundeak

Koldobika Jauregik helarazi digun dokumentu interesgarria da artikulu honen ardatza. 1933ko azaroaren 28an "El día" egunkariko "euskal orria" atalean argitaratutako artikulu bat duzu, irakurle. Artikulu hau Estatutuaren erreformaren inguruan egindako plebisizitoari buruzkoa da.

Jakin badakigu, 1933ko azaroaren lehenengo egunetan estatutuaren erreformaren erreferenduma egin zela. Kanpaina oso gogorra izan omen zen, batez ere abertzaleen aurka. Alkizan garai hartan 224 biztanlek zeukaten bozka emateko eskubidea, eta horietatik 221ek eman zuten, guztiak estatutuaren alde. Ez zen izan boto zuririk, ez eta baliogaberik ere. Esan behar da, derrigorrezkoa zela bozka ematea, eta eman ez zutenei isunak jarri zizkietela ere badakigu. Baita ere esan, ordurako emakumeek lortua zutela bozka emateko eskubidea.

Alkizako zinegotzien aukeraketa (1893)

Alkizan, 1893ko azaroaren 12an, egin ziren hauteskundeak. Udaleko artxiboetan aurkitu ahal izan dugu hauteskunde horiei dagokien akta. Akta horren arabera, mahaia hauek osatu zuten: Presidentea: D. Pedro Jose Aramburu Legarra; Bokalak: D. Santiago Gorostidi, D. Juan Antonio Aranzabe, D. Francisco Esnaola, D. Jose Manuel Urruzola, D. Agustin Lavaca, Don Francisco S?, D. Demetrio Legarra, D. Felipe Huarte, D. Juan Cruz Urruzola, D. Jose Antonio Urruzola.

Zentsoan 114 hautesle zeuden, eta botoa eman zutenak 96 izan ziren.

Honoko hauek izan ziren aukeratuak: D. Pedro Jose Aramburu Legarra, 55 botorekin; D. Pedro Antonio Roteta, 55 botorekin; D. Eusebio Zubiaurre Arrizabalaga, 55 botorekin; D. Julian Iruretagoyena Ugalde, 41 botorekin; D. Juan Agustin Iruretagoyena Ugalde, 41 botorekin eta D. Jose Maria Eizmendi Iraola, 41 botorekin.

Garai hartan emakumezkoek ez zuten botoa emateko eskubiderik. Eskubide hori gizonezkoena bakarrik zen. Kuriosidade gisa aipa daiteke baita ere, aktan hautesle guztien izenak, eta zein bailaratan bizi ziren agertzen dela. Harrigarria egiten zaigu Sakamidra auzoa ez dela aipatu ere egiten. Zergatik ote?

Akta hori kuriosidadeak eraginda, inork ikusi nahi izanez gero Udalera jo dezake, bertako artxiboetan baitago. 462. Karpetaen barruan 04 espedientea da.



Gaur egungo Sakamidra auzoan Agiña baserria.



Denbora bankua martxan Alkizan

Hartu denbora behar duzunean, eta eman denbora ahal duzunean

Azkenaldi honetan oihartzun handia duen sistema honek trukea du oinarri. Eta ez da gauza berria, zue-tako batzuk gogoan izango baituzue garai bateko auzolana. Denbora bankuan norberak eskaini dezake bere denboraren zatitxo bat, dituen abileziak edo eman nahi duen laguntzen arabera. Era berean, bankuaren erabiltzaileak eska dezake behar duena. Aiztondon ideia hau berreskuratu egin nahi izan da eta mankomunitatea osatzen duten Larraul, Zizurkil, Aduna eta Alkizan dagoeneko lehen urratsak ematen hasiak dira. Beraz, argibide batzuk eman ditzagun Banku honen erabilpenaren inguruan

Zer da Denbora Bankua?

Diruan oinarritu beharrean, lan-ordua aintzat hartzen duen zerbitzuen trukatzeko sistema da. Aiztondo osatzen duten herritarrak elkarri lagundu eta ezagutzeko baliagarria izan daitekeena.

Norentzat da Denbora Bankua?

Denbora modu berdinean trukatzeko prest dauden pertsona helduentzat da. Eskaintzen diren zerbitzu guztiek, Denboraren Bankuan berdin balio dute, hau da, denborak kontatzen du. Denok dugu zer eskaini.

Nola funtzionatzen du?

Oso erraza da: zure beharretarako laguntza jasotzen duzu eta, trukean, zure denbora eskaintzen diezu beste batzuei. Lehenik, norberak behar duena bere herrian lortu dezan ahaleginak egingo dira. Behar duen hori herrian bertan ez balego, bankuko arduradunak beste herri bateko norbaiti deituko lioke.


Eskaera bat jaso ondoren, eskatutakoa ezin badugu egin, edota nahi ez badugu, ezetz esan dezakegu. Bankuko arduradunak beste bati deituko dio eta beste inor aurkituko ez balu, eskaria bertan behera geratuko litzateke.

Ezin du inorentzat zama bat izan behar, gustura egingo den zerbait baizik.

Nola ordaintzen da?

Partaide bakoitzak talonario bat izango du eta laguntza jaso ondoren bertan idatziko ditu denbora eskaini dionaren izen-abizenak eta horretan eman duen denbora.

Parte hartzaile bat lanean.



Aspaldiko ohitura da elkarri laguntzea lan egiteko garaian.



Pilik gaztak egin ditu eta urte osorako egoera onean mantendu nahi ditu. Berak modurik ez duenez, Denbora Bankuan eskatu du laguntza. Amaiaren telefonoa eman diote. Amaiak enbasatzeko tresna duenez, bere laguntza eskaini dio.

Zer eskaintzen du Denbora Bankuak?

- Umeak eta adineko pertsonak zaintzea, zerbait irakurtzea...
- Masajeak
- Etxeko txapuzak
- Autoaren "ITV" a pasatzea
- Sukaldaritza
- Furgoneta eta kotxe zerbitzua
- Oporretan etxea zaintzea: kartak jasotzea, landareak ureztatzea...
- Aholkularitza eta laguntza etxeko arlo ezberdinetan: elikadura, ekonomia, garbiketa, baratza...
- Internet bidez bidaiak antolatzea
- Gehi zuk eskaini nahi duzuna!

Zer egin bertako partaide izateko?

Aiztondora, 943 693 930 telefonora deitu. Informazio gehiago nahi izanez gero deitu Itsasori. Anima zaitzete!



■ Lorea Agirre

Alkizako ilargibetea Maialenen txapel

Oraintxe urtebete, batzuk ondo akordatzen gara, ilargibetea zen Alkizako jaietan, eta gau giroa goxoegia goiz etxeratzeko. Gaua asko luzatu zen, dena esango dugu, muturreraino, hurrengo eguna argitzeraino. Eta hortxe topatu genituen gure buruak plazan, eguzki argitu berriari aurpegia emanda, eta gosaldu beharko dugu ba, galdezka. Badira batere nekerik sortzen ez duten parrandak, kontrakoa, irria ezpainetan luze uzten dutenak. Horrelakoa izan zen orduko hura. Maialen Lujanbiok mobilarekin, goizeko zortziak inguruan, egin zituen fotoak horren lekuko. Gurekin izan baitzen gaupasan, frontoian saioa egin eta gero.

Hilabete baino ez zen geratzen Euskal Herriko Txapelketa Nagusia abiatzeko, eta hiru hilabete final handia jokatzeko. Gazteen txosnatik Elizegira eta Elizegitik Ostatura, eta segi kalejiran. Hainbagarren bueltan hainbagarrenez errepikatu genion Maialeni aurten baietz, txapela jantziko zuela. Dena ñabartzen hasten den ordu txiki horietan ginen, eta ilargibeteari ere txapel itxura hartua genion ordurako. Eta txapela jantzita, inkluo janzten ez bazuen ere, bertso afaria antolatuko genuela eta bera gonbidatu nagusi izango zela, bertsoarik batere bota beharrik gabe lasai afaltzera ekarriko genuela, eta beste bi bertsolari jarriko genituela lanean. Afariaren ideia asko gustatu zitzaizkion edota halako tema izan genuelako gau osoan, igual, horregatixe esango zion bere buruari, baietz, Alkizako lagunak gustura uzteagatik saiatu saiatuko zela behintzat txapela janzten. Eta ona denak beti du peli-groa, saiatuz gero lortzeko arriskua. Eta halaxe egin Maialenek.

Maialen ezagutzen duenak badauki zeinen eskuazala den. Alkizarrok ere hortaz jakitun gara. Ekainaren 4an antolatu genuen bertso afaria, hitz eman bezala. Uxue Alberdi eta Unai Muñoa etorri ziren kantatzera. Maialen bertan izango zela jakin zutenean, batere kobratu gabe etortzeko prest agertu ziren. Tomas Lizardi jarri genien gitarran laguntzaile. Guztien partetik halako prestutasuna ikusita eskerrak ematea ere tokatzen zitzaizkion argi zegoen. Txapelduna Alkizan afaltzen, eta gainera bertso jarriak guretzako propio idatzitakoak kantatzen, eta librean ere beste bi bertsolariarekin kantuan bukatzen.



© Xabier Artola

Saioa bikaina izan zen. Giroa harrigarria, emozioz betea. Ostatuko jangela leporaino, eta alkizarrak bertso gosez. Hamaiketan hasi eta goizeko ordubiak jotzear zela bukatu. Umorerik eta ziririk ez zen falta izan. 'Guantanamo' doinuan, mahaiez mahai Uxuek eta Unai botatako bertsoak ez ditugu ahanzteko. Han aitatu ziren hainbat eta hainbat alkizar. Beste behin, orduko gaupasa hartan bezala, gau gozagarria izan zen.

Gure eskertza ere egin nahi izan genion Maialeni, modu xumean, bestelakoan, handikerietan hasita haserretuko zitzaizkion bagenekielako. "Niri omenaldirik ez, ezta horren kutsuko ezer, aittu?". Argi utzi zizkion bertso afariaren nondik norakoak eta intentzioa. Baina zer gutxiago etorri izana eskertzea. Eñaut, Manex, Ane eta Mattinek bi bertso-jarri kantatu zizkionten. Eta ondoren Manuren lau bertso bikain entzun genituen. Gaupasa gogoangarri haren kronika egin zuen, eta geroago, saioaren erdikaldera, Maialenek ere gau haren bere bertsoa eman nahi izan zion hamahiru bertso idatzitan. Naroak eta Onintzak ere kantatu nahi izan zioten Maialeni. Eta nola kantatu, gainera! Halakoa izan zen bertso afarian sortu zen giroa, denek nahi zutela eskertza keinuren bat egin.

Aurten ere Alkizako bertso saioan izango dugu Maialen. Gosaria dagoeneko prest dugu. Eta ordura bitarteko poteak ere gure kontura doaz. Izan ere, Maialen txapeldun handia baino gehiago bertsolari ikaragarria da guretzako, eta horren guztiaren gainetik bihotzeko laguna.



Hona hemen gaupasa haren bi bertsoio:

Maialen Lujanbioren bertso jarriak:

1

Urtea zan bi mila
ta bederatzia,
iraileko hila,
ilbete bizia.
Nahiz gaur ekainaren lauan
bista arazia,
Alkizako festetan
jarri zen hazia.

2

Saioa egin frontoian
festan segi plazan,
lehengo bertsolari juerga
zale haien trazan.
Bertsolarien fama
bazan ta ez bazan,
denaren erruduna
Lorea izan zan.

3

Bertsoek ondorio
horixe dakarte
kantuan enfin, baino
parrandan ze arte.
Festan dana emanda
hartu gendun parte,
alkateak mangera
atera zuen arte.

4

Ta festan ez da zalla
bi burmuinak sutzen.
Ez gaitu ezerk lotsatzen
ez ezerk beldurtzen.
Denak moxorrotuta
zeudelako hain zuzen
oain beiratu ta ez det
inor ezagutzen.

5

Kale-jira, arin-arin
eta fandanguan,
expata gerrian ta
zapela buruan.
Gaur nahiz Balduino zegon
barraren barruan,
nik mosketero zala
ezagutu nuan.

6

Ta berriz halakorik
ein nahi bada aurten,
El Txori ta El Jhonan
ezin ditugu ken.
Iaz tronpoa besterik
ez genuen entzuten,
plaza karratua ia
borobildu zuten.

7

Hiru euneko bizarrak
bat bazan ahatik.
Pablo Motos zan edo
Manu zan ez dakit.
Trankas ta Barrankas,
ez zun ezer faltik.
Hitzein egiten zun
hiru ahostatik.

8

Manu eta Lorea
orduko fansenak
'Lujanbio txapeldun'
esan zien senak.
Kobratu omen dituzte
dauden miloi denak
finaleko kiniela
asmatu zutenak.

9

Pote pin-ponean
bestera-batera
barrua bete ahala
hustu zan kartera,
ta goizeko zazpitan
begien kaltera
ilargi betea joan
ta euzkia atera.

10

Egun argitan txosna
barruan ze mundu
bera Ailekhum Salam
Salam Ailekhun gu.
Orduko moro hura
Tomas da, seguru
Bizarra orduko du,
txilaba kendu du.

11

Koldo eskultorea
glamur ta ospe da
Gaupasa gurekin ta
lanera ostera.
'Donostira nijoa'
esan zun, ospera!
Herri-bazkarirako
sardinak eostera.

12

Gosai bat zor zitzaion
juerga eder horri.
Arraultzak prejitjera
nik chef gisa korri.
Gorringoa zuri ta
zuringoa gorri
atera bazen ere
ez nion igarri.

13

Ta irailetik abendu
urrunan peskian
Nahiz ta bi gauza diran
nahi eta ahal izan.
Iraileko festak,
ilbete Alkizan,
Txapela borobiltzen
holaxe hasi zan.



© Unai Sorarrain



Manuren bertso jarriak:

1

*Irailean ohitura denez
herriko jaiak ALKIZAN
bertso saioa ostiral gauzez
azken urtetako gisan.
Giro ederra zenez,
etxerako presik ez,
berandutxo ere plazan.
Zure txapelan ibilbidea
gaupasa hartan hasi zan.*

2

*Lendabiziko Bergarakoa
izugarritzko jarduna,
gero Donostin hutsikan gabe
beste saio bat txukuna.
Zuk exhibizioak,
ta guk emozioak,
eta BEC-en txapelduna.
Abenduaren hamairu hura
ahaztuko ez duguna.*

3

*Berun aleak sasien hazi,
ezkontzan dantzaz ondoren,
giltzurruna ta gabon afarin
jarraian ardo edanen.
bikaina medikua,
ta "sua" magikua,
azkenean bis a bisen.
Hobekiago ezingo zan da,
bejondaizula Maialen.*

4

*Lau urte barru zer pasako den
ezin arren iragarri,
espero behintzat bitarte hortan
elkar ikustea sarri.
Nahiz handia den maila,
ta izan arren zaila,
ea han haizen herorri.
Berriz txapela jantzi nahi baden
aurretik hona etorri.*



© Unai Sorrain



© Unai Sorrain



© Xabier Artola



Manuren promesa

Manu Urruzola gizon ez ohikoa da. Bere buruari erronkak jartzea gustatzen zaio, bizitzaren edozein arlotan gainera. Alkizan bizi eta bertan bere aitak sortutako enpresa bat aurrera ateratzen du. Kirola eta mendia maite ditu, eta Erreala. Beti bere burua probatzeko prest dirudi. Pilotan txikitatik jolastu du, lehenengo eskuz, gero gaztetan paleta goman eta hone-tan Gipuzkoako txapel-dun izatera iritsi zen. Gaur egun pilotan aritzen da astean behin, binaka, Alegian.

Edozein egunetan tailerrean lana bukatu eta Erniora abiatzen da burua lasaitzeko edo. Ernio beretzako oso mendi berezia da, oso maitea, Alkizako guztientzat bezala. Aurten mendi martxa mordoxka ere egin ditu: Irurtzango martxa, Zarautzekoa, Billabonakoa, Agurainekoa, Andoainekoa eta Beasainekoa. Martxa hauek gutxi gora behera 50 kilometrokoak izan ohi dira. Erniozale Elkartekoek Ernio inguruan bi urtean behin antolatzen dutena ere egin du.

Aurten, bere buruari erronkak jartzea gustatzen zaionez, Hiru Handiak deitutako martxa egiteko apuntatu zen. Martxa honetan izena emateko epea urtarri-laren 1ean zabaltzen da eta zortzi egunetan betetzen dute parte hartzaileen kopurua: 1.500. Gaueko hamabietan ateratzen dira ekaineko ilargi beteko lehen asteburuan. Aurten ekainaren 25ean atera dira Manu eta beste 1.499ak. Bertan ehun kilometro oinez egiten dira, tartean Anboto, Gorbea eta Aizkorriko gailurrak eginez. Antolatzaileek 24 orduko denbora ematen dute gehienez, berak 20 ordu t'erditan egin du.

Manuk Errealeko partiduak Elizegi tabernan ikusten ditu eta 2003an Erreala ligako txapelketa lortzekotan zebilenean, tabernako kontuak, berak Erreala txapel-dun geldituz gero Erniora bi aldiz joan-etorria egingo zuela bota zuen. Orduan ez zen Erreala txapel-dun gelditu baina bai handik urte gutxitara bigarren mailara jaitzi. Orduan Manuk aker bizartxo bat utzi zuen eta ez omen zuela kenduko Errealak lehenengo maila berreskuratu arte. Baita igoz gero hiru aldiz jarraian igoko zuela Ernio. Bigarren mailan urteak pasa eta, geroz eta handiagoa bihurtzen ari zen promesa!

Azkenean aurten Hiru Handien martxa prestatzen ari zela eta bere burua indartsu ikusiz promesa hau bota zuen: Erreala lehenengo mailara igoz gero, hamabi orduetan lau aldiz joan-etorria egingo ziola



Ernio mendiari. Ekainean Erreala igo da azkenik eta Elizegiko Jexuxek berehala bota zion: "Hitza bete beharko duk!". Bizartxoak kendu eta ekainaren 19an, larunbata, Alkizako plazatik goizeko seietan abiatu zen Manu Erniora. Lau joan-etorrietan norbait eraman zuen berarekin testigu lanak egitera.

Lehenengo bueltan alkateak lagundu zion bidean: Jonek lehenengo joan-etorria plazaraino egin zuen berarekin. Bigarren bueltan Alaitzek, Manuren bikoteak, egin zituen testigu lanak. Hirugarren bueltan arreba eta haren bikotea eraman zituen, hau eta gero pintxo bat hartu eta zer edo zer edan zuen. Laugarren bueltan berriz Katalandegiko Xabier joan zitzaion lagun.

Manuk kontatu digu erraz egin zuela, ondo prestatuta zegoelako eta bosgarren buelta bat egiteko gogoia eta denbora ere gelditu zitzaiola. Baina handik aste batera Hiru Handien martxa egiteko erronka zuenez, nahiago izan zuen indarrak gorde eta lehenbailehen errekueratzea.

Ez ohizko gauzak egiten duen Alkizako Manuk hurrengo erronka zein jarriko duen jakiteko irrikan gaude. Berak ere ez omen daki. Agian Errealak inoiz Champions League irabaziz gero, Beasainen egiten den 100 miliako, hau da, 166 kilometroko martxa egingo izango dela esan digu.

Dena dela, AUPA MANU!



■ Pello Joxe Aranburu

Euskal literaturan Hernio-beheko izar batzuk, idazle eta bertsolariak

Pello Mari Otañok bertso hauek berak idatzi eta Oroimenak bere izkributik hartu ditut. Bukatu gabeko opera baten antza du eta elkarrizketa moduan emanak daude:

Galdera: Erniyo zer da?

Erantzuna: Mendi arkaizti tontor aundiya ta euskaldunen libretokiya.

Galdera: Gaurko euskaldunak zergatik bada ez dira joaten mendi artara?

Erantzuna: Tontor artara ez leike igo bidea jarri gabe garbiro.

Galdera: Zer sasi daude, ta zer naspillak, orla ego-teko mendi-mutillak?

Erantzuna: Animan sartzen diran lar latzak, biotza jotzen duten arantzak.

Pello Marirentzat Ernio mendi mitikoa da eta bere bertsoetan gaurkotasan handiko mezua utzi zigan: *Euskal semeak jaso ditzagun biyotz elkartubak gora, eta lenbailen bildu gaitezen denok elkarren ondora; berriturikan Lekobideren eta Laurtanen denbora, igoko gure gure gaztelu betiko dan Erniyora.*

Herri orok du eremu geografikoa, lurra nahiz ura, ortzia, historia eta hizkuntza. Normalki nor bere hizkuntzan, ahozko edo idatzian gordetzen da herri bakoitzaren historia, lehengo, oraingo eta geroko biztanleei argi egin diezaien. Hizkuntzak jakinduria, kultura eta nortasuna ematen digu, nor egiten gaitu. Aurtan argitaratu dugun *Pello Mariren arnasa* liburutik xurgatutako ideiak dakartzat hona.

Euskal Herriak badu bere eremu geografikoa, lurra nahiz itsasoa, bere ortzia, historia eta bere hizkuntza, hots, euskara. Euskaraz hitz egin, elkarri ohitura eta tradizioak pasa, euskarak herri egiten gaitu, Euskal Herri. Europako hizkuntza zaharrenak hemen, gure artean irau du beste guztiekin batera elkarbizitzan, lehian, bata bestea aberastuz gainera. Oztopoak oztopo euskaldun gara, euskara darabilgu, euskarak aberasten gaitu. Euskaldunok ez dugu berehala etsiko gure betidaniko erronka honetan.

Euskaraz idatzi eta abestuz bi literatura mota sortu eta garatu ditugu: alde batetik, bat bateko ahozko literatura edo bertsolaritza eta, beste alde batetik, literatura idatzia. Biak dauzkagu bizirik, geroz eta areago gainera. Bietatik datorkigu euskaldunoi argia, noski ez horietatik soilik, bai ordea bereziki guretik. Beraz, bi euskal literaturak dira gure izarrek egunez eta gaeuz argitzen gaituztenak, eguzki, ilargi eta izarren antzera. Zentzu oso zabalean harturik, euskara ikasi, irakatsi, erabili eta bultzatzeak, edo euskaraz entzun, irakurri, abestu, argitaratu eta idazteak, ekimen guzti horiek dira euskal literaturaren baitakoak, neurri apal batean euskal izarren keinu eta distirak.

Euskal literatura idatzia, XVI. mendean Iparraldean hasi zen eta euskal literatura idatziak han betidanik tradizio handiagoa izan du, besteak beste, aipagarria da Sarako eskola, Axularren GERO maisu lana. Hegoaldean beranduago, XIX. mendean, orokorrean hasi zen euskaraz idatzen eta Euskal Pizkundera deitzen zaio, 1876-1936 urteetako euskal literaturari. Adibide batzuk emate arren, Txomin Agirrerren Kresala (1906) eta Garoa (1912), Kirikiño-ren Abarrak (1918), Xabier Lizardiren Biotz-begietan (1932) eta Lauxetaren Bide barriak (1931) aipatu dira hemen, lehen mailako izarrek izan baitziren.


1937-1956 gerraondoko pertsekuzio eta debekuen urteak izan ziren. Euskara mintzatua ere erasana izan zen eta euskaldungo eskolatu batzuk erail, gehiengoa atzerriratu, barruan gelditu zirenei debekatu egin zitzaizen elkartu eta bilerak egitea.

Aipatu gerra ondoren, Hego Euskal Herrian apurka beste izar batzuk piztu ziren: *Leturiaren egunkari ezkutua*, lehen eleberri modernoa, 1957an, Txillardegik idatzia eta, 1964an, Gabril Arestik Harri eta herri poema liburua adibidez.

Ahozko euskal literatura edo bertsolaritzaz Lekuona osaba-ilibak dira, nire uste apalean, aipatutako gaiari buruz hitz egiteko maisurik egokienak. J.M. Lekuona-ren hitzak erabiliko ditut. Bertsolaria herri poeta da,



Asteasuko Juan Bautista Agirre.



Pello Mari Otañoren liburua azala.

ahozko tradizioaren arabera, bat-batean sortzen eta abesten dituen bertso eta poemak. Lau etapatan sailkatu zituen bertsolariak, muga zehatzak ipiniz:

- Erromantizismo-aurrea (1800-1839), Lehen Karlismaldia baino lehenagoko herri bertsolariak, esaterako Fernando Amezketarra.
- Erromantizismoa (1839-1876), bi karlistaldietako lau izen: Xenpelar, Billintx, Iparragirre eta Etxaun emanaz.
- Pizkunde-aurrea (1876-1936), gerra zibila aurreko bertsolari multzoa oparoa eta adibideak hautatzeko orduan zailagoa egiten zaigu. Hernio-behekoak alboratu zitzaizkion, honakoak: Txirrita, Alkain, Udarregi eta Enbeita laukotea nabarmendu dit.
- Pizkundera (1936-1968). Izenak berak adierazten duenez ikaragarri ugaltu eta hobetu zen bertsolaritza, besteak beste, Basarri, Uztapide, Xalbador eta Lasarte bertsolarien eraginez.

Hernio-behea erakunde historiko eta erlijioso bat izan zen urte askotan zehar. Ernio mendiaren inguruko

abade eta eliz gizonak bi taldetan ondo antolatuz zeuden, eta ia Gipuzkoa osoko beste kideekin hileroko eta txandaka, batzuetan Bidanarian eta beste batzuetan Asteasu bildu ohi ziren. Ernio mendiaren hego aldeko "Corriedo de la Sierra" eta ipar aldeko Hernio-behea deitzen zioten. Herri hauek osatzen zuten Hernio-behea: Asteasu, Larraul, Alkiza, Hernialde, Anoeta, Irura, Amasa-Villabona, Andoain, Urnieta, Sorabilla, Aduna eta Zizurkilek. Artikulu honetan aipatu herrietan jaiozko idazle eta bertsolariak soilik kontuan izan dira.

Pello Mariren aurtengo mendeurrenari Oilategitik aldizkariaren hamar hurrena erantsi nahi diogu. Alkizako Oilategitik aldizkaria bera, zentzu zabalean, euskal literaturako ekimen bat da eta aurtengo hamargarren alea kaleratuko dugu. Bailara honetako autore batzuk zer eman dioten euskal literaturari esaten ausartuko naiz.

Hernio-beheko izarren artean lau idazle eta beste hiru bertsolari behintzat, goi mailako zazpi izar hautatu ditut adibidetzat. Lehen mailako izarrak aipatu aurre-



tik, 1936ko gerra osteko, Pizkunde garaiko Peruko Anttonioren ausardia aipagarria da. Euskal zuzia harturik, Argia aldizkarian gure herriaz gerra aurretik kronikak idatzi zituen Krispin Sorarraini semeak jarraitu zion, Arantzazun frantziskotar zelarik, Euskal Herriko giro debekatuan euskaraz lehen obrak idatziz. Gatozen hemen eta orain Hernio-beheko konstelazioa adieraztera.

Andoinen, 1690ean, jaio zen **Manuel Larramendi** jesuita. Euskal idazle jakintsu eta autoritate handiko pertsonaia izan zen. Hegoaldeko euskal literaturaren aita deitu zion Villasantek, bere eraginagatik. *El imposible vencido* izeneko lehen gramatika idatzi zuen, urteetan euskaldunek erabilitako artizarra. *Diccionario Trilingüe del Castellano, Bascuence y Latin* izeneko hiztegiak, berriz, berealdiko arrakasta lortu zuen. Bi adibide horiek aski dira eta ez noa gehiago luzatzera bere obra anitza hona ekarriz. Ubillos frantziskotarra, Amasan, 1707an jaio zen, Larramendiren hurbileko eta jarraitzailek goiztiarrenetako bat izan zen. Alkalan ikasi, filosofiako liburuak idatzi, fraideen irakasle eta goi ardurak eraman zituen.

Asteasun jaiotako beste bi idazle sonatu azpimarratuko ditut: bata klasikoa, 1742koa, eta bestea modernoa, gaur oraindik bizi dena. **Joan Bautista Agirre** asteasuarrak ez zion jarraitu Larramendiren hiztegiari. Euskara herrikoia erabili eta bere obra maisu lantzat onartua da, "el mejor escritor guipuzcoano de la época antigua" zioen Villasantek, nik berriz, bere biografia idatzitakoan, euskal idazle klasiko eta goren mailakoa izan zela nioen. Beste asteasuarra, aldiz, Jose Irazu edo Bernardo Atxaga da gaur egun euskal idazlerik sarituena eta beste hizkuntzetara bere obrak itzultzen ari den autorerik oparoena. Euskal idazle akademikoa bilakatu zaigu.

Ahozko literatura edo bertsolaritza. Hernio-behean bertsolari bikainak sortu ziren Pello Errota Asteasun eta otañoitarren leinua Zizurkilan. Batzuk aipatze arren, Larraulgo Larrunbiden jaio zen Errekalde Zaharra eta Zizurkilera ezkondu, haren semea Jose Bernardo Otaño, berriz, Errekalde baserrian sortua, denak Pizkunde aurrekoak izan ziren. Pello Errota eta Jose Bernardo elkarrekin herriz herri ibili ziren, bikote sonatua osatuz. Hiru haiek lehen mailako bat bateko bertsolariak bilakatu ziren. Bai Pello Errota, bai Errekalde Zaharraren bi familietan baziren bigarren mailako gizona eta emakumezko bertsolari andana. Baina, bi familietako bertsolaririk ospetsuena beste harako hura izan zen, aurten bere heriotzaren mendeurrena ospatzen ari garena, Zizurkilgo Errekalde baserrian jaio zen Pello Mari Otaño Barriola, Errekalde Zaharra bertsolariaren biloba. Hark merezi du aparteko aipamena.

Joan Mari Lekuona maisuaren ideietan babesturik natorkizue. Berezko dohainak zituen Otañok bertsogintzaren alorrean: ugaritasuna, zehaztasuna, abilezia. Ugaritasuna zetorkion bertsolaritzaren altxorra menderatuzetik, etxean ikasitakotik noski. Zehaztasuna bere izaeratik, bere formaziotik eta abilezia ere berdin, bere ikasketatik, poesi maneiak jakitetik. Lore-jokoek eman zioten gai jakinak mamitzea, teknika berriak bilatu eta lantzea eta poeten belaunaldi jakin batekin harreman ongarriak edukitzea.

Lore-jokoak zirela eta, izen publiko bat bereganatu zuen poesi alorrean. Otaño jendaurrean kantatua izan zen, sariak jasotzerakoan, esaterako, Donostian, Arrasaten eta Oiartzunen. Beraz ezagutza eta sona Donostian hasi eta ondoren handik hedatzen joan zen Euskal Herri osora. Baina, Otañoen zabalkundea liburuetatik etorri zen, *Zerbait* (Donostia, 1895) eta *Elkar* (Buenos Aires, 1904). Gero geroak kanpoan utzita.

Pello Mariren errainua, ordea, ahozko zirkuituan sartu zuten Basarri eta Uztapidek klasikotzat harturik, jantzia, ugaria, euskara garbikoa, arrazoizkoa, errespetuzkoa, garaiko eskakizunei egokituagoa zelako. *Geroztik, Amuriza etorri arte behar bada gehienik eragin duen maisua da Otaño bertsolaritzan* dio Lekuonak. Amaitzeko Pello Mariren bertso bat dakart hona.

*Gora Euskalerriya
ta semeai deitu,
esanaz euskera nai
dezula aditu;
bat bakarrik atzera
ez leike gelditu.
Gure erriyak Fueroak
txit bereak ditu,
ta illko da betiko
galdutzen baditu.*



ARGIA aldizkaria:

1922-1936 urteetan idatzitako Alkizako kronikak



Krispin, Alkizako kronista.

Alkiza. — Emen ere guziti egoki eratu izan da aurtien eriko Zaindari edo Patroi San Martin'en eguna. Goizeko mezan jaunartze ugaria efi guzia bildarik. Gafterak jolas guziak lagun arte ederean igaro ziran.

— Soldaduzka betetsa Afrika'tik etofi dira beren txoko maltera Gone'tar Mikel eta Iruretagoyena'tar Pantaleon gure adizkide malteak. Egun goxo eta lasalagoak dira emengo oek ¿ez al da ala, Pantaleón? .

1922/11/19

Alkiza. — Ama Barjina'ren jaloitz eguna jai aritean igaro degu. Ostiraletik ari gitan su-ziri ta txistuakin, zef egun zetoien adierazten. Egun berean: Jaunartze ta meza nagusi edefak, Perrosf'rena isork uzte ez bezela abestuaz, Aguitza edo Efoarioko Amorekin ibildeuna ta bezperak izan ziran eliz jolak. Aufesku, bazkari edef ta dantza gabia gafterakoak.

Igandean jai abek befitu ziran.

— Satuferan eta Andoin'go ikastetxetatik etofi ta lru spaizgai agufu ditugu, beren aritean Leofa'tar Julian'.

1923/09/16

Aurtengo Oilategitik alean arlo berri bati hasiera eman diogu, Argia aldizkarian, 1922-1936 urteetan idatzitako Alkizako kroniken multzoari alegia. Berrogei bat kronika idatzi zituzten honako hauek: Martite(g)i, Ernio-Mendi, Mendiola, Argizale bat, Orjo, Txomin, Ibilkari, Zelaitu, Ordezkoa eta G. ezizenezkoek. Batez ere Martite(g)i eta Ernio-Mendi izenekoek idatzi zuten gehien. Azken honen nortasuna ezaguna da, hau da, ezizen horrekin Peruko Krispin Sorarrain Uzkudunek idazten zuen. Baditu gutxienez hogeita hamar bat kronika labur. Herriko berriak txandaka eman ohi zituzten batzuetan eta garbi ageri da pertsonaia ezberdinak zirela. Denek erabiltzen zuten euskara garbizalea zen, baina, estilo berezikoa, landuagoa, lokalagoa edota biziagoa...

Neurri batean Alkizako berriak jakiteko nahitaezko baliabidea gertatzen da astekari hura. Ia han bakarrik aurki daitezke herriko gertakizun xumeak, elizkizunak, festak, istripuak, heriotzak zirela bide dolumina emateak, eskola eta elizako obrak, bisitariak eta abar. Kronika egilerik oparoena eta guztiz ezagun den bakarra landuko dugu aldizkari honetan, Ernio-Mendi, Krispin Sorarrain.

Hura, 1887-11-19an Asteasun jaio, 1915ean, Anoetan Maria Hermenejilda Amonarriz Blanzakorekin ezkondu eta Perurena baserrian hil zen, 1974-11-

11n. Krispin, 1893an umezurtz geratu zenean, familiarik gabeko Zizurkilgo osaba-izebak semetzat hartu zuten eta, 1922an, Alkizako Perurena baserria errentan erabiltzen hasi ziren osaba-ilobak.

Krispin berehala herrikoitu zen Alkizan: 1924an, Argian herriko kronikak idazten hasi zen, igandero plazan soinua jotzen zuen, Errepublikara garaian alkate eta zinegotzi izendatu zuten eta 1936ko gerlan 500 pezetako isun politikoa ordaindu behar izan zuen. Badugu horren lekukotza.

Krispinek batez ere gure jaioterriko berriak euskaraz eman zituen 1924-1936 urteetan. Alde batetik, Andre Mari eta San Martin egunetako jaiak, hileroko jaunartze nagusiak, elizako misio egunak, hizlarien oratoria goraiatu ohi zituen bereziki; beste alde batek, bertako istripu mingotx, herriko obra, bertako pilotari, herriko semeen ikasketak, halaber, beste zenbait ohitura, esaterako, Santa Ageda bezperako eske edota urteroko ohiturez idazten zuen. Batez ere sarritan eman ohi zuen xehetasun bat nabarmenduko dugu, jaunartze nagusienetako estatistika. Mila bederatziehun eta hogeita bi eta hiruko kroniken autoreren sinadurarik ez dago, baina badirudi bereak zirela. Leteberri eta Bengoetxeko aipamenek eta ondorengo urteetako kroniken sinadurek badukete Krispinen sintonia.



■ Inaki Irazabalbeitia

Gure piztiak

Basoko txori txikiak

Allutxeko pagadian barna nabil, makila esku batean eta saskia bestean. Lurrari begira nabil orbel eta belar artean nire begietan pozaren distira piztuko duen xixaren, ondoaren edo gibelurdinaren peskizan. Txio-txio ezagun batek aterarazten nau kontzentziazioetik. Eroritako pago baten adarretik, txio-txiokoa niri begira, burua ezker-eskuin jiraturaz, txantxangorri lotsagabea dago.

Hamaika txori txiki bizi dira Alkiza inguruko basoan. Batzuk oso ezagunak dira, aipatutako txantxangorria (*Erithacus rubecula*) etsenplurako. Hainbat erraz bereizten dira, kaskabeltza (*Parus major*) adibidez. Zenbait, oharkabean pasatzen ez badira ere, ez dira hain nabarmenak, garrapoa (*Sitta europaea*) esaterako. Horiexek izango ditugu gaur hizpide.

Basoan bizitzeaz gainera beste ezaugarri komun batzuk ere badituzte gure txoriok. Alkizaz aparte Euskal Herriko eta Europako basoetako ohiko biztanleak dira. Hirurak dira intsektiboro, nahiz eta zizare, bare eta antzekoak ere jaten dituzten. Alabaina, negu gorriak intsektuak eta gainerako ornogabeak harripakin zail bihurtzen direnean, landarejale ere bihur daitezke haziak, urrak eta bestelako fruitu lehorrak janez.

Tamaina bertsukoak ere badira, 15 cm inguruko luzera dutelarik. Lumajeak ordea desberdinak oso egiten ditu. Txantxangorriaren papar gorria guztiok ezagutzen dugu. Kaskabeltzak, bere izenak adierazten duen buruko orban beltzak gainera, papar horia zeharkatzen duen arrasto beltza du. Garrapoa, apika, guztietan diskretuena koloreei buruz ari garelarik: bizkarra gris urdinska du eta papar aldea berriz zuri arreska. Mokotik hasi eta lepoaren alde bietan zehar begia zeharkatzen dion eta hegaletaraino iristen zaion arrasto beltz nabaria izaten du.

Txoritxo maitagarria dirudi txantxangorria, baina oso zorrotza da bere lurraldea zaintzen. Beharrezkoa bada, borroka egiten du bertara hurbiltzen diren beste txantxangorriak uxatzeko. Urte guztian zehar mantentzen dute jokabide hau arrek zein emeek. Kantua usatzen du lurraldea markatzeko.



Txantxangorria kantuan. © Gidzy

Garrapoaren kasuan ibilerak bihurtzen du bitxi. Ia beti, zuhaitz-enborretan eta adarretan gora eta behe-ra ikusiko baitugu, atzamar sendoez enbor-azalari eutsiz; gorantz, nahiz buruz beheara jarririk, lurrerantz datorrela. Bakarka edo binaka bizi da basoan, baina negua heltzen denean taldetan bil daiteke beste garrapo, kaskabeltz edo beste parido batzuekin.

Kaskabeltza kantari jaioa da; berrogeitik gora kantu eta dei kantatzeko gai da. Bestalde gizakiokin nahikoa ongi moldatzen da. Hiri eta herrietako parkeetan bizitzera ohitu da. Habia-kutxetan erraz egiten du



Kaskabeltza.
Oso ederki ikusten dira txoritxo honen ezaugarriak.
© Migel Mari Eloseggi (Elhuyar Fundazioaren kortesiaz)



Garrapoa, habiaren atarian.
Ederki ikusten nola zuloa lohia usatuz txikiagoa egin duen.
© Joxerra Aihartza (Elhuyar Fundazioaren kortesiaz)

Kantua eta bideoa

Kantuagatik bereiz daitezke txoriak ikusten ez direnean ere. Beheko Internet-esteketan horien kantuez gozatzeko parada izateaz aparte bideoak ere badaude.

Txantxangorria:

<http://ibc.lynxeds.com/species/european-robin-erithacus-rubecula>

Kaskabeltza:

<http://ibc.lynxeds.com/species/great-tit-parus-major>

Garrapoa:

<http://ibc.lynxeds.com/species/eurasian-nuthatch-sitta-europaea>



habia eta gizakiok jarritako elikaguneetan jateko ez du arazorik. Ikusi izan denez, negu gorrietan jaten duenaren % 44 elikagune horietan utzitako ekilore-haziak izan daitezke.

Habia egiteko garrapoak eta kaskabeltzak zuloak nahiago dituzte. Txantxangorriak ordea adarretan egin ohi ditu. Garrapoa, gainera, igeltsero abila da. Zuhaitzenborrean aurkitutako zuloa handiegia bada, erreka-bazterretik bildutako lohia usatuz, bete egiten du eta neurri egokira ekartzen du.

Txori txiki hauen bizitza ez da samurra eta ume asko egin behar izaten dituzte espeziearen iraupena segurtatzeko. Txantxangorriak eta kaskabeltzak bi kumaldi izaten dituzte urtean. Garrapoak ordea baka-

rra. Kaskabeltzak 18 arrautza bitartean errun dezake kumaldi bakoitzeko. Txantxangorriak 4-6 arrautza bitarteko errunaldia izaten ditu, baina kasu batzuetan, 3 kumaldi ere izan ditzake urteko. Ez da hori harrizko! Izan ere, erruten diren txantxangorri 10 arrautzako, ale bakar bat biziko hurrengo ugaltze-sasoia iristen denean, 1,5 urteko baita txantxangorriaren batez besteko bizi-esperantza. Garrapoa, aitzitik, 2-3 urte bizi ditzake eta hainbat kasutan baita lau ere.

Txantxangorri lotsagabeak, niri begiratzeari laga eta lurrera egin salto. Mokoia orbel artean sartu eta zerbait heldu ondoren hegan urrutiratu zait. Ibiltzeari ekin diot berriz ere, neroni ere begiak lurretik kendu gabe.



■ Luis Mari Núñez

Juan Karlos Etxebeste, eliteko atleta beteranoa

Juan Karlos Etxebeste guztiontzat ezaguna da podologoia izateagatik. Hala ere, beste alderdi bat ere badu: orain dela zortzi urtetik hona beteranoen atletismo txapelketetan parte hartzen du, emaitza bikainak lortuz. Aipatu beharra dago, beteranoen maila behin 35 urte betetzean lortzen dela eta hauen taldekatzea bost urteka egiten dela. Juan Karlosek betidanik egin izan du kirola, baina azken urteotan Gipuzkoa, Euskadi eta Espainia mailako txapelketetan parte hartzen du, lehenengo bietan gainera, beti podiumera igota.

Zu betidanik aritu izan zara atletismoan, ezta?

Bai. 16-19 urte nituenean Tolosako klubarekin lehiatzen nuen atletismoan. Orain beteranoen taldean aritzen naiz. Ni Anoetan jaio nintzen, Udaletxe zaharrean. Ama andereñoa zen eta aita praktikantea eta han jaio ginen. Trena hartu eta Tolosara joaten ginen entrenatzera. Nire anaia Fernando ere atleta zen, 400 metrotan ibiltzen zen eta ni 100 eta 200 metrotan. Jubeniletan, juniorretan eta seniorretan ibili nintzen, 26 urterekin soldaduska egitera joan nintzen arte.

Soldaduskatik bueltatzean ez zenuen jarraitu?

Soldaduskatik bueltatu nintzenean kirola egiten jarraitu genuen baina gehiago mantentzeko. Bizikleta, igeriketa... egiten genuen.

Familian ez zegoen kirolaririk?

Ez, ez zuen inork kirola egiten, anaiak bakarrik.

Garai hartan txapelketaren bat lortu zenuen?

Bai, 1973an taldeka Gipuzkoako txapeldun izan ginen.

Oso giro ona egongo zen ezta?

Bai. Gainera Tolosa talde onenetarikoak zen. Orain talde handiek, Donostiakoek eta, probintziako gazteak hartzen dituzte eta zailagoa da. Gure taldean orain ere oso giro ona dago. Gaztetxoekin entrenatzen dugu gainera.

Noiz hasi zinen berriro atletismoan?

Orain dela zortzi urte, 47 urterekin. Entrenatzen hasiteak, berriro lehenengo erritmoa hartu behar nuela esan



Alkiza-Anoeta desafioan korrika. © Luis Mari Núñez

nahi zuen, horrek askotan lesioak, fibra hausturak, e.a. sortzea ekar dezake, adin horrekin korrika egitea abiadura oso handia delako hankentzako. Lesio hauek, hilabeterako entrenamendua galtzea ekar dezakete, honekin lehen lortutako erritmoa galduz eta hau berreskuratzea adin hauetan zaila izan daiteke. Adibidez, Donostian ospatu ziren Europako txapelketetan lesionatu nintzen.

Zenbat entrenatzen duzu?

Astelehenetik ostiralera entrenatzen dut, arratsaldero, eta txapelketak dauzkagunean larunbat batzuetan ere. Neguan normalean erresistentzia hartzeko ariketak egiten ditut aldapak, e.a. igotzen ditugu eta udan berriz, serie gehiago.

Nolatan hasi zinen berriro 47 urterekin?

Alaba Tolosa klubera hasi zen atletismoa egiten eta nik eramaten nuen entrenamenduetara. Eramateaz gainera ikustera geratzen zara, gogoratu egiten zara, gogoia sartu eta entrenatzen hasten zara. 2001ean, otsailean, Espainiako atletismo txapelketa ospatzen zen eta pentsatu nuen 'aurkeztu egingo naiz'. Jaime Legarra, nire entrenatzaile izandakoarekin kontaktatu nuen, eta berriro hasi nintzen. Txapelketa baino hila-bete lehenago fibrak puskatu nituen. Hamabost egun



Ehun metroko lasterketa baten irteeran.



Espainiako txapelketako podiumean.

Urte hauetako ibilbidea

Azken bederatzi urte hauetan Juan Karlosek honako emaitzak lortu ditu bere probetan:

Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketei dagokienez bai pista itxian (60m eta 200m) eta baita pista irekian ere (100m, 200m eta 400m) dominen bat irabazi ohi du. Espainiako txapelketei dagokienez lehenengo lau postuetan ibili ohi da.

Aipatzeko da, 48 urterekin Espainiako txapelketan Tarragonan bigarren izan zela 100m-tan.

Azken urte honetan emaitza oso onak lortzen ari da, pista estalian Zaragozan bigarren egin baitzuen 100m-tan eta hirugarren 200m-tan. Pista irekian ere emaitza onak lortu ditu Euskadiko txapelketan, bigarren egin baitu 400m-tan eta lehenengo 200m-tan.

deskantsatu nuen, beldur pixka batekin joan nintzen, baina laugarren geratu nintzen hainbeste urte entrenatu gabe egon eta gero. Emaitza hau ikusteak asko animatu ninduen atletismoan segitzeko.

Zer sentitzen da konpetitzen duzunean?

Urduri zaude, baina badakizu lehenago dena prestatu duzula. Ikusleak ez du zerikusirik, irteerako pistoletazoaren zain zaude eta ez zara konturatzen.

Eta podioan zaudenean?

Hunkigarria da. Familiakoak, lagunak... ikusten dituzu. Orduan bai ikusten dituzula ikusleak. Eta gainera, aurretik egindako lan horrek podiumera igotzean zerbaitetarako balio izan duela ohartzen zara.

Txapelketen artean deskantsatzen duzue?

Ez, entrenatzen jarraitzen dugu. Baina txapelketa baten aurretik 2-3 egun deskantsatzen ditugu.

Atletismotik aparte beste kirolik egiten duzu?

Askok gustatu izan zait bizikleta. Lehenengo Ciudad de Irun triatlotion atera nintzen, Zeberio abizeneko batekin. Bizikleta proba bikoteka egin behar da, aurreko proban lehenengo iristen denak itxaron egin behar dio besteari. Oso gogorra izan zen eta ez dut triatloi gehiago egin. Askok entrenatu behar da. Orduan aurrera bizikleta gehiago egin nuen, karreteran, orduan lasai egin zitekeelako. Udaran lanera bizikle-

tan joateko aprobeztatzen nuen eta bueltakoan, 50 kilometro inguruko ibilbidea egiten nuen etxera bueltatu aurretik: Usurbil-Oriola joan eta Andazarratetik bueltatu. Hala ere, korrika izan da gehien landu dudana kirola, urtero ahalegintzen nintzen Behobia-San Sebastian lasterketan parte hartzen. Lasterketa honetan hamahiru urtez segidan parte hartu dut.

Entrenamendu normaletatik aparte beste zerbait egiten duzu?

Denboraldi aurretik pesak egiten ditugu eta, gero, denboraldian, pesak uzten ditugu pixkanaka muskuluek indarra hartzeko eta errekupeazio gutxiago behar izateko.

Txapelketetarako irteerak nork ordaintzen ditu?

Bakoitzak bere bidaia ordaintzen du. Tolosako klubak eta Ezquerro etxeak jantziak ematen dizkigute. Gero, Diputazioak Atletia Beteranoen Elkartearen gaudenez kantitate bat ematen digu, denon artean banatzeko. 200 bat gara eta 10-20 euro tokatzen zaio bakoitzari.

Zeintzuk dira zure taldekideak?

Jose Luis Gonzalez, jabalina eta diskoa egiten duena, Joseba Ezquerro, 100 eta 200 metroak, Jose Antonio Sobrino eta aipamen berezia egingo nioke Armando Rocari, 76 urterekin gazte baten moduan jarraitzen baitu korrika. Talde hau joaten gara Espainiako txapelketara.



Juan Karlos Etxebeste, eliteko atleta beteranoa

Oinentzako kontseiluak

Hona hemen hanken zainketa egoki baterako oinarrizko kontseilu batzuk

1.- Garbiketa

Oinen garbiketa egoki bat beharrezkoa da. Horretarako egunero xaboi neutro batez garbituz. Ura epela erabili behar da eta denboraz ez da hamabost minutu baino gehiago behar, bestela oina biguntzeko arriskua baitago. Hankak oso nekatuak badaude, egokia izango da urari gatza botatzea oina erlaxatzeko. Ondo lehortzea ere garrantzitsua da toaila suabe batekin, behatz tartek bereziki. Hau ez bada ondo egiten ondoak atera daitezke eta.

2.- Izerdia

Oin askoren arazoetako bat izerdia izan ohi da. Hau konpontzeko egokiena behin hanka garbitu ondoren gomendagarria da spray edo hauts antitranspiranteak erabiltzea. Hala ere, arazo berdinarekin jarraitu ezke- ro podologoarena joatea da gomendagarriena.

3.- Oinetakoak

Naturalena oinetakoa gure oinera egokitzea da eta ez gure oina oinetakora, horrela beti oinaren morfologia kontuan hartuz (bai zabalera eta baita altueran ere). Beti aholkatzen dugu larruzkoak izatea, azalaren pare-koena delako. Horrek izerditzea, e.a. eragozten du, micosis, babak eta antzeko arazoak ekar ditzaketenak. Kirola egiteko orduan ez dago kirol oinetakoak baino erabiltzeko erremediorik, baina bakarrik kirola egite-ko, izerditzea eragiten duelako, e.a. eta arazo asko ekar ditzakete.

4.- Zenbakiak

Oinetakoak bakoitzaren zenbakikoak izan behar dute, ez handiagoak ez txikiagoak. Kirola egitean, batez ere, hankak asko mugitzen dira eta oso ondo lotuta egon behar dira, azkazalak belztu ez daitezten eta babak ez ateratzeko. Galtzerdia ere beti kotoizkoa izan behar da, oinen transpirazioa uzten duelako.

5.- Plantillak

Pertsona bakoitzarentzako egindakoak izan behar dira. Lehenengo momentutik hasi behar da begiratzen ea haurrak plantillak behar dituen: hasieratik erortzen bada, nekatzen bada... itxaron gabe zuzentzen hasi behar da txikitatik.

6.- Azkazalak

Ondo moztea garrantzitsua da. Zuzen moztu behar dira, ez luzeegi ezta motxegi ere. Hau ez bada horrela egiten azkazalen puntak haragian sartzeko arriskua egongo baita. Oina beti oinetakoen barruan dago eta haragiko kanalean sartu eta min egin dezakete ibiltzean egiten den presioagatik. Haurrei txikitatik erakutsi behar zaie bai azkazalak mozten baita hanken garbitasuna mantentzen.

7.- Takoia

Oinetakoek 2 eta 4 zentimetro arteko takoia eduki behar dute bestela, gehiago baldin bada, oinaren aurre- aldea kargatzen baita eta honek arazoak sor ditzake: behatzen deformazioak sortuz (juaneteak...). Mokasin antzekoak oso politak dira baina denborarekin ez dute ondo eusten, handitzen doaz, eta hanka airean gel- ditzten da.

Kailuak eta gortasunak izanez gero, ez erabili edozer gauza hauek kentzeko. Egokiena podologoarengana joatea da.



Kepa Fernandez de Larrinoa, lurralde indigenei begira

Kepa Fernandez de Larrinoa alkizarrak bere azken liburua argitaratu du urte honetan, 'Pueblos indígenas, paisajes culturales y protección de la naturaleza' izenekoa. Liburua herri indigenei eta beren lurraldeen garapenari buruzkoa da. Kepak kapituluetako bat idatzi du, iparrameriketako inuitei buruzkoa, baita sarrera eta azken hausnarketa. Beste kapituluak Thomas Widlock Pablo Domínguez eta Sanae Hamm-ek idatzi dituzte.

«Liburu hau naturan dudan interesagatik argitaratu dut, horregaitik ere bizi naiz Alkizan», dio Kepak. Aurrekoa ere, 'Dones del lugar', gai berari buruzkoa zen, baina Alkizako ikuspegitik begiratuta: nola aldatzen da paisaia, tradiziozko lanen eragina, industriaren inpaktua, e.a. «Oraingoan herrialde indigenak dira protagonista. Borobilduz, liburua ekosistema naturalei buruzkoa da eta nola egokitzen diren bertakoak hango bizimodura», azaltzen du.

Berak lantzen duen kapituluak adibidez, inuitek 70. hamarkadatik jasan duten egoera agertzen da. «Inuitak Alaska (Estatu Batuak) eta Canada arteko lur eremu batean bizi dira. Bi gobernuek meatzaritzaren inguruko industria bultzatu nahi zuten baina inuitek etor zitekeena ikusita protestak antolatu zituzten eta lurralde bezala errekonozitzea lortu zuten. 'Gu urteetan bizi izan gara hemen eta lurraldea ez da degradatu. Zuen ekosistema mota jartzen badugu ez du horrela jarraituko, beraz, dagoen bezala mantendu nahi baduzue eman guri lurraldearen gestioa'. Hori da eskatzen zutena». Beste ataletan antzeko arazoak lantzen dira, baina munduko toki ezberdinetan kokatuak: Afrikako Atlas Altuan, Namibiako desertuan, e.a. Gauza erraza badirudi ere, ekosistemak aldatu gabe mantentzea, beti ezagutu ditugun moduan, ez da gauza sinplea. Gure inguruan ere badira horrelako adibideak zailtasuna erakusten dutenak. «Ingurua ezagutzen dugun bezala mantendu nahi dugu baina horrek industriarik ia ez egotea eragiten du. Hemen nekazaritzarekin gertatu den bezala: oso eragin gutxi izan dute paisaian», baina industriarik ez da garatu, azaltzen du Kepa Fernandez de Larrinoak.

Liburuko adibide gehienetan konponbidea ekosistema naturalak sortu eta bertako herritarrei gestionatzen uztea izan da. Hemen inguruan ere horrelako



Kepa, Zuri Ollo bere lankidearekin, liburuaren aurkezpenean, Nafarroako Unibertsitatean.

© Luis Mari Nuñez

adibideak baditugu: Aralarako edota Pagoetako parke naturalak. Hala ere, hemen eman zaie zentzua beste bat izan da eta ondorioak ere ezberdinak izan dira. Keparen esanetan, «egia da gero eta parke natural gehiago daudela baina gehienak astialdirako ekintzertara begira pentsatuta daude eta ez tradizioz bertan egin dena mantentzera. Gainera, bertako erabiltzaileei esan izan zaie ezin dutela lur hori erabili erosiionatu, gastatu egiten dutelako eta gertaera arraroak gertatzen dira: mendi ibilaldi bat pasa daiteke bertatik, lurra berdin gastatzen duena, baina arazoak jartzen dituzte abereak bertan egoteko beti egon diren moduan».



■ Aitor Sorarrain eta Imanol Lizardi

“Arre Felipe, bate beldurripen”

Antton Sorarrain: asto lasterketetan maisu

Azken urteotan ez du hutsik egiten Asto lasterketak Alkizako jaietako egitarauan. Arrakasta handia duen ekimena da, jenderen oso gogokoa. Baina jakin, ondo dakigu ohitura zahar hori berreskuratu berria dugula herrian. 2006 urtean, denbora luzez egin gabe igaro ondoren, hasi ziren berriro lasterketak antolatzen. Unai Sorarrainek jakinarazi digunez, afa-loste batean egindako apustu bat izan omen zen asto karrerak berriz antolatzen hastearren arrazoi nagusia; Migel Angel Ugartemendiak eta Andoni Rotetaren artean eginiko apustua, alegia. Migel Angel berak baieztatu digu hala izan zela, baina entrenatzen ari zela erori, eta ezin izan zuela berak parte hartu. Orduan antolatzaileek erabaki zuten Andoni bera eta prest zeuden gazte batzuen artean egitea. Horrela egin zuten, eta urte hartako irabazlea Aritz San Sebastian izan zen.

Guk denboran atzerago egin nahi izan dugu, eta Antton Sorarrain handiarekin egin dugu topo. Handia diogu, 1975-1990 urteen artean Alkizako ingurueta-ko asto lasterketa ia guztien irabazlea bera izan bai-tzen. Urrunago ere iritsi zen Anttonen ospea, eta Donostiako Aieten ere irabazitakoa da.

Gogo handiz hartu gaitu, solaserako prest, eta hara hemen berarekin izandako elkarrizketa.

Esaguzu Antton lehenik eta behin, zer zen astoa zuen-tzat?

Zalantzarik gabe, lanean aritzeko laguntzaile aparta. Guk astoa lanerako genuen, arbiak ekartzeko, bazte-rrak garbitzeko, simaurra zabalitzen ere erabiltzen genuen. Kontuan izan behar duzue idiak-edo sartzen ez ziren lekuetan sartzeko, astoa oso egokia zela. Hori bai, egoskorra bera bezalakoa.

Beraz, lanerako zenuten asto bera zen lasterketetan ibil-tzen zenuena, ezta?

Bai, bai, hala da. Ni oso zalea nintzen, afizio handia nuen, eta oso gustura aritzen nintzen.

Eta etxeko norbait gehiago ibiltzen al zen?

Lanean bai, jakina. Baina lasterketetan ni bakarrik ibil-tzen nintzen

Gogoratzen al zara astoarekin? Bat al zenuten, edo bat baino gehiago?

Lasterketetan ibiltzen nintzen garaian, batekin ibiltzen nintzen. Gure aitak Felipe deitzen zion. Oso ona zen, otzana. Ez zen batere ostikalaria. Badakizue, gure aita zenak afizioa zuela bertsotarako eta horrela esaten zuten: “Arre Felipe bate beldurripen”

Beste kontu bat Antton. Entrenatzen al zinen batere?

Jakina. Areta baserriaren azpian genuen Gibebe ize-neko lursaila. Han ahuntzak izaten genituen, eta badakizue, haiek lekuz aldatzera joan behar izaten da, eta ni astoaren gainean joaten nintzen. Gogoan dut astoaren gainetik jaitsi gabe aldatzen nituela ahun-tzak lekuz. Hori zen nire entrenamendua. Iribiti base-riaren inguruetara ere joaten nintzen.

Zein urteetan gertatu zen hau guztia?

Esango nuke 1975 urtearen inguruan hasi nintzela lasterketetan. Eta azken lasterketa uste dut 1990 urtean izan zela.

Eta zenbat lasterketa irabazi zenituen?

Ez da harrokeria, baina esan behar dut parte hartzen nuen ia guztietan irabaztea lortzen nuela. Nik uste dut gehientsuenak irabazi nituela. Urtean bizpahiru izaten ziren.

Eta sariak? Nolako sariak izaten zenituzten?

Orduan kopak banatzen ziren. Ez zegoen orain dago-en urdaiazpikoak eta horrelakoak emateko ohiturarik. Kopa mordoxka bat lortu nuen han eta hemen.

Alkizatik kanpo ere ibiltzen zinen beraz, ezta?

Bai, hala da. Gogoan dut Zizurkildik deitu egin zidate-la, eta eskatzen ziguten beste asto pare bat-edo era-mateko. Etxabeko Juanen kamioian eramaten geni-tuen

Orduan ere, oraingo moduan, mozorrotzen al zineten?

Ez, ezta pentsatu ere. Orduan astoari garrantzi han-diagoa ematen zitzaion. Mozorroaren kontu hori nire-tzat berria da. Niri ez zait gustatzen.



Aitor –anaia gaztea–, Felipe astoa eta Anttonek irabazitako kopa batzuk.

© Antonio Sorarrain

Behar al zuen astoak zainketa berezirik?

Ez. Gogoan dut nola nik kapritxoaz lau oinetan jartzen nizkion lasterketa egunean zapi batzuk apaintzeko, zaldi lasterketetan egiten duten moduan. Begiak babesteko bai, tapaki moduko batzuk jartzen nizkion, alboetara begiratzeko aukerarik ez izateko.

Eta Alkizan, zer?

Nik betidanik gogoratzen ditut asto lasterketak. Nire lehen partaidetzaren urtea ez dut zehazki gogoratzen, baina 70 hamarkadaren erdialdera zela esango nuke oker handirik egiteko arriskurik gabe. Hemen bai. Hemen beti nik irabazten nuen, gogoan dudala behintzat. Ez dut uste inork hau irakurritakoan kontrakorik esango duenik. Lasai jarri, horrela baitzen.

Zeintzuk zenituen aurkariak Alkizan?

Ez ditut denak gogoratzen, baina Lutxo eta Riki Alfonso tartean ziren behintzat. Elizegiko Ramon eta Juan-txo ere bai. Jexux berak ere hartu izan zuen parte noiz edo noiz. Halere, Ramon zen ateratzeko ohitura handiena zuena. Horiek Maitegiko astoa zuten gustukoen, eta harekin ibiltzen ziren. Gogoratzen naiz nola 1984 urtean Riki, Lutxo eta beste batzuekin Aietera joan ginen lasterketa batera. Han ere nik irabazi nuen.


Zer iruditzen zaizu ohitura berreskuratu izana Alkizan?

Niri oso ondo iruditzen zait berriro ere asto lasterketak egitea. Lehen aipatu dizuedan moduan, gustatzen ez zaidana da mozorroak direla-eta, kontu honek hartu duen norabidea. Lasterketak egiteko lehengo modua egokiagoa iruditzen zait. Bene-benetan esaten dizuet: azken urteetakoa ez dut gogoko.



Antton, Felipe astoarekin. Goian, Zizurkilgo lasterketa irabazi ondoren.

© Antonio Sorarrain



Horregatik al da parte hartzen ez duzula?

Ez. Egia esaten badizuet alabek ez didate uzten. Ez dakit nola esan. Nire gaixotasuna dela-eta, ez dute gogoko nik horrelako gauzetan parte hartzerik. Ikas-tolan ere, gurasoen jokoetan ez didate parte hartzen uzten.

Baina argazkiak ikusiko dituzte, ezta?

Bai, bai, harrituta gelditzen dira. Gazteagoa nintzen, hogeitau urte gazteagoa. Badut gaztetako bideo bat eta txundituta gelditzen dira.

Eta bukatzeko Antton, nahi al diozu elkarrizketa honi zerbait erantsi?

Berriro esango dut. Gaur egungo lasterketak egiteko modua ez zait gustatzen. Inoiz asto baten gainean ibili ez direnak ateratzen dira orain, eta hori egokia ez izateaz gain, arriskutsua ere bada. Iruditzen zait asto karreretan ateratzen denak lehendik ibilia behar duela izan. Lasterketen ohitura zahar honek jarrai dezan, garrantzia eman beharko genieke kontu horiei. Eta, jakina, garrantzia eman astoari.

Mila esker Antton, zure jakinduriaren atea, eta zerbait gehiago ere zabaldu diguzulako. Ziur gara batek baino gehiagok kontuan izango dituela zure hitzak.



■ Imanol Lizardi

Alkizar guztiek kirola egin dezaten da gure helburua Alkizako kirol batzordea sortu da

Bat baino gehiago gogoratuko da Juantxo Villarrealen izena eta izanarekin. Bidasoa eskubaloit talde handiarekin garaipen garrantzitsu asko lortu zituen entrenatzaile gisa. Zer ikusia du Villarrealak Alkizako Kirol batzordearekin?, galdetuko duzue batek baino gehiagok. Hain zuzen ere, bera da neurri batean behintzat, talde hau sortu izanaren arduradun. Foru Aldundian ari da lanean kirol sustatzaile eta teknikari moduan. Iazko udazkenean etorri zen Alkizara (Gipuzkoako herri txiki askorekin egin zuen bezalaxe), eta Kirol Patronatuak sortzearen beharraz eta egokitasunaz aritu zen. Udalak berehala ekin zion lanari, eta bost lagunez osatutako taldea sortu zen. Honako hauek dira, egun, partaideak: Guraso Elkartearen ordezkari gisa Gorka Goikoetxea, Alkizako Pilota Taldearen ordezkaria Aitor Sorarrain da; Gazteen ordezkari gisa Julen Sorarrain ari da, Udaleko arduraduna, berriz, Ainara Zurutuza da, eta azkenik, kirol teknikari eta sustatzaile moduan, Balduino Alfonso.

Euren ahotik eduki nahi izan dugu batzorde honen berri, zergatik, zertarako, nola, norentzat, eta beste hainbat eta hainbat zalantzari argibidea ematearren.

Lehenik eta behin, egia al da sarreran esan duguna?

Bai, baina neurri batean bakarrik. Hasieran diru laguntza handiak izango zirela zirudien, baina egia da ez dugula oraindik dirurik ikusi. Krisia omen da horren errudun. Materiala ere espero genuen, baina ez zaigu ezer ere etorri. Bi mila euro inguru genituela izendatuta entzun genuen, baina mozketak direla-eta, esaten dizugu, ezer gabe geratu gara.

Zein da orduan gaur egun duzuen finantziario bidea?

Zalantzarik gabe, nagusia Udala da. Udala eta ekintza puntaletarako ditugun babesle edo patrozinadoreak. Gehienbat herritarrak dira, edo herriarekin zerikusia dutenak. Bide berriak aztertzen hasiak gara: zozketaren bat edo beste egitea, eta horrelako kontuak.

Beraz, Foru Aldundiaren erantzuna eskasa izan dela esan dezakegu?

Egia da euren ekimenak balio izan duela Batzorde hau martxan jartzeko. Hori bai eskertu behar diegula. Baina baita egia da ere, hortik aurrera zain gaudela oraindik, ez baitzaigu ezer ere iritsi.



Kirol batzordea osatzen duen boskotea. © Imanol Lizardi

Beste kontu bat. Zeintzuk dira zuen asmoak. Zer egin nahi duzue?

Lehenik eta behin, lehenik egiten ziren ekimenei jarraipena eman, hau da, San Isidroan jarraitu lanean, Herriko jaietan ere bai, San Martinetako gupil lasterketa ere antolatzen jarraitu... Txirrindularitza arloan zerbait berria egiteko asmoa dugu, eta ideia horren inguruan bueltaka gabiltza.

Eta bestelakorik?

Pilota txapelketekin ere jarraituko dugu jakina. Hala ere, nahi duguna da Alkizako jendea kirola egitera bultzatu. Hori uste dugu hitz eginez, ahoz aho lor dezakegula, zuzenean hitz eginez. Paperak jartzeak askotan ezer gutxirako balio du. Bestalde, esan nahi dugu baita ere, ideia berriak jasotzeko gogo bizia dugula, erabat irekiak gaude, entzun eta interesgarri izan daitezkeen edozein ekarpen gauzatzeko.



San Martinetako gurpil lasterketa. © Unai Sorarrain

Zeintzuk dira Batzorde moduan orain artean antolatu dituzuen ekintzak?

Iazko San Martinetako Gurpil lasterketa izan zen batzorde gisa antolatu genuen lehen ekintza. Abenduaren 31n, San Silvestre lasterketa ere egin genuen. San Isidrotako Frontenis txapelketa, Mendi martxa eta Haurrentzako gurpil lasterketa ere, guk antolatu genituen. Baita Mus txapelketa ere, baina ez dakigu hori kirol gisa har daitekeen, Karl, kar!, kar!

Aipa itzazue mesedez zuen lan honetan topatu dituzuen zailtasun handienak?

Jendea mugitzea. Jendearen parte hartzea. Egia da herri guztietan antolatzaileak bizpahiru izaten direla, eta hori normalizat jo behar da. Frontenis txapelketa-ko partaidetzarekin, berriz, oso-oso gustura gaude. Bai gizonezkoen, baita emakumezkoen erantzuna ikaragarri ona izan da. Oso pozik gaude.

Zer iruditzen zaizue, Alkizan kirola gutxi praktikatzen dela?

Bakoitzak bere aldetik, jendeak egiten du kirola. Mendian jende asko ibiltzen da, baita txirringan ere. Agian taldekako parte hartzea handiagoa izan zitekeen. Halere, antolatzen diren ekintzetan dugun erantzunarekin ezin gaitezke kexu izan.

Gazteei begira, ba al duzue egitasmo berezirik?

Txikiekin hasi gara zerbait egiten. Gaztetxoagoekin

(12-16 urte) zailagoa da, herri honetan talde hori oso txikia delako. Gazteekin, berriz (17 urtetik gora) Alkizan zerbait harrigarria gertatzen zaigu. Ohikoa da mutilen parte hartzea neskena baino handiagoa izatea. Hemen alderantziz gertatzen dela esan genezake. Bai, hori azpimarragarria da.

Eta zuen lana egin ahal izateko zeintzuk dira nabarmen-tzen dituzuen hutsuneak?

Zalantzarik gabe, nabarmenena instalazio falta da. Dugun azpiegitura bakarra frontoia da, eta benetan bere egoera penagarria da. Fronteniseko finalean den-denak frontoiaren barnean zeuden, ezin baitzen bestela. Ikustekoa da zein egoeratan dagoen. Udalak azken urteetan erabat utzia dauka. Ulertzen dugu dirurik ez dagoela. Ulertzen ez duguna da beste arlo batzuetan ez dela murrizketarik ikusten.

Oso ondo. Eta bukatzeko zer? Zein da herritarrei bidali nahi diezuen mezua?

Orain arte parte hartzen duten herritarrei eskatuko genieke jarrai dezatela parte hartzen, asko eskertzen baitiegu duten jarrera. Besteei, berriz, esango genieke etortzeko, parte hartzeko, ea guztien artean lortzen dugun ondo pasatzea. Eta lehen esan dugun moduan, norbaitek ideia aldetik ekarpenik balu, mesedez lasai hurbil dadila guregana. Harrera beroa egingo diogu eta benetan asko eskertuko diogu ahalegina. Eta azkenik: AUPA ALKIZA!!



■ Uxue Etxebeste



Tomax gitarra jotzen bertso afarian. © Xabier Artola

Tomax musikaria

Aurtengo festak ate joka ditugu eta badugu gure artean Alkizako festak girotuko dituen gazte bat, Tomax Lizardi, alegia. Itxuraz lasaia dirudien arren, ez da geldirik egotekoa. Txikitan dinosauru eta komiki zale amorratua zen. Gaur egun, ordea, baditu beste zenbait zaletasun, hauetan aipagarriena musikarena da, hiru taldeetan jotzen baitu.

Nondik dator musikarekiko zure zaletasuna?

Txikitatik dut zaletasuna. Hamar urterekin Billabonako musika eskolan hasi nintzen Uxue eta Mikelekin. Gustua hartu nion, ondo moldatzen nintzen eta.

Ze instrumentu jotzen duzu?

Gitarra, baxua, mandolina eta txirula, noski!

Gustuko taldeak?

Niretzat hoberena Berri Txarrak da, bestela denetik entzuten dut, boladak izaten ditut. Bakarlariak baino, taldeko musika nahiago dut, elektronika musika estiloa da gutxien gustatzen zaidana.

Noiz hasi zinen ikasten eta zergatik aukeratu zenuen instrumentu hori?

Seigarren mailan hasi nintzen hamabi urterekin gitarra jotzen, instrumentu bat aukeratu behar genuen eta. Hasieran saxofoia jo nahi nuen, nire lehengusinak bezala. Ondoren, biolina eta gero pianoa. Oso garestiak ziren eta etxean gitarra bat genuenez, gurasoek esan zidaten harekin hasteko, eta geroago hasiko nintzela beste instrumentu batekin nahi banuen, baina azkenean gitarra gustatu zitzaidan.



Iruditzen al zaizu edonork ikas dezakeela instrumentu bat jotzen? Ez al da belarri ona behar?

Dena landuz lortzen da, praktikarekin eta ahaleginduz, alegia. Hala ere, garrantzitsuena edozein instrumentu jotzen ikasterakoan, ikasteko gogoia dela iruditzen zait. Baina, berezko dohaina izanez gero emaitzak errazago lortzen dira.

Zein taldeetan jotzen duzue? Eta taldeen ezaugarriak?

Oinkari dantza taldean, 3gabe2 taldean baxua jotzen dut. Kantuki berbena taldean gitarra jo eta batzuetan kantatu ere egiten dut. Oinkari, Billabonako euskal dantzen taldea da, herrietan jardunaldi ezberdinak egiteko deitzen digute. Gainera, Euskal Herritik kanpora ere ibili gara Oinkarirekin, udan adibidez Frantziara goaz. 3gabe2 berbena rockeroa deitzen diogu eta bertan bertsio ezagunak egiten ditugu, bai kanta euskaldunak (Berri Txarrak, Lau Teilatu, Maixa eta Ixiar,...) eta baita kanpokoenak (Ramonés...) ere. Kantuki berriz, berbena tradizionalagoa da, gehien bat euskal kanten bertsioak (Ken7, Gozategi,...) egiten ditugu, berezitasun bezala esan zortzi musika tresna ezberdin daudela taldean.

Nolatan hasi zinen talde hauetan jotzen?

Oinkarin Loatzo musika eskolaren bidez. 3gabe2 taldean ordezkoa bezala sartu nintzen eta ondoren baxu joleak utzi eta ni hartu ninduten. Kantuki Oinkaritik sortu zen Murtziara eginiko bidaia batean.

Kontzertu asko eman al dituzue?

3gabe2rekin hogeita hamar inguru, 2006an sorturiko taldea baita eta Kantukirekin gutxiago lehengo urtean sortu baitzen, hamar kontzertu inguru eman ditugu. Hala ere, udan kontzertu ugari ditugu bi taldeekin.

Kontzertuak nola lortzen dituzue?

Hasieran, eskatu egiten dira kontzertuak kontaktuen bitartez. Ondoren, jendeari gustatzen bazaio dei batzuk jaso eta horrelaxe ibiltzen gara alde batetik bestera autoa kargatuta.

Zer ematen dizuzte kontzertuen truke?

3gabe2n beti ematen digute afaria eta garraioa eta tarteka dirua ere bai. Kantukin ekipoa dela-eta, dirua eskatzen dugu.

Ikasketak, lagunartean ibili, neskalaguna eta lana. Non-dik ateratzen duzue denbora?

Ahal den lekutik, batzuetan leku batetik kentzen dut eta beste batzuetan beste batetik.

Alkizan jotzeak zer suposatzen du zuretzat?

Etxean jotzea, era berean lehenengo kontzertua hemen ematea oso polita da, oso familiarra. Gainera



Tomax 3gabe2 taldearekin.

Tomaxen taldeak

Talde hauen inguruko informazioa honako web-guneetan bila daiteke:

www.myspace.com/kantukiberbenataldea

www.myspace.com/3gabe2

www.oinkari.net

ikusleek asko laguntzen digute kontzertuak aurrera ateratzeko garaian, eeh Yuyu?

Ez al da gehiegiti izango zure herriko festetan bi kontzertu egitea? Parrandarako denborarik izango al duzue?

Aah! ni parrandan egongo naiz hor gainean nagoen-an, besteekin batera, eszenario gainean oso ondo pasatzen baitut.

Zer sentitzen duzue eszenario baten gainean zaudenean?

Talde lan baten emaitza dela sentitzen dut. Esan beharra daukat oso gustura sentitzen naizela eszenarioaren gainean bai taldekideekin, bai ni neurekin eta baita ikusleekin ere. Ikusle eta taldekideen interakzio hori oso polita da, harreman estua sortzen baita.

Gaur egun ze musika talde entzuten da festetan gehien?

Herriko festetan berbenak indar handia du, baina berbena taldeek jendea girotzen jakin behar dute. Tabernetan ordea, indar handiagoa dute modako musikek.

Anekdotaren bat kontatzeko?

Askotan ezusteko ugari pasa zaizkigu kontzertutan. Adibidez, Zumaian argia joan eta ordu betez egon ginen ezin genuela jo. Beste batzuetan berriz, jende xelebre ugari igotzen zaigu eszenariora eta hauek jaitzaraztea ez da batere erraza egiten. Alkizako festetan ere urtero izaten dugu ezustekoren bat...



■ Jose Ramon Aranburu Arruti

Santiago bidea behor gainean

Pentsatzen dut beste herritarren batek ere bide hau egin duela, baina niri harrigarria iruditu zitzaidan "Garroko Andonik" egin zuen ibilaldia. Bera abenturazale amorratua da, noski gehienak bere zaldiarekin egiten ditu. Oraingoan zaldiz egin du Santiago bidea kosta aldetik. Egun batean berarekin topo egin eta bere asmoak kontatu zizkidan eta harrituta geratu nintzen. Horrela, elkar ikusten genuen bakoitzean galdetzen nion ea nola zihoan bere asmoa.

Bidaia egin ostean, berarekin solasean jarri, eta honako galdera hauek egin nizkion:

Nola eta noiz burutu zitzaizun honako ideia hau?

Duela 2 urte bazkaloste batean nire lagun Unairi esan nion: "¡Oye, tenemos que hacer el camino de Santiago a caballo! ¿Qué te parece? Vale, vale" erantzun zidan. Unai bera ere oso abenturazalea da eta ez zuen dudarik egin baiezkoa ematerakoan. Horrela hasi zen gure asmoaren antolaketa.

Zer moduz hartu zuten albistea etxekoek?

Oso ondo, asko babestu eta animatu gintuzten. Noiz irten zineten Santiago aldera? Uztailaren 23an abiatu ginen Igeldotik. Ni eta nire behorra "Argi" eta Unai bere behorra "Bikitxu"-rekin.

Zenbat egunetan egin zenuten bidaia?

20 egunetan egin genuen bidaia, 780 kilometro. Egunean 55 bat kilometro, hamar bat ordutan

Kontaiguzu nolakoa zen zuen eguneroko egitaraua

Seiak aldera jaiki, garbitu, freskatu, ura eta jana eman zaldiei, guk gosaldtu, denda bildu eta zazpiak aldera abiatzen ginen. Bost bat ordu egiten genituen jarraian, pixka bat deskantsatu eta bazkaldu ondoren berriz bidaiarekin jarraitzen genuen, iluntzeko zortziak aldera arte. Ondoren iritsitako herrian denda montatu, behorrei hankak begiratu, laztan batzuk egin, janaria eta ura eman. Gero guk afaldu eta deskantsatu egiten genuen hurrengo goizerarte. Normalean guk eramandako dendan egiten genuen lo. Gu iristerako, normalean albergeak beteta eta lekuri gabe egoten ziren, eta guztiak ez zeuden prestatuta animalientzat.

Gogorak izaten al ziren egunak?

Bai, oso gogorak. Kostako bidearen parte handiena asfaltozkoa da eta behorak ikaragarri sufritzen zuten; askotan jota bukatzen zuten.

Zeintzuk nekatzen ziren gehien, zuek edo behorak?

Denok nekatzen ginen asko, bai gu eta baita behorak ere, ordu asko dira eta bidea ez da egokiena honelako animalientzat.

Zein izan zen etaparik gogorrena?

Bilbotik Oviedoko probintzia pasa arteko etapak izan ziren, dena asfaltozko bidea zelako. Behin Lugoko probintzia pasa ondoren, askoz hobeto ibili ginen, bai gu eta baita behorak, handik bukaera arte dena pista bidea zelako.

Jende asko ezagutu al zenuten bidaian?

Bai, jende asko ezagutu genuen eta gehiena leiala eta oso jatorra, han denak berdinak direlako.

Eguraldia lagun izan al zenuten?

Bai, normalean egun onak izan genituen, baina egun bare batean euria egin zuen eta nahiko bustita ailegatu ginen gure helmugara, baina suertea izan genuen, albergeak bete gabe zeuden eta lekua izan genuen goxo-goxo lo egiteko, bai guk eta baita gure behorrek ere.

Nolakoa izan zen Santiagora iristeko momentua?

Oso, oso ona, ez dugu ahaztuko. Abuztuaren 14an ailegatu ginen Santiagora eta harrera ezin hobea izan genuen, familiarekin elkartu ginen berriro, 20 egun pasa eta gero beraingandik urrutit. Denok pozik eta oso zoriontsu, bidaia bukatu zelako eta berriro denok elkarrekin geundelako eta ondo.

Izan al zenuten anekdotarik?

Bai asko, gehienak onak, baina bakarren bat izan genuen txarra. Ez dakit zergatik, baina galdera hau egin didazunean anekdota txar bat etorri zait burura eta onak asko, baina txar hau askotan: Bilbotik gertu geundela, ijitu talde batek segitu egin gintuen atzetik,



Andoni eta Unai, Argi eta Bikitxu behorren gainean, Santiagon.

behorrak kendu nahian. Beraiei frente egitea erabaki genuen gure armak erakutsiz, atzera egin zuten eta pakean utzi gintuzten gure bidaia jarraitzen.

Nik beldur asko pasa nuen egun hartan; eskerrak gure katana eta ezpatari; bestela ez dakit nola bukatuko genuen; agian behorrik gabe.

Abentura hau egin ondoren, ze etortzen zaizu burura?

Abentura hau ikaragarria izan dela, ahaztu ezina, oso ona, baina baita ere oso gogorra. Momentuz ez genuke berriro horrelakorik egingo.

Hala ere beste abenturarik egiteko gogorik ba al duzue?

Bai, hurrengoa Transkantabriko Picos de Europatik, buelta egiteko gogoia dugu; dena mendiz mendi delako.

Animo bikote! Eta ea zer nolakoa den zuen hurrengo abentura.



Andoni, Argi behorren gainean.



■ Lorea Agirre

Xabier Artola: “Betidanik gustatu izan zait hizkuntzarekin jolastea”

Euskarazko itzulpenak egiteko edota euskarazko testuak zuzentzeko programa automatikoak egitea duelako lanbide, batetik, eta ipuinak idaztea gustuko duelako bestetik, Xabier Artola hizkuntzaren bueltan dabil egunero; jolasean, berak dioen legez. Lanbidez informatikaria da, eta literatura du afizio. Betitik idatzi izan badu ere, orain hamahiru bat urte hasi zen ipuinak osatzen, eta horrekin batera literatur sariak irabazten. Azkena berriki jaso du: Donostia Hiria saria, eta Alberdania argitaletxearen babesean libururata argitaratu du 'Deception island' ipuina. Lagunak Himalayan istripu larria izan duen neska bat du protagonista ipuinak. Orain artean idatzi dituen ipuin guztiak (azkena izan ezik) liburu bakarrean biltzeko asmotan dabil orain.

Literatura ez du, hala ere, afizio bakar: Alkizan nork ez du ikusi argazkiak egiten? Horrekin ere argitalpen bat du martxan: 80 bat argazkiko liburu bat kaleratuko du aurki, Ikilin, iaz egin zen txondorra gai hartuta. Beraz, aurrean hiru libururen bueltan dabil. Ez da marka txarra. Aitortu daitekeen beste afizio bat ere badu: bizikletan ibiltzea. Urtean 3.000 bat kilometro. Ez omen dira asko, “denbora mugatua baita dena fundamentuz egiteko”, Artolaren hitzetan.

Nondik nora informatikari bat literaturan?

Bai, badirudi beste mundu batean bizi garela. Beno, niri beti gustatu izan zait asko literatura, asko irakurri izan dut. Niretzako betitik idatzi dut, eta idazten dut, oharrak eta horrelakoak: koderno pila bat ditut hortik oharrez josita. Orain 12-13 urte idatzi nuen ipuin bat osoa lehen aldiz, hasieratik bukaerara, eta lehiaketa batera bidali nuen.

Ze izen zuen?

'Latitudea'. Eta sari bat irabazi zuen gainera, eta hortik animatu nintzen. Baina oso produkzio txikia daukat. Hamar bat ipuin 12-13 urtetan ez da asko.

Urtean bat gutxi gora behera?

Bai.

Eta, sariketa mordoxka bat irabazi duzu?

Bai.

Eta horrek zer sentsazio ematen dizu, ipuin bat idatzi eta saritua izan. Literaturaren sistematik kanpo egonda, sari-tekete laguntzen al dute?

Sistema horretan sartzeko modu bat da. Hasieran erabat inseguru sentitzen zara. Pentsatzen duzu idazten duzunak ez duela ezer balio. Eta orduan zer egingo duzu? Nik bide hori hartu nuen. Lehiaketa batera bidali, eta jende horrek esaten badu zer edo zer balio duela, ba aurrera.

Eta lehenengo ipuin hartatik hamar bat egitera iritsi zara. Ze bilakaera dago bide horretan? Ze gai tratatzen dituzu? Giza harremanak gehien bat, beharbada?

Bai, nik uste dut baietz. Ukitu ditut beste gai sozialago batzuk ere, baina batez ere nik uste dut harremanak daudela ipuin horietan guztietan. Eta bilakaera? Ba ez dakit. Ni saiatu naiz forma aldetik oso ipuin desberdinak egiten eta ia denak hala direla esango nuke. Narratzailea batzuetan lehen pertsona dago, bestetan bigarren pertsona, narratzaile orojakilearekin ere egin ditut. Ez dakit, oso egitura desberdinekoak dira. Uste dut gehiago izan dela estiloarekin esperimentatzea.

Eta gaiak nola aukeratzen dituzu? Nondik? Zergatik? Zerbait berezia esan nahi izaten duzu?

Nik uste dut beti esan nahi duzula zerbait. Gai batzuk bizitza pertsonaletik hartzen ditut eta beste batzuk kezkatzen nauten gaiak dira.

Literatura errealista egiten duzu, beraz.

Bai uste dut baietz. Errealista da, bai.

Esan duzu irakur zalea beti izan zarela. Nondik jan duzu? Zer gustatzen zaizu?

Euskal literatura bastante irakurtzen dut eta izenak, bada, betikoak: Koldo Izagirre bat asko gustatzen zait, eta Atxaga, eta Anjel Lertxundi. Kanpokoak ere irakurtzen ditut, baina hori bai, beti joaten naiz jakinaren gainean. Jendeak esaten badu 'El Código Davinci' oso ondo dagoela, ba ez naiz irakurtzera joango hamar urte pasa arte, seguru egon arte ona dela. Argi daukat ez dagoela denborarik dena irakurtzeko eta ondo aukeratu behar da. Erreferentziak hartzen ditut



© Lorea Agirre

handik eta hemendik, norbaitek komentatzen du ondo dagoela eta horrela joaten naiz. Ipuinak asko irakurtzen ditut: Hemingway bat, Iparramerikako batzuk ere asko gustatzen zaizkit, John Cheever, Raimond Carver eta horrelakoak. Nobelak gutxiago irakurtzen ditut, hemengoak kenduta. Ikusten duzu, pixka bat denetik.

Normalean zure ipuinetan zer zoaz historia bat hasi eta bukatzera, edo beste zerbait kontatzera, diot Carver aipatu duzulako, eta Carverrenak justu ez hasi ez buka, gehiago aldarte bat kontatzen duten ipuinak direlako.

Horiek irakurtzen ditut baina ez dut uste estilo horretakoa naizenik. Ipuin bakar bat dut agian gogora arazten duena horien estiloa. Normalean istorio bat dut buruan. Hasi nintzenean gehiago gainera, oso garbi neukan istorioa zein zen hasieratik bukaeraraino. Eta, igual, azkeneko hauetan hasiera bai eta bukaera ere bai, baina igual ez neukan hain garbi nondik joango zen istorioa. Azkeneko honetan harrিতuta geratu naiz,

batzuetan entzun izan diet idazleei esaten pertsonaiak eramaten zaituela eta nik ez nuen hori asko sinesten, lehen oso karratua nintzen alde horretatik, eta igual bai, igual egia da hori batzuetan gertatzen dela.

Noiz idazten duzu? Noski, lan orduetatik kanpo?

Desastre bat naiz horretan. Asteburuetan eta horrela. Batzuetan gauetz... Egia esan zerbaitekin nagoenean pixka bat obsesionatuta ibiltzen naiz eta denbora asko ematen diot. Baina gero pasa ditzaket lau edo bost hilabete ezer idatzi gabe; nire oharrez aparte, ordenagailuaren aurrean jarri gabe ezer idaztera. Alde horretatik ez naiz batere diziplinatua, nola esaten duten egunero idatzi behar dela, eta inspirazioak bat lanean harrapatzen duela eta hori dena? Alde horretatik desastre bat naiz, idazte kontuarekin behintzat, eta batez ere argazki digitalarekin hasi naizenetik desastre handiagoa, ze horrek bai kentzen didala denbora pila bat.



Lanean irakasle zara, informatika irakasle EHU. Pentsatzen dut ordu asko emango dituzula ordenagailu aurrean.

Denak.

Hala ere desberdina izango da lanerako ordenagailu aurrean jartzea edo literatura egiteko jartzea, ala?

Bai desberdina da. Ez dute harreman handirik. Lanean artikulatuak eta horrelakoak idazten ditut eta alde horretatik izan dezake harremana. Egia da niri asko gustatzen zaidala hizkuntzarekin jolastea, betidanik gustatu izan zait.

Eta hori zure lanaren parte ere bada?

Bai, idatzi egin behar izaten delako eta ikerkuntza alorrean ere hizkuntza kontuarekin aritzen naizelako.

Ixa ikerketa taldeko kide zara eta hor hizkuntzaren tratamendu automatikoan diharduzu. Zer da zehazki egiten duzuen?

Gauza asko sartzten dira hor. Ezagunena itzulpen automatikoa da. Hau da hizkuntza batetik bestera automatikoki itzuli ahal izateko programa informatikoa. Horretarako gauza asko egin behar da lehenago. Hizkuntza bakoitzean oinarrizko tresna batzuk behar dira. Xuxen bat (euskararen zuzentzaile automatikoa) posible baldin bada da zerbait dagoelako atzean, gurea bezalako hizkuntza batean ezin delako zuzendu hitz zerrenda baten kontra konparatuz, eta hor hizkuntzaren analisi morfologiko automatikoa eta horrelako gauzak egin behar dira.

Alegia, hizkuntza ondo ezagutu behar dela, oso sakone-tik.

Bai, hala da.

Eta horrek lagundu al dizu literatura egiteko garaian?

Igual bai. Gainera informatikan hasi aurretik euskara irakasle ibili nintzen Irale-n, bost urtez. Beti ibili naiz hizkuntzaren inguruan. Eta bai, hizkuntza bera hobeto ezagutzea bai ekarri didala.

Zure ipuinetan, gauza bat da istorioa, bestea estilo aniztasuna, hizkuntzari ze garrantzi ematen diozu?

Bai, garrantzi handia ematen diot. Batzuetan iruditzen zait gehiegizkoa eta dena, horrek lotu egiten nauela gauzak adierazteko garaian.

Nola da hori?

Ba, ez dakit, ez dut esango oso purista naizenik lexiko aldetik baina sintaxi aldetik beharbada bai. Adibidez, gaur egunean kokatutako istorio batean ez dugu hitz egiten dena zuzen, badakigu denok nola hitz egiten dugun, sintaxia erdarakadekin oso kutsatuta dago eta hori ipuinetan ez da geri. Alde horretatik begiratuta

beharbada ondoegi idazten saiatzen naiz eta horrek freskotasan pixka bat galdu arazten dit.

Azkenengoa hitanoz idatzi duzu.

Oso istorio intimista da eta protagonista emakume bat da. Bere barne ahotsa da narratzailea eta pentsatu nuen bigarren pertsona horretan idaztea, barne ahots horrek bere buruari hitz egingo balio bezala, eta iruditu zitzaidan hika hitz egitea zela hurbilena.

Ipuina publikatu dizute, oraingoan argitaletxe ezagun batean eta horrek beste zabalkunde bat eta beste bisibilitate bat eman dizu. Nola bizi izan duzu hori?

Bai, hau argitaletxe normal batek argitaratu du eta liburu normal modura ipuin bakarrarekin. Ondo sentitu naiz. Sentsazio berri bat izan da. Beste sari bat da ipuina liburu bihurtuta ikustea. Eta kezka pixka bat ere bai, gehiago zabalduko delako. Oraintxe hasi naiz prentsako kritikak irakurtzen eta beste mundu bat da. Beste dimensio bat hartzen du denak.

Sariketako argitalpenak oso bazterrean geratzen dira udaletxe edo erakunde batek ateratzen dituen.

Bai, hala da. Lehiaketetan normalean bilduma moduan argitaratzen dituzte eta gainera erakunde antolatzaileek, eta desberdina da oso. Tene mujika irabazi nuenean ez nuen ikusi kirtika bat bera; ez zitzaidan gertatu "aizu hau irakurri dut ez dakit non erosit" entzutea. Gainera gure artean jendeak ez du asko esaten. Euskaldunak horretarako uste dut bereziak garela, ez txalo egiteko eta ez kontrakoa egiteko, ixilik gelditzen gara. Ez bazaio gustatu ez zaiolako gustatu, eta gustatu bazaio gustatu zaiolako...

Zure ipuinen bilduma bat aterako duzu orain, ez al da hala?

Esan banuen esan nuen! Orain dela zazpi urte, Tene Mujika irabazi nuenean, Elkar argitaletxeko Xabier Mendigurenek esan zidan bidaltzeko nuena. Eta ez nuen ezer egin. Orain aukera berriro sortu da, baina aurretik egin egin behar dut.

Egin zer?

Ipuin denak gainbegiratu: ez zaizkit batere agustatzen orain. Hasten naiz irakurtzen eta pentsatzen dut "baina zer da hau?" Ez ditut gehiegi ukituko halere, bestela ez dut sekula egingo. Baina bai, piska bat ukitu behar ditut, hizkuntza aldetik orraztu eta horrela. Astesantuan aritu naiz horretan; lauzpabost begiratu ditut, eta bete bizpahiru geratzen zaizkit.

Aurten aterako da, beraz?

Ez dakit. Ea bukatzen dudana. Ze orain zazpi urte ere esan nuen baietz, inprimatu nituen eta han gelditu ziren hautsa biltzen, ez nituen irakurri ere egin.



Eta beste liburu bat ere baduzu argia ikustear, argazki liburu bat hain zuzen.

Bai, horretan ari gara.

Zertan da proiektu hori?

Herriko proiektuetan argazkiak egiten ibili naizenez, okurritu zitzaidan niretzako bilduma bat egitea. Orain, badakizu, argazkiak ordenagailuan geratzen dira, eta hori pixka bat absurdoa da ze ez dituzu ikusten. Lehen ere ez nituen inprimatzen, diapositibak egiten nituelako, baina gutxienez batzuetan ikusten zenituen proiektatuta. Ordengailuarekin ere egin dezakezu gauza bera, baina hainbeste argazki pilatzen dira orain sistema digitalarekin... Hori dela eta bilduma bat egin nuen eta bilera batera ekarri; jendeari asko gustatu zitzaion eta udaletxean aurkeztu eta kopia batzuk egin behar zirela erabaki zen, honek eta hark nahi zuela, eta hasi ginen pentsatzen kopia horiek egiteko gastatu behar zen dirua kanpora bidali beharrean igual hemen inprimatzeko aukera bazegoela. Eta horrela izan zen. Koldobikak animatu ninduen liburu moduan ateratzera.

Argazkilaritzan noiz hasi zinen? Hori askoz lehenago kontua da, ezta?

Bai, bai, hamabost bat urterekin. Institutuan banuen lagun bat hortan asko ibiltzen zena, eta harra sartu zigun lagun batzuri, eta geroztik betidanik egin ditut argazkiak.

Ze harreman dute zure ipuinek eta argazkiek? Kutsatzen al dute elkar? Argazkilaritzak badu eraginik ipuinak idazterakoan, deskribapenetan, eszenak planteatzerakoan?

Bai, beharbada bai. Argazkiak eurak askotan aipatzen dira ipuinetan. Horretaz gerora konturatu naiz. Azkenengo honetan bertan ere bitan aipatzen da argazkia. Argazkien deskribapenak ere badaude. Idatzi nuen lehen ipuinaren titulua ere argazkigintzako kontzeptu bat da: latitueda, nahiz eta gero harremanen kontua lantzeko metafora gisa erabiltzen dudana. Bai, argazkigintza presente dago ia ipuin guztietan.

Eta teknika literarioan?

Ez dut gehiegi pentsatu hortan. Ipuinen batean eszena batzuk kontatzen dira argazkiak balira bezala, eta zenbait gauza kontatzeko argazkiak deskribatzen dira. Hori egia da.

Argazkilari sentitzen zara?

Argazkiak egiten ditut. Eta idatzi berdin, idatzi egiten

du, eta informatika ere berdin, estudiatu egin nuen. Etiketak ez zaizkit asko gustatzen.

Zure beste afizio bat, hemen ezaguna, txirrindularitza da. Zenbat kilometro urtean?

4.000tik gora oso gutxitan. Ez da asko hori. Denbora asko behar da. Denbora gehien kentzen duen kirola dela uste dut.

Kirol bezala egiten duzu edo?

Bai.

Baina zerbait gehiago ere bada, ala? Lekuak ezagutzeko modua, ezta?

Bai, bai, Astesantutan lagunak joaten gara alforjak hartuta hango eta hemengo txokoak ezagutzera. Baina hemen egiten dudana kirola da.

Eta bizikletan alforjekin zoazenean, turismo egiten, seguru foto mordoxka egingo duzula.

Bai hala da.

Eta literaturarekin badu loturarik?

Benoa, ipuin bat badago txirrindularitzari buruzkoa. Baina alforjekin joaten diren txirrindulariak baino Quebrantahusesos tipoko proba batera doazen hiruren istorioa da eta hor gertatzen diren harremanak kontatzen dira.

Beste ipuinik buruan?

Bakarren bat badago erdi hasita baina utzita aspaldi. Orain nahiko nuke bilduma hori osatu eta ea argitaratzen den. Beldur piska bat ematen dit, ez pentsa.

Zergatik?

Ez dut inoiz izan argitaratzeko behar hori, batzuk izaten dutena. Lehenengo

ipuina lehiaketara bidali nuen inori irakurtzeko eman gabe. Jendeak ez zekien bidali nuenik, ez idatzi nuenik ere. Ezta hurbilenekoek ere. Geroztik bai, bakarren bati uzten diot aurretik irakurtzeko, eta sariren bat jasotzen badu ematen diot jendeari irakurtzeko. Liburu argitaratu eta gero zer etor daitekeen beldur piska bat ematen dit. Aurkezpenak ere ez zaizkit gustatzen eta argitaratuz gero hortik pasa beharra dago.

Zergatik idazten duzu?

Zergatik idazten dudana? Nolakoak garen hobeto ezagutzeko, nire burua ere hobeto ezagutzeko eta batzuetan bestela adierazten ez ditudan ateratzeko. Oso hitzuna ez naiz eta uste dut beste eskape batzuk behar direla gauza batzuk esateko.



© Unai Sorarrain



■ Jose Ignazio Gabirondo eta Edurne Ayuso

Alkizako barraskiloak Etxesagasti baserrian

Alkizako Etxesagasti baserrian hartu gaituzte Mikel Gonzalez Etxeberrik eta Mertxe Imazek.

Alkizan gustora bizi bazarete ere, izatez ez zarete alkizarak ezta?

Mikel: Ez, ni izatez legorretarra naiz eta bertan bizi izan nintzen 26 urte nituen arte. Mertxe berriz billabonarra da. Ni kalean jaio eta hazitakoa naiz, baina baditut baserriko sustraiak ere.

Mikel kontaiezaguzu kaletar izatetik baserriar izaterako urratsa zergatik eta nolatan eman duzun.

Mikel: Kimikako ikasketak burutu nituen eta 26 urterekin irakaskuntzan hasi nintzen. Beasainen urte batzuek lan egin ondoren Lekeitiora joan nintzen eta 9 urtez egon nintzen bertan. Lekeitio betirako gertuko nintzela pentsatzen nuenean Mertxe ezagutu nuen eta Donostiara salto egin nuen. Orioko ikastolako zuzendaritza taldean egon nintzen gero zazpi urtez eta Zarautzeko Oteiza Lizeoa sortzeko lanetan aritu nintzen gero. Ordurako Etxesagasti baserria eresia genuen eta laneko kontratua bukatutakoan, bertan geratzeko aukeran pentsatu nuen eta Mertzexi esker, posible izan da aldaketa hori egitea.

Mertxe, Mikelek oso erraz kontatu digu batetik bestera nola ibili den, baina, zuretzeko erraza izan al da?

Mertxe: Egia esan berak mugitu behar izan du batetik bestera. Ni Tolosan bizi nintzen eta niretzako ez zen horrenbestera aldaketa izan Donostiara joatea eta gero hona etortzea.

Baina, biek al zenuten baserrian bizitzeko gogoia?

Mikel: Ideia berez nirea zen. Mertzex baldintza bakarra jarri zuen: baserriak bere lantokitik gehienera ere 20 minutura egon behar zuen. Eta kasualitatez, sekulako zortea izan genuen Etxesagasti topatzerakoan. Baserria ikusi genuenerako beste pertsona batek erosteko diru seinalea emana zuen, baina, arrazoiren bategatik atzera bota zen eta azkenik guk erosi ahal izan genuen.

Mertxe: Nik nahi nituen baldintzak betetzen zituen gainera, Etxesagasti leku argitsuan dago eta gainera, lanetik gertu dago.

Beraz, Etxesagastik hasiera-hasieratik maitemindu zintuzten...

Mikel: Hasiera-hasieratik. Nire aita zenak esaten zuen baserriak "deskansu" piska bat behar duela eta honek sekulako "plataforma" dauka bere bueltan. Ernio azpian geratzen da, aurrez-aurre Zizurkilgo mendiak geratzen dira... oso lasaia da. Nik gainera, buruan nuen baserrian bizi nahi nuela, ez nuela baserria lotarako bakarrik nahi eta horretarako lursail piska bat izatea beharrezkoa nuen. Tira ba, Etxesagastik baditu hiru hektarea t'ardi, baserriatik ez baina, baserrian lana eginez bizitzeko adina lur baditu beraz. Beraz, guk nahi genituen baldintza guztiak betetzen zituen.

Irakaskuntza mundua utzi eta baserria etorri zinenen, zein izan zen lehen lana? Zertan hasi zinen?

Mikel: Babarruna landatzen hasi nintzen. Babarrun elkartearen berri izan nuen eta nik landatzeko moduko produktua zela pentsatu nuen. Hala hasi ginen piskanaka-piskanaka. Gaur egun, baserrikanpora, babarrun elkartean ere lan egiten dut noizean behin. Mertxe: Nik etxetik kanpora ere lan egiten dut, baina, babarrunekin gustora aritzen naiz, denborapasa atsegina da.

Babarrunak landatzeaz gainera, zuek baduzue animalia haztegi berezi-berezi bat: barraskilo haztegia duzue!

Mikel: Tolosako lagun talde batek barraskiloak nola hazi ikasteko ikastaro bat egin zuen Bartzelonan eta haztegi bat martxan jartzeko lursailen bila zebiltzan. "Terrenoa" alokatuko ote nien galdetu zidaten eta nik, lurra uztearen truke, bazkide izatea proposatu nien. Eta halaxe hasi ginen hiru lagun barraskilo haztegiarekin martxan. Denborarekin, beste bazkideek haztegia utzi zuten eta nik apurka-apurka haztegia barraskiloen baldintzetara moldatzen joan behar izan dut.

Mikel, ez al duzu irakaskuntza faltan botatzen?

Batere ez. Estres egoeretan lan egitea egokitu zait askotan. Zenbait kasutan gainera, gatazkaren bat zegoen ikastoletan lan egin behar izan dut eta orain, nik nahi dudana erritmora, inguru honetan, eta animaliei begira lan egiteak ez dauka batere zerikusirik.



Barraskilo haztegia inguru ederrean dago, karakolek ez dute ez kexatzeko aitzakiarik!

Mikel: Egia esan, lasai-lasai bizi dira, jan eta egon besterik ez dute egin behar! Ingurua ere zoragarria da.

Gaur egun herritarrak honezkero jakingo dute herrian barraskilo haztegi bat badela, baina, hasieran zer pentsatu ote zuten!

Mikel: Egia esan oso harrিতuta geratu ziren. Badira karakolak bildu eta jaten dituzten herritar batzuk, baina, gainontzean kalteak egiten dituzten animalitxo batzuk bezela ikusten dituzte barraskiloak. Eta noski, pentsatzea norbaitek karakolak hazten dituela gero saltzeko... ba zoraita geundela pentsatu zuten. Udaletxean ere harrিতuta geratu ziren. Hasiera-hasieratik eman zidaten negutegi bat jartzeko baimena, baina araudiak berez, ez zuen barraskiloak hazteko aukerarik aurrikusten, beraz, kontu guztiz berria izan zen udalaxearentzat ere.

Mertxe, zer esan zuten zure ingurukoek barraskilo haztegi bat jartzekoak zinetela esandakoan?

Mertxe: Harrিতuta geratu ziren, hasieran parre egin zidaten egia ote zen ere ezin sinistuta. Baina, tira, Donostiatik baserri batetara joan ginela bazekiten eta sinistea ez zitzairen horren zaila egin.

Kanpotik begiratuta inork gutxi jakingo luke negutegi honetan barraskiloak daudenik. Akaso, kanpoko kolore berdeak gainontzekoetatik ezberdintzen du...

Mikel: Plastikozko negutegi bat da eta kanpotik sare berde moduko bat du. Sare horrek negutegia eguzkitik babesten du, bestela barruan tenperatura izugarri igotzen da. Tenperatura altuegiak dira hain zuzen ere gure etsairik handiena, iaz uztailan eta abuztuan zoritxarrez barraskilo asko hil ziren beroaren eraginez. Karakolek asko sufritzen dute beroarekin.

Mertxe: Gainera, berdea izanik, inguruarekin ez du horrenbesteko kontrasterik egiten. Zuria balitz, begi bistako inpaktua handiagoa litzateke.

Deskribatu iezaguzu barraskilo haztegia nolako den.

Mikel: Negutegiak 50 metroko luzera eta 10 metroko zabalera ditu. Lau pasillo luzetan banatuta dago eta bertan lau mahai luze-luzeak jarriak ditugu. Mahai hauek lurretik metro batetako altuerara daude gutxi gora behera lana egitea errazagoa izan dadin. Mahai bakoitzean lurra dago, 20 bat zentimetro arteko lurra bertan belarra hazi dadin.

Barraskiloak neguan lo egon ohi dira eta udaberri hasieran, denak mahai batean biltzen ditut eta ura botatzen diet piskanaka esnatu daitezten. Esnatzen direnak, bizirik daudenak, mahaietan sakabanatzen ditut bertan jan eta hazten joan daitezten. Mahai bakoitzean 100 kilo barraskilo inguru egongo dira.



Mikel eta Mertxe baserri aurrean.

Belar artean hazten dira goxo-goxo barraskiloak, baina, oker ez banaiz, belarraz gainera pentsua ere jaten dute ezta?

Mikel: Bai. Hasieran Gironatik ekartzen genuen pentsua. Azken batean kaltzioa gehitzen dioten irin fin-fin bat da, kaltzioa eskola osatzeko oso garrantzitsua baita. Denborarekin neronek pentsua egiten ikasi dut, izan ere, pentsua bera bezainbeste kostatzen zitzaidan handik ekartzea. Kimika ikasketak eginak ditudanez, pentsua nola egin asmatzea ez da horren zaila izan, oiloentzako egiten den pentsuaren oso antzekoa da azken finean.

Gaur egun karakolen inguruko sekretuak ezagunak izango dituzue, baina, nola hasi zineten langintza honetan? Zeintzuk izan ziren lehen pausoak?

Mikel: Haztegia martxan jartzeko lehen barraskiloak Kataluniatik ekarri genituen, ustez, haztegi baterako espezierik egokienak zirenak ekarri genituen, haragi txurria duten barraskiloak hain zuzen ere. 20 kilo barraskilo erosi genituen, guztiak urte berekoak ziren eta hala denak homogeneousak ziren. Hermafroditak direnez, azkar ugaltzen joan dira eta negutegi barruan babes handia dutenez, galera oso gutxi izaten da.

Barraskiloak hazteko zenbat denbora behar izaten da?

Mikel: Baldintza onenetan 6-8 hilabetetan jaio eta barraskilo heldua bihurtzen da. Dena den, barraskiloa jaiotzen den urte sasoiak eragin handia du. Ekainean



Etxesagasti baserria; aurrean, barraskiloen negutegia.



Barraskiloen negutegia barrutik.

jaiotzen bada adibidez, barraskilo hori ez da hurrengo urterarte helduko, tartean neguak harrapatuko baitu eta neguan bere haziketa prozesua eten egingo baita. Temperatura 15 gradutik jeisten denean, karakolaren haziketa prozesua eten egiten da.

Nola jakiten duzu barraskilo bat jateko adina hazi dela?

Mikel: Barraskiloaren neurria baina garrantzitsuagoa da oskolaren gogortasuna. Oskolak sukaldatzerakoan ez apurtzeko bezain gogorra egon behar du. Oskolari begiratuta bestalde, bere adina ere jakin dezakegu. Zuhaitzek bezelaxe, hazten diren urte bakoitzeko arrasto bat uzten dute oskolean, urte batetik bestera zenbat handitu den ikusi daiteke oskolara begiratuta bakarrik.

Eguneroko martxan, zein zaintza behar dute?

Mikel: Jatekoa eta ura behar adina dutela zaindu behar da. Horretaz gainera, garbitasuna oso garrantzitsua da. Kaka asko egiten dute eta garrantzitsua da jan lekuak garbi izatea. Tarteka tarteka desinfektatu egin behar da haztegia, izan ere, barraskiloak euren-tzako oso kaltegarriak diren bakterio batekin bizi dira eta garbitasuna zaindu ezean hil egingo lirateke. Barraskiloak oso gutxitan gaixotzen dira, baina, gaixotzen direnean oso tentuz ibili behar da, denak elkarrekin bizi direnez, heriotza tasa oso altua izan baidateke.

Horrenbeste mimoz zaindutako barraskiloak jateko saltzen dituzue ezta?

Mikel: Sortzen dugun guztia saltzen dugu jateko. Hasieran dena Kataluinian saltzen zen, baina, piskanaka-piskanaka Alkiza inguruan saltzen hasi ginen. Gaur egun jada garbituta dauden barraskiloak saltzen ditut tolosaldean.

Aizu Mikel, ba entzun dudanez, barraskiloak garbitzea ez omen da oso lan erraza..

Mikel: Ez da zaila, ez du aparteko konplikaziorik. Azken batean uretan ondo garbitzean dago sekretua. Lehenik eta behin karakola baldintza onetan dagoela baieztatu behar da. Ur epeletan jarri eta ez bada oskoletik guztiz ateratzen ondo ez dagoenaren seinalea da hori. Barraskiloak oskoletik ateraten direnean ura irakiten jarri eta behin irakite puntua hastean ura aldatu behar da. Prozesu bera egingo dugu lau bat aldiz, ura garbi garbi geratzen den arte. Gatzak eta ozpina erabiltzea ez da beharrezkoa, karakolak bere hesteetako hondakin guztiak bere lepotik kanporatzen ditu eta urarekin bakarrik garbi-garbi geratzen dira. Gatzak eta ozpinak barraskiloa lehor-lehor uzten dute.

Zenbat kostatzen da iada sukaldatzeko prest dagoen barraskilo kilo.

Mikel: Gutxi gora behera 13 bat euro. Normalean 3-4 kiloko enkarguak izaten ditut eta momentuz, horixe da niretzako kopuru egokia, ez nuke enkargu handiagotan sartu nahi.

Zer egin behar dute barraskiloak erosi nahi dituzten irakurleek?

Mikel: Enkargua astebeteko aurrerapenarekin egitea komeni da, hartara, eskatutako barraskilo kopurua bildu eta garbituko nuke bezeroarentzako. 635 754 884 zenbakira deitu eta enkargua egitea besterik ez dute. Edozein kasutan ere, udaberria eta udara dira barraskiloak jateko sasoirik onenak, karakolak orduantxe egoten dira goxoan.

Ba Mikel Gonzalez Etxeberri eta Mertxe Imaz, eskerrik asko eskaini diguzuen harretagatik eta ondo segi.



Oilategitik aldizkariaren 10. urteurrena

Bai irakurle bai. Hamargarrena da esku artean duzun alea. Oilategitik aldizkariaren hamargarren alea, hain zuzen ere. Hamar urte igaro dira beraz, gutxienez, norbaiti Alkizan herri aldizkari bat egin zitekeela bururatu zitzaionetik. Zergatik, zertarako, nola, norekin sortu aldizkari bat Alkizan? Hiru lagun, garai hartan bertako biztanle zirenak hirusak, bat bertan jaioa, beste biak herrira bizitzera etorriak, bildu omen ziren lehen aldiz balizko aldizkariaren inguruan solasean aritzeko. Pello Joxe Aranburu, Kepa Fernandez de Larrinoa eta azken urteotan Afrikako Etiopia aldean dabilen Eugenio Lizardi ziren hiru lagun horiek. Pentsatuko ote zuten orduan aldizkari hura hamar urte betetzera iritsiko zenik?

Hona hemen lehen bilera egin ondoren Pello Joxe berak idatzi zuen "akta"ren zati bat:

"2001-04-22an, igandearren goizeko hamaiketan Kepa F. Larrinoaren Muñozabal etxean lehen bilera. Alkizako aldizkariak Kepa, Eugenio eta ni bildu gara lehen bilera egiteko. Hiruroi bideragarria iruditu eta 0 aleaz hitz egiteko hurrengo bilera, apirilaren 29an, berriro egingo dugu hurrengo. Bertara Pepe Udaleko zinegotzi eta kulturako arduradunari deitzea erabaki genuen"

Beraz, lehen aleko protagonista nagusiak izan ziren lau horien –Jose Mari Aranzabe da laugarrena– testigantza jasotzea pentsatu dugu. Galdera hauek luzatu dizkiegu:

- 1.- Nola gogoratzen dituzu orain dela hamar urteko egun haiek?
- 2.- Zeintzuk izan ziren zailtasun nagusiak aldizkariak argia ikus zezan?
- 3.- Nolako harrera izan zuen herrian lehen ale hark?
- 4.- Zerbait bururatzen bazazaizu behintzat, kontaiguzu nahi duzun anekdota, pasadizo edo dena delakoa.



www.oilategitik.net

Gure web atariak 2006 urtetik aurrerako aleak biltzen ditu (6. aletik aurrera).

Gainera, honako atal bereiztuak ditu:
Editoriala, Atzo atzokoak, Baserriak,
Alkizako jaiak, Bitxikeriak, Eskola, Udalaren txokoa,
Toponimia, Alkizako etxeak eta biztanleak,
Elkarrizketak, Artikuluak eta Argazki albuma.



Kepa Fernandez de Larrinoa

Nola gogoratzen dituzu orain dela hamar urteko egun haiek?

Batere dudarik gabe esan beharra dago oso esperimentzia ona izan zela. Hasieran Muñozabalean biltzen ginen. Oker ez banago aurretik telefonoz Eugeniok deitu zidan Pello Joxek gogoan zeraman aldikizkariaren ideia aipatzeko... ideia horretaz mintzatzeko hirurok elkartuko ote ginen... Eta bai, elkartu ginen. Nik kafea prestatu nuen eta Pello Joxek eta Eugeniok kroasana eta eguneko prentsa ekarri zituzten. Giro goxoan aritu ginen lagunartean. Aldizkariaren egitasmoari ekiteko bidea behar bezala zehazteko berriro biltzeko erabakia hartu genuen.

Zeintzuk izan ziren zailtasun nagusiak aldizkariak argia ikus zezan?

Pello Joxe, Eugenio eta hirurok graphia-mundutik bagentzen ere, zeretik partitzen genuen. Nahiz eta beste herri zenbaitetan euskarazko aldizkaririk bazen, Alkizan ez zegoen holakorik. Kezkak ugariak ziren: zenbat orrialde, zernolako artikulua, zeinek idatzi eta zertaz, nola finantziatu, kazetari profesionalari enkarguzko artikulua pagatuta idaztarazi, ahalik eta herri-tar gehienek parte hartuz musutruk, komunitarioan tankeratu, arestiko eginbideak batuz, udalaren lagun-goa eskatu behar ote genuen, beronek lagunduko ote zuen, bolondres eta herriko interes kolektiboaren alde jokatu beharrean, geure hiruron interes politiko edo profesionalak eraginda gentozela pentsatuko ote zuten zinegotziek eta gainontzeko herritarrek... eta holako gehiago. Guk bertako kultura eta harreman sozialak suspertzeko gure denbora, jakinduria eta indarra jarri nahi genuen, baina duda bazegoen udalak eta herritarrek hala interpretatuko ote zuten, eta beraz, proiektua aurreratzen lagunduko zuten. Horregatik hitz egin genuen Peperekin eta pleno batetan agertu ginen. Ondoren, kazetaritzari berari dagozkion erredakzio-gauzei aurre egin behar izan zitzaion. Bilkura franko egin genituen, beti umoretsu eta langile. Aldizkariaren izena ere erabakitzea oso serio hartu



Kepa, alaba Oihanarekin.

genuen. Herriak bere burua aldizkariarekin identifikatzea genuen helburu. Hiru tipo xebebreren aldizkaria ezik, herriko aldizkaria izan zedin, alegia. Abentura aberasgarria izan zen guretzat eta denborak erakutsi du baita herriarentzat ere aberasgarria dela Oilategitik aldizkaria.

Nolako harrera izan zuen herrian lehen ale hark?

Nire ustez, oso harrera ona. Gainera, urte hartan elizako erretaularen afera zen herrian eta gai honi toki berezia egin genion.

Zerbait bururatzen bazaizu behintzat, kontaguzu nahi duzun anekdota, pasadizo edo dena delakoa.

Oilategitik oso inportantea da, zeren eta urtez urte berak erakusten baitu grafikoki, bisualki, herrian diharduten talde sozialak, berauek zer egiten duten, zer duten falta. Gizarte-termometroa da. Oilategitik dela medio Alkizak bere burua erakusten die alkizarreri zein inguruko herri eta auzoei. Alkiza zer den, nor garen, nondik gatozen eta nora goazen perzibitzeko tresna paregabea da. Lehenbiziko urteetan parte bizkorra hartu nuen idazkintzan eta antolakuntzan. Zorixarrez, lanbide-arrazoiengatik azken urteotan ia ez dut batere parte hartu aldizkarian, eta pena dut zeren urterik urte aldizkaria hobetuz da. Bihoazkio nire zorianak Oilategitik elkarteari.



Eugenio Lizardi

Nola gogoratzen dituzu orain dela hamar urteko egun haiek?

Beno ba, hamar urte paseak dira eta nahaspilatu egiten zaizkit oroitzen. Uste det orduan ez nintzela Alkizan bizi, Donostian baizik, baina igande gehienetan joaten nintzela Alkizara organista lanak egitera. Nik esango nuke Pelloren ideia izan zela errebista sortzeko kontu hura. Une haietan Keparekin harreman handia nuen eta gu biongana etorri zen Pello bere ideiarekin berri ematera. Bai, gogoan daukat Keparen etxean egin genituela bi edo hiru bilera-edo, eta gero ere Pepe etorri zela bilera haietara.

Zeintzuk izan ziren zailtasun nagusiak aldizkariak argia ikus zezan?

Finantziadorearen noski. Pepe gurekin zegoen eta posibletzat jotzen zuen Udaletxearen laguntza, eta hala izan zen. Baina gogoan daukat ere Plenoko bilera batera joan behar izan genuela gauzak pixka bat esplikatzeraz eta uste det denak ez zeudela finantziario osoaren alde, eta halako erresistentzi bat jasan izan genuela ere gogoan daukat. Baina azkenean dena ordaindu zuten eta bidea erabat zabaldua geratu zen aurreneko ediziorako behintzat.

Hasieran, Alkizako jendearen erantzunarekin ere kezka pixka bat bagenuen, guk ez genuelako nahi inondik ere gutxi batzuen errebista izatea. Proiektu berak eskatzen zuen partaidetza garrantzitsu bat herritarren aldetik eta beno, lehenengo urtean nahiko ona izan zen, eta hurrengo urteetan hobea noski.

Nolako harrera izan zuen herrian lehen ale hark?

Oso ona, baina guk ez genuen horren beldurrik. Errebista egiten ari ginela konturatu ginen gauza txukun bat argitaratuko genuela. Han lanean ari ginen artean oreka ona zegoen afizionatu eta profesionalen artean. Joxemi Saizar, kazetari profesionala kontratatu genuen eta Enrique Larrarte maketalaria naiz eta kobratu gabe ibili, profesionala zen lan horretan. Gero Mitxelena inprentan lan txukuna egin zuten ere.

Gainera Udaletxetik oso kritika onak jaso genituen. Oraindik gogoan daukat Aurkezpena egin eta hurren-



Eugenio 2003an Eritreara joan zen eta 2004tik Etiopian bizi da. Argazkian, Hamer etniako jendearen artean.

go egunean (Alkizako festetan noski) Jon Oruerekin, orduan Udalako idazkaria zena, Elizegin topo egin nuela eta zorion beroak eman zizkidala, Antonio alkateta eta korporazio guztiaren aurrean errebistaren kalitatearengatik. Jonengatik horrelako oniritzi bat jasotzea ez zen gauza erreza izaten eta pixka bat harridura ere geratu nintzen.

Zerbait bururatzen bazaizu behintzat, kontaguzuz nahi duzun anekdota, pasadizo edo dena delakoa.

Gogoan daukat materialaren bilketaren ardura nik hartu nuela eta Donostiako HABEko bulegoetara hiruzpalau bider ibili nintzela bueltara, han ari baitzen lanean Enrike Larrarte. Berak bere denbora librean egiten zuen Oilategiteko maketazioa eta pixka bat ezkutuan bezala egiten zuen lan. Bere konfiantzazko ez zen norbait etortzen bazen inguru haietara, materialak gordetzen ibiltzen ginen. Baina oso oroitzen onak dauzkate maketazio lan hari buruz, batez ere Enrikeren jarrera apartaz.

Baita ere gogoan daukat azaleko diseinurako izan genituen zalantzak eta aldaketak. Hasieratik garbi geneukan Alkizako "Vista Aereo" taldekoek utzi ziguten argazkia, ipintzea hondo moduan. Zalantzak etorri ziren argazki handi haren gainetik jarri nahi genituen argazki txikiak. Uste det lehenengo saiakeran Lete baserria bakarrik ipini zutela, eta hori ez zitzaigun egokiena iruditu, pentsatu genuelako diseinu aldetik pobrea geratzen zela, eta gainera Leteri protagonismo gehiegi ematen zitzaiola. Azkenean Xabier Artolaren hiru argazki jarri genituen argazki aereoaren gainetik. Horrela gogoratzen det behintzat.

Eta amaitzeko esango nuke origarri onak daukadala errebista inguruan sortu ziren lan talde haiekin. Oso atsegina zen lanean jardutea betiko alkizarrekin: Bittor, Joxe Ignazio, eta abar; eta alkizar berriekin: Gorka, Eli eta Fernando besteak beste.



Jose Mari Aranzabe eta Pello Joxe Aranburu, lehenengo alearen aurkezpenean.



Jose Mari Aranzabe

Nola gogoratzen dituzu orain dela hamar urteko egun haiek?

Gogoratzen zait Muinozabal etxean juntatu ginenean, proiektua oso ona iruditu zitzaidala. Nere kezka zan nola hartuko zuten herriak, Udalak eta Diputazioak.

Zeintzuk izan ziren zailtasun nagusiak aldizkariak argia ikus zezan?

Lehen esan dedan zailtasuna baino, kezka izan genduen finantziak lortuko genduen edo ez. Zorionez ondoren egindako bileratan Udalak baiezkua eman zuenean lasaitasun ederra hartu genduen.

Nolako harrera izan zuen herrian lehen ale hark?

Lehenengo ale hark oso harrera ona izan zuen, eta ondorengoak oraindik hobea. Hori hórrela dela demostratzeko esan behar dut lehenengo aleak 400eko tirada izan zuela, eta azkenekoak, berriz, 800ekoa.

Zerbait bururatzen bazaizu behintzat, kontaiguzu nahi duzun anekdota, pasadizo edo dena delakoa.

Anekdotarik ez dut gogoan, baina gazte jendeari deialdi bat egin nahi nioke parte hartzera anima dadin. Hori lortzea da gure erronka.



Pello Joxe Aranburu

Nola gogoratzen dituzu orain dela hamar urteko egun haiek?

Biziki ondo. Urte haietan nire ohiko lanbidea utzi eta erretiroa jasotzen hasi nintzen, alde batetik, eta beste alde batetik, jaioterrian begiak gehiago finkatu ondoren, Alkizaren historia idazteko orduan, jende berri batekin topo egin nuen, lankidetzaz berriari jo eta kekin. Bi mendeen mugan, 1998-2000 urteetan, San Martin eliza zaharberritu zen eta, 2001ean, "Alkiza auzo eta hiribilduaren azterketa historikoa" izeneko liburua argitaratu zen.

Bai gertakizun batean, bai bestean parte hartu, ardurak izan eta elkar ezagutzuz joan ginen. Esate baterako, Xabier Artola, Eugenio Lizardik eta neuk egindako ekintza zehatz batzuk aipatuko dituk:

- Elizaren zaharberritze lanak zuzendu zituenetako bat Eugenio izan zen.
- San Martin eliza, Alkiza 1998 liburuxka egiteko alderdi historikoa landu genuen.
- 2000. urteko abuztu eta irailean elizaren inauguraziorako ekintzetan hitzaldi bat eman nuen, abuztuaren 25ean herriko historiaz.
- "Alkiza auzo eta hiribilduaren azterketa historikoa" liburuan, 2001eko San Isidroan aurkezpena egin zen, Xabier eta Eugenio lankide izan ziren, argazkiak atera eta diseinu aholkuak gauzatu.

Zeintzuk izan ziren zailtasun nagusiak aldizkariak argia ikus zezan?

Nagusiki bitan laburtuko nituzke: lehen alea sortzeko taldea osatu eta inprentako gastuak ordaintzeko zailtasunak gainditu genituen. Oilategitik 1. alea talde informal batek pentsatu, prestatu eta bere izenean argitaratu zuen. Halaxe dio 2001eko "Non zer" orrialdean, Koordinazioa: Pepe, Pello Joxe, Kepa eta Eugenio eta Diasola izeneko sarreran, berriz, "Muñozabalen, lagun artean apiril-maiatzaren egindako hiru bileretan, Andra Maritan aldizkari bat argitaratzea pentsatu genuen. Lehen uneetatik Udala eta alkizarren oniritzia jaso eta buru-belarri aldizkari hau egiteari ekin genion, bere inguruan, kultur-etxeko bilera batean hiruzpalau talde berri sortu zirelarik".

Bigarren erroka, berriz, aldizkariaren gastuak berdintzea izan zen. Mitxelena moldiztegiari Udalak

ordaindu zion 400 aleko tirada. Gainera, dohain banatu zen horrela erabaki zelako, eta diseinu-maketazio lanak musu truk burutu zizkigun Madrigalgo ondorengoetako bat den Enrike L. Arregik, HABE aldizkariako maketazaileak.

Nolako harrera izan zuen herrian lehen ale hark?

Bikaina, benetako eta ezusteko harrera pozgarria egin zioten alkizarrek eta inguruko herrietako hainbat irakurlek. Eragin hura zela eta, herriko idazle amateurren kopurua ugartu egin zen bigarren alean, sukalde askotako aitona-amonak, zahar gazteen mihiak askatu eta beren oroitzapenak, argazki kuttunak eskainiz barra-barra bigarren alerako. Guztiak Alkizako Oilategitik Kultur Elkartearen sortzera bultzatu gintuen.

Zerbait bururatzen bazaizu behintzat, kontaguztu nahi duzun anekdota, pasadizo edo dena delakoa.

Oilategitik 1. alean, 2001ean, Joxemi Saizar kazetariak bederatzi orrialde zituen artikulua eta pertsonaia asko elkarrizketatu zituen. Gaia guk jarri genion, korapilotsua zen: Bengoetxeko Anbrosioren sagrarioaren orduko kokapena, Donostiako elizbarrutiaren museoan zegoen eta bertan jarraitzen du*. Gaia pil-pilean zegoen, San Martin eliza zaharberriturik eta gure sagrario bitxia aldendurik. Objektiboa izateko kazetari profesionala eta kanpoko hautatu genuen, nahi zuen tamainako elkarrizketa idatzi eta iritzi ezberdinekoak hautatu zitzakeen.

Iritzi kontrajarriak azaldu ziren, herrikoak herrira ekartzearen alde, bi erretoreak eztabaidatik aparte mantendu nahian eta elizbarrutiko beste bi apaiz, museoaren arduradunak dagoen tokian uztearen aldekoak noski. Kinka larrian jarri zen bere kokapena, gaur egun leku berean dago. Ni neure astoari arte eta arte esaten ez naiz aspertuko: gure umetako zura bitxia bere lekura, ALKIZARA. Gainera, azken aldian museoaren arte lan estimatua erdi zokoraturik dago.

* Pello Joxek hau idatzi ondoren, sagrarioa herrira itzuli da. Herriko elizan da berriro, Pelloren eta oro har herritar guztien zorionerako.



Alkizako Udala



GFA



www.oilategitik.net

Beste 10 baietz!

